

euskal estatuari

bidea zabaltzen



herritartasuna eta kultura



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EUSKAL
ESTATUARI
BIDEA ZABALTZEN

herritartasuna eta kultura

Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal **Unibertsitatea**



Egilea: Ipar Hegoa Fundazioa

Laguntzailea: Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 978-84-8438-422-9

Lege-gordailua: BI-1289-2012

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo

Azalaren diseinua: Ipar Hegoa Fundazioa

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:

Ipar Hegoa Fundazioa

Alameda Rekalde 62-behea 48010 Bilbo telf. 944706915

Helbide elektronikoa: iparhegoafundazioa@labsindikatu.org

Udako Euskal Unibertsitatea

Erribera 14, 1. D 48005 Bilbo telf. 946790546 Faxa. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org / www.ueu.org

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.
- Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.

Aurkibidea

AURKEZPENA, <i>Ipar Hegoa Fundazioa</i>	5
---	---

Euskal Estatua eta herritartasuna

SARRERA, <i>Txoli Mateos González</i>	9
1. ESTATUAZ, HERRITARTASUNAZ ETA NAZIO-IDENTITATEAZ, <i>Julen Zabalo Bilbao eta Txoli Mateos González</i>	13
2. HERRITARTASUNA, IMMIGRAZIOA ETA EUSKAL ESTATUA, <i>Iker Iraola Arretxe</i>	27
3. ESTATUA, HEZKUNTZA ETA EUSKAL HERRITARRAK, <i>Txoli Mateos González</i>	45
4. HERRITARTASUNA GOGOETA ETA PRAKTIKA FEMINISTAN, <i>Mila Amurrio Vélez</i>	61

Euskal Estatua eta kultura

SARRERA, <i>Ane Larrinaga Renteria</i>	81
1. KULTURA ESTATU-ERAIKUNTZAN: ESTATUA PROIEKTU SINBOLIKO GISA, <i>Ane Larrinaga Renteria</i>	85
2. ESTATUA, MERKATUA ETA KULTURA: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK, <i>Josu Amezaga Albizu</i>	101

3. EUSKAL KULTURAREN ADIERAZPIDEAK: SENDOTASUNAK ETA AHULTASUNAK BALIZKO EUSKAL ESTATU BATEN AURREAN,
Patxi Juaristi Larrinaga..... 115
4. EUSKAL HERRIAREN HEZKUNTZA-ESKUBIDEAK. EUROPAKO ZENBAIT HEZKUNTZA-EREDU AZTERGAI,
Fito Rodríguez Bornaetxea..... 131
5. EUSKARAREN EGOERA ETA BILAKAERA XXI. MENDEAREN HASIERAN: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK,
Iñaki Mtz de Luna Pérez de Arriba 151

AURKEZPENA

Ipar Hegoa Fundazioa

IPAR HEGOA Fundazioaren helburuen artean, Euskal Herriarentzat interesa duten gai politiko eta sozialei buruzko azterketak eta hausnarketak egitea dago, horien inguruko eztabaidak sustatzeaz batera. Ildo horretatik, Euskal Herriaren bideragarritasun politikoaz etengabe hitz egiten den aro honetan, IPAR HEGOA Fundazioak bere ekarpena egin nahi izan dio gaiari. Izan ere, Euskal Herria lurraldez herri txikia dela esaten da; globalizazio-aro honetan zentzurik ez dutela zatiketa-prozesuek; denon arteko elkarlana eta ulermena bilatzen den garai honetan, independentzia aldarrikatzeak bereizketa sortzen duela herritarren artean, eta abar. Argudio egoki eta pisuzkoak erabiliz askotan, asko dira gaur egun estaturik ez sortzeko aipatzen diren faktore eta iritziak. Baina hori jakinda ere, hor ari dira milaka herritar estatua eskatzen. Ez da haiena ere argudio egoki eta pisuzkoa?

Modu batean edo bestean, oraingo nazioarteko testuinguruan, estatua da erabaki politikoak hartzeko ahalmen osoaren adierazpen nagusia. Horregatik, gaurko Euskal Herrian, oraingo testuinguru politikoan, oso interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu, Euskal Estatu bat European eraikitzeari begira, onura, aukera, mehatxu eta gabezien inguruko hausnarketa kolektibo bat egitea, hainbat alor jorratuz: politika, alor instituzionala, lurraldea, sozioekonomia, hizkuntza, kultura, identitatea, eta abar.

IPAR HEGOA Fundazioak dauden baldintza guztiak kontuan hartu, eta Euskal Estatu bideragarria den jakin nahi izan du. Horretarako, gaian adituak diren irakasle eta ikertzaileak batu ditu horretan sakontzeko. Badakigu beste aditu asko ere badagoena, ekarpen ezin interesgarriagoak egin dituztenak askotan. IPAR HEGOA Fundazioaren helburua ez da izan, ordea, aditu guztien ekarpenak jasotzea, edo ordezkaritza orekatua lortzea jakintza-arloka edo herrialdeka. Ez dugu bilatu, bestalde, ikuspegi homogeneorik. Ez da izan hori IPAR HEGOA Fundazioaren asmoa. Aitzitik, egileek askatasunez hitz egin dute, Euskal Estatuaren beharra eta bideragarritasuna azpimarratzeko ideia orokorrari eutsiz, baina hortik aurrera jarrera eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeela jakitun.

Horrela egin dugu, lanaren helburua ez delako Euskal Estatuaren konstituzio bat eraikitzea, edo Euskal Estatuak nolakoa izan beharko lukeen ezartzea. Helburua xumeagoa da, ordea, eta hein berean, erabakigarria: Euskal Estatu bideragarria da? Mereziko luke Euskal Estaturik osatzea? Euskal herritarrek ontzat joko lukete proiektua? Oinarritzko galdera hauei erantzunda, eta erantzuna positiboa izaki, bigarren aldi baterako geratuko lirateke errenkan etorriko liratekeen galdera berriak, oro har, Euskal Estatu zertarako galderari erantzun beharko lioketenak.

IPAR HEGOA Fundazioak zinez uste du azterlan honek interes horri erantzun diezaiokeela eta, diziplina anitzeko ikuspegia baliatuz bertan biltzen diren gogoeten bidez, lagungarria izan daitezkeela Euskal Herria oraingo nazioarteko testuinguruan

bistaratzeko eta hor kokatzeko; halaber, konparazioak egitearen bidez, lagungarria izan daiteke gaur egun estatuak osatzen dituzten eremuetan Euskal Herriaren posizio absolutu eta erlatiboa ezartzeko munduan.

Gure ustez, azterlan honetan jasotako ekarpen teoriko interesgarriak balagarriak izango dira Euskal Estatuaren errebindikazioa edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat itxuratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Izan ere, IPAR HEGOA Fundazioak uste du hori dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta planteatu nahi du Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, estatu bat Europako estaturen multzoan sortzeko.

Hortaz, **EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN** izenburupean aurkezten dugun azterlan honen bitartez, IPAR HEGOA Fundazioak ekarpen kualifikatu bat egin nahi dio Euskal Estatu eraikitze beharri eta horren bideragarritasunari. Hiru liburutan banatu dugu azterlana, sailkatu dugun hiru gai-arloen arabera: **Herrigintza eta erakundeak, Herritartasuna eta kultura, eta Lurraldea eta sozioekonomia**. Bigarrenaz dihardu, hain zuzen ere, liburu honek.

HERRITARTASUNA aztertzeraz zuzendutako atalean, **Txoli Mateosek eta Julen Zabalo** diote ulergarria dela gutxitan hitz egitea gure gizartean euskal *herritartasunaz*, betebeharrak eta eskubide multzo hori estatuari loturik joaten baita. Estaturik ezean, hau da, erabakitzeko ahalmena murrizta denean, apalago garatzen dira herritartasunaren inguruko eztabaidak, beste gizarte batzuetan indar biziz soma daitezkeen ika-mikak, alegia. Atal honetan, balizko Euskal Estatu baten zeregin demokratikoarekin batez ere lotu dute herritartasuna. Demokraziaz eta herritar demokratikoez hitz egiten dute, beraz, baita euskal herritarren arteko lokarriak indartze aldera sustatu beharreko kultura politiko berriaz ere.

KULTURARI buruzko atalean, **Ane Larrinaga** koordinatzaileak dioenez, euskal kulturak estaturik gabe nozitzen dituen gabeziak azaleratzeaz gain, balizko estatu batek kulturaren ikuspegitik euskal gizarteari ekarriko lizkiokkeen ustezko onurei buruzko gogoeta egin nahi izan da. Horretarako, estatuaren eginkizun kulturaletan jarri da arreta, baita zeregin horietan azken garaiotan gertatu diren aldaketetan ere. Bestalde, Euskal Estatuaren lortze bidean kulturaren esparruan egon daitezkeen ahulgune eta indargune batzuk ere identifikatu nahi izan dira, eta, nolabehar ere, estatu horrek askatu beharko litzuzkeen korapiloak atzeman.

Bukatzeko, IPAR HEGOA Fundazioak bere nahia adierazi nahi du azterlan honi lotuta, hau da, espero du Euskal Estatu eraikitze ikuspegiari buruzko ekarpen gehiago eta berriak sortuko dituen bide emankor baten hasiera baino ez izatea. Horrekin batera, zinez eskertu nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen erakutsitako interesa, baita eskainitako denbora eta egindako ekarpenak ere. Eskerrak, beraz, atalaren koordinatzaile izan diren **Julen Zabalo, Txoli Mateos** eta **Ane Larrinagari**, eta eskerrak egile guztiei ere.

Euskal Estatua eta herritartasuna

*Txoli Mateos González
Julen Zabalo Bilbao
Iker Iraola Arretxe
Mila Amurrio Vélez*

Sarrera

Txoli Mateos González, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Ernest Gellner-ek, nazionalismoari buruzko pentsalari ospetsuak, esan zuen, ironia apur batez, nazioa beti ibiltzen dela estatu baten bila, eta ahal dela, berea izan dadila nahiago izaten duela, eta ez beste inorena.

Paradoxikoa badirudi ere, oso gutxitan hitz egiten da euskal gizartean eta euskal nazionalismoaren baitan *herritartasunaz*. Eta paradoxikoa irudi lezakeela diogu herritartasuna entzutean gure artean bolo-bolo dabilzan kontzeptu batzuk berehala datozkigulako burura: nazioa, estatua, herria, eskubideak (batez ere politikoak), eta abar. Logikoa da, ordea, —eta ez paradoxikoa— kontzeptu hori ez egotea oso orokortua, estatuari loturik joaten baita estatua. Estatu baten existentziak ekartzen ditu herritartasunaren inguruko polemikak eta hitzarmenak, kontsentsuaren bilaketa eta balizko desadostasunak. Estaturik ezean, Euskal Herrian gertatzen den bezala, erabakitzeke ahalmena murrizta da oso herritartasunaren inguruko arazoetan eta alferrikako bihurrazten ditu horien inguruan gerta litezkeen ika-mikak. Zenbat eta demokratikoagoa izan estatu hori, are eta sakonagoak eta aberatsagoak izango dira arazoak, eztabaidak eta horien inguruko ebazpenak.

Globalizazioak eragindako migrazio-mugimenduek eta instituzio demokratikoen jardueraren gabeziek, besteak beste, kolokan jarri dute indartsu eta egonkor zirudien gizarte-antolaketa, baita horren agintea ere, estatu liberal demokratikoa, alegia. Arazo potoloak dira, izan ere, herritartasunari eta demokraziari lotuak egoten direnak, herrialde baten izaeraz eta herrialde horretako bizilagunen arteko lokarriaz hitz egiten ari baikara. Horren froga argia da nola ugaritu den azkenaldian gai horien inguruko literatura zientifikoa demokraziari buruzko gogoetan aurreratuen dauden gizarteetan (Kanada edo Erresuma Batua) eta nazio-identitatearen inguruko gatazkarik ez dutenetan (Amerikako Estatu Batuak). Demokrazia liberalaren akatsak zuzentzeko saio teorikoak izan dira horiek denak, eta demokrazia *ordezkatzaillea* albo batera utziz, demokrazia *deliberatiboa*, *indartsua*, *parte-hartzailea* eta horrelako kontzeptuak ageri dira non-nahi. Horiekin batera, herritartasunaren eduki zibiko eta etikoetan sakondu nahi izan da, nabarmenduz, horrela, hezkuntzak duen zeregina herritar arduratsuak sortze aldera. Eta demokraziak behar dituen herritarren ezaugarriak ez ezik, herritartasunaren beraren mugak ere dira hizpide. Izan ere, nor den *herritar* eta nor den *atzerritar* zehaztea ez da kontu makala. Ongizate-estatuaren laguntzarako edota hauteskundeetan botoa emateko eskubidea, besteak beste, bereizketa horretatik abiatzen dira. Abiapuntu teoriko komuna dute, hortaz, idazlan guztiek, hots, herrialde moderno guztietan garatzen ari diren eztabaidak

herritarren arteko lotura demokratikoaren izaeraz, edo, nahi bada, demokrazia indartzeko beharraz.

Baina, herritartasunaren eta demokraziaren definizio berriaren behar horri, ezinbestean, beste aldagai bat gehitzen diogu guk, estatuaz ez ezik, Euskal Estatuari buruzko hausnarketa dugulako esku artean. Euskal Herria gizarte moderno eta aurreratua da. Itxura batean konponbide zaila duten hainbat arazori aurre egiteko eta premia sakon asko asebetetzeko estatu bat behar du: Euskal Estatu. Ildo horri eutsita garatu dira atal honetan agertzen diren idazlanak: bestelakoa izango litzateke euskal gizartea bere kabuz norabidea erabakitzeko agintearen jabe baldin balitz. Baina, esan gabe doa, gogoeta zientifikoa egin gura izan da eta ez, ordea, *desideratum* huts baten aurkezpena.

Estaturik ez duen herri batean ezin daiteke egon legez zehaztuta nortzuk diren bertako herritar eta nortzuk atzerritar. Hala, Euskal Herria estatu bitan —eta hiru administratibotatik— banaturik dagoenez, horietako biztanle gehienak frantziar edo espainiar herritar dira, legez. Ez dago, beraz, *euskal herritartasunik*. Eta estatus politiko administratiboaz gain, nazio-identitate bat baino gehiago ere aurkitzen ditugu lehian euskal gizartean: frantziar, espainiar edo euskal herritar, hurrenez hurren, sentitzen direnak. Hartara, atal honetako idazlan batean esaten den moduan, Portugaleko biztanle batek ez dio bere buruari galdetzen portugaldarra den edo ez. Zalantzarik ez du bere herritartasunaz eta bere naziotasunaz: biak dira bat eta biak daude argi eta ondo zehaztuak. Ez da, ordea, Euskal Herrian bizi garenon kasua, jakina denez. **Julen Zabalo Bilbaok** eta **Txoli Mateos Gonzálezek** horrek guztiak dakarren arazoaz egiten dute berba «Estatuaz, herritartasunaz eta nazio-identitateaz» izeneko idazlanean. Horren abiapuntua da ezinbestekoa dela bereiztea nazio-identitatea eta estatus administratiboa; hots, naziotasuna eremu subjektiboari (hau da, borondateari) dagokiola eta herritartasuna eremu objektiboari. Etorkizunean, gai arantzatsu bat baino gehiago ebatzi beharko dira horren inguruan, baina, ematen du herritartasuna zehazteak ez lukeela gatazka handirik ekarriko, gaur egun *bertan bizitzea* jotzen baita, nagusiki, baldintza bakarra euskal herritartasuna zertan datzan adierazteko orduan. Are gehiago, idazlanaren egileek diotenez, litekeena da aniztasun politikoa edo nazio-identitate desberdinen arteko elkarbizitza guztiz bideragarria izatea balizko Euskal Estatu batean. Hala ere, Euskal Estatuak, nazio-estatu guztien antzera, beti bilatuko du naziotasuna eta herritartasuna parekatzea bizilagunen artean.

Nazioko kideak eta herritarrak ez dira automatikoki parekatzen, beraz; eta arazoa gehiago korapilatzen da immigrazioa kontuan hartzen badugu. Nonahi delarik ere, zaila eta gatazka-iturri izaten da etorkinaren beraren kokapena, ez baita nazioko kidea, ez herritarra, ezta atzerritar hutsa ere. Eta, era orokorrean esanda, estatuaren jabe izan edo ez, nazionalismoak harreman konplexua du immigrazioarekin, euskal nazionalismoa adibide. Euskal Herrian badugu esperientzia oparoa immigrazioaren arloan, eta argi-ilun askoko etorkin-olde desberdin bi egonda, horietatik ikasi beharra aipatzen da Euskal Estatu batek ekar lezakeen onurari erreparatu nahi bazaio. Kontuan hartu behar da, edonola ere, Euskal Herrian ez dela egon eztabaida sozial sakonik immigrazioaz herritartasunari edota naziotasunari lotuta, horiek lantzeko

eskumenik egon ez den neurrian. Hain zuzen ere, gaur egun, immigrazioa politikaz kanpoko beste arlo batzuetan da hausnarketa-iturri, gai sozialei lotuta, batez ere. «Herritartasuna, immigrazioa eta Euskal Estatu» izeneko idazlanean **Iker Iraola Arretxek** horretaz guztiaz egiten du gogoeta. Euskal Estatu lortzeko prozesuak immigrazioaren dimentsio politikoaren eztabaidari bide eman beharko diola diosku egileak, eta ebatzi beharreko gai ugari mahaigaineratuko direla orduan. Horien artean, euskal herritar bilakatzeko baldintzak, immigrazioak eragindako kultura-aniztasunaren kudeaketa, immigrante taldeen eskubideen trataera eta, azken batez, etorkinen egokitzapen edo integrazioaren afera. Hartara, migrazio-politika nazional jakin bat garatu behar da; eta hori Euskal Estatu batek baino ezin du ahalbidetu eta behar den moduan bermatu.

Immigrazioaren gaia sarritan ikusten dugu euskal gizartean eskolari eta eskola-hizkuntzari lotutako eztabaidetan. Izan ere, hezkuntza-sistemaren norabidea *nazio-arazotzat* jotzen da egungo gizarte demokratiko guztietan, haien integrazioarako eta herritarren sozializazio politikorako zinez lanabes eraginkorra baita eskola. Labur esanda, langile gaituez gain, herritar arduratsuak eta nazioko kideak sortzen ditu hezkuntza-sistemak. Hala, herritartasunarekin eta demokraziarekin, batez ere, harremanetan jarri du hezkuntza **Txoli Mateos Gonzálezek** «Estatu, hezkuntza eta euskal herritarrak» izeneko idazlanean. Bertan, hiru zeregin eransten zaizkio etorkizuneko Euskal Estatuari, euskal herritarrei onura ukaezina ekarriko dietelakoan. Batetik, euskal herrialdeei dagokien berezitasuna kontuan hartuz betiere, hezkuntza- eta ikerkuntza-sare nazionala sortzea, euskal gizarteak nozitzen duen banaketa administratiboa gaindituz. Nazio-administrazioaren ardurapean arituko litzatekeen hezkuntza-sistemaren ikastetxeen estatusa, edota eskola-hizkuntzak, besteak beste, ebatzi beharko lirateke, eta ez dira horiek gai makalak, inondik inora. Bestetik, Euskal Herriko ikasle guztiei heziketa zibiko-morala helaraztea, euskal herritartasuna sendotze aldera. Egitura politikoarekiko leialtasuna eta nazioarekiko maitasuna lantzeaz gain, balio demokratikoak babesten dituzten herritarrak sortu behar ditu biharko Euskal Estatuak. Eta, azkenik, euskal herritarren integrazioa helburu hartuta, kultura-aniztasun *zaharrari* eta *berriari* erreparatu beharko die eskolak, egoerarik ahulenean dagoen euskal kulturari tratu berezia emanaz, ordea.

Euskal kultura ez ezik, euskal herritarren artean badira egoera ahulean daudenak, immigrantez gain. Emakumez mintzo gara, jakina. **Mila Amurrio Vélezek** harremanetan jarri nahi izan du emakumeen eskubideen defentsa eta Euskal Estatuari loturik ageri zaigun herritartasun berrirako aldarrikapena «Herritartasuna gogoeta eta praktika feministan» izeneko idazlanean. Herritartasunaren mugak zehaztea erronka handia dela hartzen du abiapuntutzat, litekeena baita gizarteko sektore guztien nahiak ez asetzea. Feminismoaren gogoeta teorikoei eta haren jardunari jarraituz, herritartasun berriaren eraikuntzan eragin dezaketen genero-harremanak agerian utzi behar dira, zalantzarik ez. Eta horiek birbideratze aldera, emakumeen partaidetza bermatu behar da irmoki, lehenik eta behin, emakumeen kolektiboak izan litzakeen interesak kontuan hartuz, horrela. Hori aurrera eramateko, ordea, ezinbesteko baldintza izango da *kultura politiko berria* sustatzea eta horrek gizon eta emakumeen arteko botere-harremanetan aldaketa sakonak eskatzen ditu, nahi eta nahi ez.

Euskal Estatua eraikitzeko prozesuan, eginkizun poliedriko modura ikusi behar da herritartasunaren zehaztapena; dimentsio anitzekoa, alegia. Lau egileok ezkutatu ezineko zailtasunez gainezka irudikatzen dute hura, baina ukatu ezineko onurak ere aitortzen dizkiote aldi berean. Arestian aipatu dugun moduan, arlo horretan gizarte modernoek dakartzaten desafioei aurre egin ahal izango zaie gainerako aginte politikoek egiten duten moduan: euskal herritarren estatuaren erabaki subiranoen bidez.

1. Estatuaz, herritasunaz eta nazio-identitateaz

Julen Zabalo Bilbao, Geografian doktorea, UPV/EHUko irakaslea
Txoli Mateos González, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Herritasuna nazio-estatuari eta demokrasiari loturik ulertzen da. Alde batetik, herritarra eta nazioaren kidea pareko bihurtzen dira gizarte modernoetan. Eta, bestetik, zenbat eta demokratikoagoa izan gizarteak, are eta eztabaida sakonagoak gertatzen dira herritarren ezaugarri zibikoaren inguruan. Hori horrela, herritasunari betebeharrak eta eskubide multzo bat erantzen zaio arlo politikoan, sozialean nahiz ekonomikoan. Euskal Estatura bidean, eta Euskal Herrian dauden nazio-identitate desberdinen arteko elkarbizitza bideragarria lortze aldera, proposatzen da naziotasuna eremu subjektiboari (hau da, borondateari) eta herritasuna eremu objektiboari lotuta ulertzea. Ahaztu gabe, ordea, Euskal Estatuak, nazio-estatu guztien antzera, beti bilatuko duela naziotasuna eta herritasuna parekatzea bizilagunen artean.

On state, citizenship and national identity

Citizenship is conceived of as related to the nation-state and democracy. In modern societies, a citizen is viewed as equivalent to a member of the nation. Furthermore, the more democratic a society, the more profound the debate over the civic characteristics of citizenship. Thus in political, social and economic terms, the notion of citizenship involves duties and rights. Hence as we move in the direction of a Basque state and work towards making the coexistence of different national identities within Euskal Herria feasible, we should think of nationality as part of a subjective (voluntary) domain, and of citizenship as part of an objective domain, while keeping in mind that, like all nation-states, the Basque state will always seek to treat nationality and citizenship as equivalents among members of the population.

1. HERRITARTASUNA

Herritartasun/hiritartasun kontzeptuak ibilbide historikoa du Mendebaldeko gizarteetan. Antzina, herritartasun kontzeptua erabiltzen zen norbanakoaren eta bere herriaren/hiriaren loturak irudikatzeko (*cives romani*, adibidez). Pribilegiozko estatusa islatzen zuen, eta eztabaida publikoan parte hartzeko eskubidea onartzen zitzairen herritar zirenei. «Gizon libreak» bakarrik izan zitezkeen herritar, eta ez, ordea, atzerritarrak, emakumeak edota morroiak. Euskal Herrian ere, eta orain gutxira arte, gehienetan jabeak bakarrik izaten ziren herritar oso. Estatu absolutuaren sorrerarekin batera, estatuaren mugen barruko biztanlea monarkaren menpeko jo zen, baina Estatu Batuetako eta Frantziako iraultzen eskutik, herritartasunak dimentsio berria hartu zuen, naziotasun ideiarekin batu ahala. Menpekkoa herritar —edo nazioko kide— bihurtu zen.

Nazioa herritarren batura da, maila berean dauden elementuen batura, eta ez gainetik edo inoren azpitik dagoen zerbait: herritarrek ematen diote boterea nazioari, eta haien izenean erabiltzen da. Herritarrak pertsona guztiak dira, eta hortaz, apurka, desagertu egin ziren herritar izatea eragozten zuten baldintzak: generoa, jabetasuna, estatus ekonomikoa, eta abar. Prozesu luzea izan zen, oztopoz bete, eta emakumeek, beltzek edo ondare gutxiko pertsonak ez zituzten eskuratu eskubide guztiak XX. mendearen erdialdera arte.

Hala ere, izatez, herritartasuna, lehenik eta behin, harreman *politiko* bat da, gizakia eta komunitate politikoa lotzen dituena. Lotura hori dela medio, gizakia komunitateko kide bihurtzen da, eta etengabeko leialtasuna zor dio hari. Gizarte modernoaren sorreratik komunitate politikoa horrek zuzenbidezko nazio-estatuaren forma hartu du. Hala, egun indarrean dagoen *herritar* kontzeptua XVII. eta XVIII. mendeetatik dator eta harreman zuzenean dago nazio-estatuarekin. XX. mendearen erdialdetik aurrera, ongizate-estatuarekin batera, *herritartasun* kontzeptua zabaltzen eta edukiz bete da. Askatasun indibiduala, arazo publikoetan parte hartzea eta babes soziala eskuratzea izango dira ardatz kontzeptu berriak.

1.1. Herritartasuna, nazio-estatuta eta demokrazia

Norbanakoa estatuari lotzen dion lokarria da *herritartasuna*, baita eremu politikoan parte hartzeko ezinbesteko estatus juridikoa ere. Estatu modernoek argiro zehazten dute nor den estatuko herritar eta zein diren estatus hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak: bertan urte kopuru jakin batez bizi izana, adibidez. Globalizatorako joeraren eraginez, uste ohi da nazio-estatuaren egitura garrantzia galduko duela herritartasuna zehazteko eta kudeatzeko orduan. Hala, herritartasuna, batzuetan, nazio-estatua gainditzen duen beste egitura bati atxikia ikus daiteke, adibidez, Europar Batasunari. Eta lotura hori ere bestelako maila politiko edo administratiboak ere erantsi ahal zaie, besteak beste, udalari. Hala ere, gaur gaurkoz, nazio-estatua gailentzen da edozein egitura soziopolitikoren gainetik herritartasuna zehazteko orduan, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Horrela, nor den *herritar* eta nor den *atzerritar* zehaztea ez da kontu hutsala, ongizate-estatuaren laguntzarako eskubidea edota hauteskundeetan boto emateko eskubidea, besteak beste, bereizketa horretatik abiatzen dira eta.

Hortaz, herritartasunari betebeharrak eta eskubide multzo bat erantzen zaio arlo politikoan, sozialean nahiz ekonomikoan. Izan ere, herritartasun ideiarekin zabalkundeak eta egun duen prestigioa harreman zuzenean daude demokraziaren garapenarekin. Herrialde garatuak historia modernoak herritartasunaren bilakaeraren historia da, eta haren muinean gizakiaren askatasuna eta duintasuna daude. Baina horiek guztiak, baita demokrazia bera ere, ulertzeko ez da egon —eta ez dago— modu bakar bat. Demokraziaren kontzeptu modernoak aldi desberdinak ezagutu ditu eta horietan eztabaidatu egin da nolakoak izan beharko lukeen *herriaren gobernuak*.

Azken hamarkadetan, mugimendu indartsu bat egon da gizarte aurreratuak herritartasunarekin batera datorren eskubide multzoa zabaltzeko eta indartzeko; hau da, herritartasunak duen dimentsio formal eta juridikotik harago joateko. Ongizate-estatuaren krisiak, apatia politikoaren ondorioek eta elkartasuna exijitzen duten arazoak ugaltzeak, besteak beste, erakutsi dute gizarte demokratikoen oinarri bakarra ezin daitezkeela izan eskubideak eta instituzioak. Aitzitik, gizarteko kideen jarrerak eta ezaugarriak berebizikoak dira baldin eta antolaketa demokratikoki eutsi gura bazaio. Beharrezkoak dira, hortaz, herritarren tolerantzia, partaidetza, erantzukizuna, komunitate-sentimendua eta, oro har, sistema politikoarekiko atxikimendua. Eskubideez gain, justizia, identitatea eta parte-hartze politikoa bihurtzen dira eztabaidagai espektratu politiko eta ideologiko zabal baten ikuspegiak (ik. Peña, 2003; Sudupe, 1998).

Beste era batera esanda, herritartasunaren inguruko eztabaidak azalera ateratzen du arazo normatibo bat: zer da *herritar ona* izatea? Eta, nahiz eta sarritan ez den oso komenigarria horrelako sailkapenik egitea, esan daiteke hiru herritartasun-eredu nagusiak direla gogoeta horietan: *liberala*, *komunitatezalea* eta *errepublikanoa*. Hurrenez hurren ikusiko ditugu ereduok, labur bada ere.

Gizakiaren eskubideak eta elkarbizitza soziala bateragarri egiten saiatzen da liberalismoa. Norbanakoari ematen dio komunitatera begira kritikotik izateko ahalmena eta, zentzu horretan, tolerantzia da gorenaren diren balioetako bat. Esan gabe da oso zail gertatzen dela konpromiso zibikoa bultzatzea norbanakoa gailentzen den neurrian. Izan ere, norbanako liberala *gizaki* da *herritar* baino lehenago. Eta herritarra den neurrian, eskubide multzo baten jabe gisa irudikatzen da. Estatuaren zeregina arlo publikoan gutxieneko printzipio batzuk adostea da, hala nola justizia eta berdintasuna. Hortik aurrera, baina, eskubideen errespetua eta elkarbizitza bermatzeko dago eta, beraz, bizitza-estiloen artean edota balio moralen aurrean neutral joko dezala eskatzen zaio, gizartearen oinarriko ezaugarria *aniztasuna* baita.

Komunitatezaleak ez datoz bat herritar eredu liberalarekin. Aitzitik, aldarrikatzen dute politika —eta herritartasuna, beraz— *balio partekatuen markoan* bakarrik dela ulergarri, zeren gizakiok kide gareneko komunitatearen kultura eta tradizioen emaitza baikara. Herritarra, beraz, eskubide multzo baten jabe ez ezik, oroimenak, identitatea eta balioak partekatzen dituen komunitate bateko kide ere da eta hutsala da, hortaz, estatuaren neutraltasuna aldarrikatzea. Are gehiago, komunitate politikoek estatus moralak dute. Familiaren, hiriaren edo nazioaren iraganetik heredatzen du gizakiak betebeharrak eta espektatiba zuzenen sorta bat, eta horiek dira bizitza moralaren abiapuntua (MacIntyre, 1993). Gaur egungo gizarte modernoek nolabai-

teko sakrifizioak exijitzen dizkiote herritarrari, eta horiek bakarrik justifikatu daitezke herritarra bere komunitatearekin identifikatuta sentituz gero¹.

Errepublikanismoaren ardatza herritarra da, hain zuzen ere. Komunitatezaleekin bat egiten du komuntasanaren garrantzian, baina gizartearen homogeneousotasunaren beharretik aldenduz. Errepublikanoek garrantzi handia ematen diote herritarren arteko eztabaida arrazoituari eta ez tradizioari. Eta, eztabaidarekin batera, funtsezko balioa da herritarrek boterea kontrolatu ahal izatea tresna eraginkorren bidez (zozketak, kuotak, kargu-errotazioa...); boterea, betiere, gutxi batzuen esku gera ez dadin helburu hartuta. *Demokrazia deliberatiboa* eta *demokrazia parte-hartzailea* kontzeptuak ezaugarri bi horietatik eratortzen dira eta asmo argia dute: demokrazia indartzea (ik. Barber, 2004). Azken batez, errepublikanismoaren helburua izango da arlo publikora bertute *zibikoa* eramatea, eta bertute hori bizitza publikoan parte hartuz baino ez da gauzatzen. Abertzaletasunak batzen ditu errepublikanoak eta komunitatezaleak, baina gaur egungo errepublikanoak nazionalismotik bereizi nahi du bere burua: leialtasuna errepublikari zor zaio eta ez ezaugarri kulturalen multzo baten jabe den herriari. Ikuspuntu horretatik, nazioa herritarrek osatzen dute, Frantziako Iraultzan bezala, eta oso modu objektiboan neurtzen da, administratiboki herritar izateko eskubidea dutenek bakarrik osatuko baitute (ik. Schnnaper, 2001).

Horiek denak *herritartasuna* ulertzeko moduak izan dira. Ez dugu aipatu hain erabilia izaten den beste kontzeptu garrantzitsu bat, naziotasuna. Estatu modernoetan *herritartasuna* eta *naziotasuna* pareko bihurtzen dira. Batzuetan, guztiz pareko izaten dira, eta hortik hainbat kexa eratorri da kontzeptu biak bereizi nahi dituztenen artean (Connor, 1978). Beste zenbaitetan, ordea, kategoria desberdinak dira naziotasuna eta herritartasuna, eta bereizketa oso egokia zaie estaturik gabeko nazionalismoei. Izan ere, kasu horietan ez dago estaturik administrazio-eskubideak azaltzeko eta bermatzeko, eta irizpide objektibo horren faltan, ondo dator subjektibo bat gaineratzea. Beraz, bigarren ikuskera honetan, nazionalismoak, eta ez estatuak, markatzen du naziotasuna nori dagokion. Nazionalismo horren indarrak erabakiko du naziotasunaren geroa.

Hortaz, eta laburbildurik, liberalek *eskubideaz* hitz egiten dute, komunitatezaleek *identitateaz* eta errepublikanoek *parte-hartzeaz*... nazio-estatuaren markoan betiere. Baina nolako herritartasuna irudikatu behar dugu momentuz estaturik osatzen ez duen Euskal Herrian? Edo, bestela esanda, nolako lotura izango luke herritarrak administrazio politikoarekin eta herritarrek euren artean balizko Euskal Estatu batean?

2. EUSKAL HERRITARTASUNA

Euskal herritartasunaz² hitz egitea fikzio mailan aritzea izan daiteke, ariketa teoriko hutsa, edo ukaezina den errealitatea agertzea. Euskal Herriak estaturik ez osatzeak

1. Izan ere, herritartasunari buruzko eztabaida modan dago *identifikazio-defizita* dagoelako: gizakiok ez omen dugu geure komunitatearenganako inolako estimurik (Cortina, 1997).

2. Euskal Estatuaz ari garelarik, kontu berezia ipini nahi dugu egunerokotasunean askotan berdintzat jotzen den *euskaldun* = *euskal herritar* ekuazioan. Lan honetarako, *euskaldun* kontzeptua hizkuntzari lotuko diogu: euskaldunak euskaraz egiten dutenak dira. Baina *euskal herritarrek* euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez egiten dute. Gure aztergaia hemen euskal herritarrak dira.

bi jarrera horiei eusteko aukera ematen du, eta ahalbidetzen du ikuspuntu objektiboak eta subjektiboak etengabe gurutzatzea, eta gaia korapilatzea. Gurutzatze horretan *herritartasun* eta *nazio* kontzeptuak agertzen zaizkigu, biak oso loturik, baina desberdinak. Batzuen ustez ez dago euskal naziorik, nazioa estatuari loturik ulertzen dutelako, eta besteen ustez, ukaezina da euskal nazioa badela, arrazoi asko (historia, hizkuntza, borondatea) tarteko. Diogunez, ikuspuntu subjektiboek eta objektiboek denetarako ematen dute.

Nazioari dagokionez, ikuspuntu subjektibo huts batetik, besterik gabe, milaka dira euskal nazioa badela pentsatzen dutenak, eta horretan sinesten dutenak, eta hori nahikoa arrazoi litzateke, gure ustez, euskal nazioaren existentzia ondorioztatzeko. Era berean, espainiar edo frantziar nazioan sinesten duen Euskal Herriko biztanle askok uste du euskal naziorik ez dela. Ikuspuntu objektibo batetik, bestalde, nazioaren existentzia aurretik ezarritako baldintza batzuen arabera erabakitzea adostu bada, posible litzateke euskal nazioa eta naziokidetasuna ezartzea (historia komun bat partekatzen delako, edo euskara partekatzen delako, adibidez) edo ez (baldintza estatu bat osatzea delako, adibidez).

Herritartasuna, ordea, eta hasiera batez, oso kontzeptu objektiboa da, administrazio-mailari dagokiona. Gutxiago hitz egiten da horretaz, gehienbat Euskal Estaturik ez egoteak ezina egiten baitu inor Euskal Herriko herritartatza izatea, Euskal Herrian bizi arren. Pertsona horiek, orduan, Espainiako, Frantziako edo beste estatu bateko herritarrak dira, baina ez Euskal Herrikoak. Argudio objektibo eta ukaezin horri eutsirik, askok euskal herritartasuna, eta baita nazioa ere, ukatzen dute. Are gehiago, Euskal Herritartatza hartzen diren zazpi herrialdeak egitura administratibo batean baturik ez egoteak zaildu egiten du euskal herritarra nor izan daitekeen zehaztea bera. Hala ere, euskal nazionalismo indartsua egoteak ekarri du euskal nazio-sentimendu indartsua ere agertzea, eta ondorioz, Espainiako edo Frantziako herritartasuna ukatu nahi izatea, modu subjektiboan, noski. Era horretara, estatu batek egingo ez lukeena egiten du euskal nazioan sinesten duenak, autoidentifikaziora jo: *ni euskal herritarra naiz, halaxe nahi dudalako*. Subjektiboki ezartzen da euskal herritartasuna, nahiz eta modu objektiboan ezin egin. Ez du, beraz, ondorio administratiborik sortzen, baina bai politikorik, pertsona hauek uste baitute euskal nazioa izateak estatua eraikitzeko eskubidea ematen duela.

Ikuspuntu objektiboak eta subjektiboak nahasten dira, beraz, eta iritzi eta ondorio kontrajarriak sortzen dituzte. Baina, oro har, naziotasuna errazago azal daiteke ikuspuntu subjektibotik, eta herritartasuna, objektibotik. Esan nahi du horrek, hortaz, alferrikakoa dela naziotasunaz aritzea, eta benetan balioa duena herritartasuna dela? Ezin da halakorik esan, ez estatuetan ezta, gutxiago ere, estaturik gabeko nazioetan.

NAZIOTASUNA	HERRITARTASUNA
Subjektibotasunari dagokio	Objektibotasunari dagokio

Estatuetan naziotasuna oso lotuta doa herritartasunarekin, baina lehenengoa bigarrenaren osagarri da: herritartasuna —objektiboa— aurretik ematen da, eta

naziotasuna —subjektiboa— barne-kohesioa bilatzeko, estatuari *bizitasuna* emateko erabiltzen da. Oso besterik gertatzen da, ordea, estaturik gabeko nazioetan. Kasu horretan, naziotasuna motorra da herritartasuna lortzeko. Erran nahi baita, Euskal Estatuaz hitz egin ahal bada, hori izango da pertsona multzo esanguratsu batek, euskal herritar sentiturik, helburu hori aldarrikatzen duelako. Euskal herritar, eta soilik euskal herritar, nor sentitzen den, euskal nazioiko kide nor den jakitea funtsezko bihurtzen da, horrek indarra emango baitu estatua aldarrikatzeko, eta inoiz autodeterminazio-erreferenduma ere bultzatzeko.

EGOERA	KIDETASUNAREN OINARRIA
ESTATURIK GABEKO NAZIOA ↓	← NAZIOTASUNA
Helburua: estatua eraikitzea ↓	← NAZIOTASUNA
ESTATUA ↓	← HERRITARTASUNA
Helburua: estatua sendotzea	← HERRITARTASUNA + NAZIOTASUNA

Ondorengo puntuotan, naziotasun eta herritartasun gaiak aztertu nahi ditugu, baina estaturik ez duen herrialde bati, Euskal Herriari, aplikaturik. Estatu baten bila aritzeak, eta agian lortzeak, aldaketak ekar litzake bi gaiok ulertzeko moduan. Lehenengo eta behin, eta esan dugunez, subjektibotasuna landuko litzateke: Euskal Estatu bat aldarrikatzeko, hori nahi duen pertsona multzo esanguratsua behar da, euskal nazioan sinesten duena. Bigarren, Euskal Estatu osaturik, objektibotasuna nagusituko litzateke, herritar izateko eskubidea nork izango lukeen ezartzeko. Hirugarren, herritartasun horrekin bat egiteko, naziotasuna landuko litzateke berriro, herritarrak naziokide ere senti daitezzen (beti estatu horretatik haragoko nazio-sentimenduak izateko eskubidea errespetatuz).

2.1. Nor da euskal herritar? Estatuaren bila. Naziotasuna

Arraro samarra da, egoera normaldu batean, herri bateko biztanleen nazio-sentimenduaz galdetzea, ohituta baikaude gai hau modu objektibo, simple eta kategorikoan ulertzerantz: pertsona baten naziotasuna bizi den estatuarena da, eta sentimentalki horri lotzen zaio. Estatuak baditu bideak naziotasuna lantzeko, indartzeko eta adierazteko, eta naziokideak leialtasuna, bai eta harrotasuna ere, gordetzen dio naziotasun horri. Era horretara, Portugaleko biztanleak, adibidez, ez du portugaldarra den edo ez pentsatu behar. Portugaldarra da, alde batetik, portugaldar izateko baldintza administratiboak betetzen dituelako; eta bestetik, behin

eta berriro hainbat bidetatik adierazi eta gogoratu diotelako (komunikabideetan, sinboloetan, konstituzioan eta legerian...). Nazio-sentimendu hori bidera dadin, eta naziokideak bere nazioarekin eta bere estatuarekin bat egin dezan, badira hainbat aukera bizitzaren momentu askotan, eguneroko bizitzan modu oharkabean txertatuak (erabilitako hitzak, sinboloak, kirola...) Billig-ek erakutsi zuen bezala (1995). Nazio-estatuan, hortaz, herritarrak ez du nongo herritar den galdetzen, hori aurretik erantzunda baitago.

Herritar batek bere naziotasunari buruzko galdera egin dezan, nazio-estatuaren logika normaldu horretatik at egon behar du. Hori gertatzen da, adibidez, etorkin gisa beste estatu batera joan denean, eta herri berrian urte luzez egoteak naziotasunari buruzko zalantza sortzen dionean. Eta hori gertatzen da, bestalde, estatuaren logika apurtu nahi duen nazionalismo bat sortzen denean.

Izan ere, nazionalismoak nazio-estatuaren interesak zaintzeko balio dezake, baina baita haren kontra joateko ere. Nazio-estatuak homogeneousotasuna bilatzen dute beren lurraldean, biztanle guztiak naziokide sentitzea, baina hori ez dute beti lortzen. Askotan, arrazoi bat baino gehiago direla medio, eskualde batean nazio-estatutik banatzeko ideia sortzen da. Ez du ibilbide errazik, nazio-estatuaren indarrari aurre egin behar dio-eta, baina zenbaitetan, mugimendu berriak indar maila nahikoa lortzen du, eta horrek zalantza sortzen dio eskualde horretako biztanleari. Momentu horretatik aurrera, hain erantzun erraza zuen galderak arazoak sortzen ditu, nazionalismo berriak herrikidearen sentimendua erakarri nahi baitu.

Hori da, azken batean, Euskal Herrian gertatu dena. Batez ere XVIII. eta XIX. mendeetako gertakariak ezinezona eragin zuten Euskal Herrian, eta XX. mendetik aurrera, biztanle batzuek herritartasunaren definizio berriarekin erantzun zuten: herritartasuna ez zen, harrezkero, Espainiari edo Frantziari loturik ikusiko, eta bai, aldiz, munduko estatuen arteko kide berri gisa. Definizio berri harekin, noski, ezinbestekoa zen bi estatuetako eta Euskal Herriko nazionalismoen arteko talka, eta urtetan iraun duen gatazka horretan, jendeak aukera bat landu behar izan du naziotasunari begira. Ez zen nahikoa nazio-estatuaren naziokidetasuna onartzea, zeren kontra ari zen euskal nazionalismoak, indar handia lortuta, beste naziokidetasunaren alde jokatzeko baitzuen. Hortik etorri da, hortaz, beste estatu batzuetan arraro samar geratzen den galderak (*zer sentitzen zara, euskal herritar, espainiar ala frantziar?* eta halakoak) Euskal Herrian gaurkotasan osoa izatea, eta jendea kontziente izatea galderaren norabideaz eta garrantziaz. Zer diote datu horiek?

Hiru nazio-sentimendu nagusi batzen dira Euskal Herrian, baina bakoitzaren indarra neurtzea zaila da, arrazoi asko direla-eta. Frantzia eta Espainiaren aldetik, ez dago gogo berezirik galdera egiteko, galdera ez egiteak frantziartasunean edo espainiartasunean uzten baitu herrikidea, *de facto*. Euskal nazionalismoa interesatuago dago, ostera, baina hori ezin zaio modu sistematikoan egin populazio guztiari. Inkestak eta ikerketak erabiltzen dira herrikideen ustea jasotzeko, baina galdera egitea ez da erraza, eta inkestatuari ondo hausnartuta ez duen gaiaz aritzea eskatzen zaio askotan.

Hala ere, datuak hor daude, eta noizean behin haizatu egiten dira. Klasikoak dira, adibidez, 1970eko hamarkadaren amaieran eginiko ikerketa batetik Linz-ek eskaintzen dituen datuak. Horien arabera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiari dagokienez, jende gehiena (% 39,7) *soilik euskal herritar* sentitzen zen, eta *euskal herritarrago espainiarra baino* baturik, % 52,3ra iristen zen. Ikerketak bereizi egiten zituen Hego Euskal Herrian jaiotakoen eta hortik kanpo jaiotakoen artean. Horri erreparatuta, Hego Euskal Herrian jaiotakoen % 56,2 *soilik euskal herritar* sentitzen zen, eta hemendik kanpo jaiotakoen artean % 9,3 bakarrik sentitzen zen *soilik euskal herritar*. Azken horien artean, lehenengo aukera *espainiar bezain euskal herritar* zen (% 35,3), eta ondoren *soilik espainiar* (% 34,7) (Linz, 1986: 40).

Aldiz, Ipar Euskal Herriari dagokionez, *soilik frantziar* hobesten da (% 37), eta *frantziarrago euskal herritarra baino* batuz gero, erdia baino gehiago osatzen dute (% 55) (*ibidem*: 375). Azkenik, Nafarroan berezitasun argia dago, hobesten den aukera *nafar* sentitzea baita (% 51). Horri *nafar bezain euskal herritar* gehituz gero, % 82ra heltzen da (*ibidem*: 413).

Datu berriagoak eta osoagoak bilatzeko, eta nolabaiteko alderaketa egiteko, 2006ra joango gara. Euskal identitateaz eta kulturaz Eusko Ikaskuntzak eginiko ikerketa zabal batean (Baxok *et al.*, 2006), datuek antzekoak izaten jarraitzen dutela ikusiko dugu. Horrela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokienez, jende gehiena (% 40) *soilik euskal herritar* sentitzen da, eta *euskal herritarrago espainiarra baino* baturik, % 55era heltzen da³. Ipar Euskal Herriari dagokionez, *soilik frantziar* aukera da nagusia (% 36), eta *frantziarrago euskal herritarra baino* batuz gero, erdia baino gehiagora heltzen da (% 52). Hala ere, *soilik euskal herritar* sentitzen direnen kopurua hazi egin da (% 11) (datu guztiak in Baxok *et al.*, 2006: 48).

Nafarroari dagokionez, datuak konplikatu egiten dira orain ere, eta ez dira guztiz alderagarri Linz-ek dakartzanekin. *Gehienbat nafar* sentitzen da kopururik handiena (% 38); baina ondoren, % 25 *gehienbat euskal herritar* (% 10) edo *nafar bezain euskal herritar* (% 15) sentitzen da; eta azkenik, % 24 *gehienbat espainiar* (% 5) edo *nafar bezain espainiar* (% 19) sentitzen da (*ibidem*: 49). *Gehienbat nafar* zer den azaltzea zaila bada ere, hiru heren egin daitezke datu hauekin: nafar, nafar-euskal herritar eta nafar-espainiar sentitzen direnak⁴.

Ikusten dugunez, naziotasuna modu subjektiboan lantzen dute estaturik osatzen ez duten nazionalismoek; eta modu objektiboan, eskubide administratibo batzuei lotua, nazio-estatuak. Lehenek ere bazuten modu objektiboan lantzea, ez Administrazioari lotuta (ez baitira nazio-estatu), baina bai ezaugarri objektiboren

3. Hiru herrialde hauetarako 2006-2007ko datuak ere aldera ditzakegu, Euskobarometroaren eskutik. Horien arabera, *soilik euskal herritar* (% 24) eta *euskal herritarrago espainiarra baino* (% 22) baturik apur bat gutxiago zen Baxoken ikerketan baino: % 46. Hobetsitako aukera, bestalde, *espainiar bezain euskal herritar* zen: % 33 (datuok in Llera, 2009: 6-7).

4. Egin ditugun bi ikerketen alderaketa nahiko zuzena izan daitekeela frogatzeko, hona beste datu interesgarri bat: hamar urte lehenagoko euren nazio-sentimenduan aldaketarik egon den galdetzean, oro har, lautik hiruk berdin sentitzen direla diote: % 79 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; % 76, Ipar Euskal Herrian; eta % 70 Nafarroa Garaian. Esanguratsua da, bestalde, aldatzekotan, gehiago direla *orain euskal herritarrago* sentitzen direnak (% 12 inguru), *orain espainiarrago* edo *frantziarrago* sentitzen direnak baino (% 3). Are esanguratsuagoak dira Nafarroako datuak, han % 18 *euskal herritarrago* sentitzen baita; eta % 1 bakarrik *espainiarrago* (Baxok *et al.*, 2006: 50).

batean erreparatuta, arrazan edo hizkuntzan, adibidez. Hala ere, euskal nazionalismoak nahiago izan du subjektibotasuna landu, eta naziokide bakoitza euskal nazioaren aldeko militante bihurtzea.

Izan ere, jendearen sentimenduak erabakitzen du norberaren naziotasuna, eta horrek ahalmen mobilizatzaile eta eraldatzailea ematen dio nazionalismoari. Ahalbidetu egiten du, gainera, Euskal Herritik at egon daitekeen euskal sentimendua biltzea, diasporarekin gertatzen den bezala.

Horrekin guztiarekin, euskal nazionalismoa bere bidea egiten ari da. Nazio-sentimenduak jendeak zer pentsatzen duen islatzen du, eta ikusitako datuek askoren aldetik frantziartasuna eta espainiartasuna gainditzeko gogoia badagoela erakusten dute. Ez dute Euskal Herriko biztanle guztiek berdin pentsatzen, eta batzuek garrantzi handiagoa ematen diote nortasunaren gaiari besteek baino. Ondorioz, naziokidetasun desberdineko multzo esanguratsuak osatu dira, eta horrek nazio-gatazka ekarri du, zeren naziotasun subjektiboari (*euskal herritarra sentitzen naiz*) nazio-estatuak erabili ohi duten herritartasun objektiboak gaineratu nahi baitiote euskal nazionalismoaren jarraitzaileek (*euskal herritarra naiz*).

Multzo garrantzitsuak daude frantziartasunean, espainiartasunean eta euskal herritartasunean, eta ez dirudi denak poztuko dituen proposamenik sortuko denik. Jendearen identitateari dagokion arazo batek konponbide berezia beharko luke, eta konponbide demokratikoa jendearen iritzari bide emanda, eta gehiengoak erabakitzen duenari kasu eginda bakarrik gerta liteke, gure ustez. Autodeterminazio-eskubidean oinarrituta, erreferendumak erabakiko luke Espainia eta Frantziak gain, ea estatu berria osatuko litzatekeen Euskal Herrian.

Autodeterminazio-eskubidez Euskal Herrian hitz egitea ez da gai ezezaguna. Datuetara berriro joanda, 1993rako, Hego Euskal Herriko biztanle gehienek gai garrantzitsu edo oso garrantzitsutzat jotzen zuten autodeterminazioa (% 54 EAEn eta % 52,4 Nafarroa Garaian), Lopez-Aranguren arabera (1993: 253)⁵. Datu berriagoek iritzi berberari eusten diote, indar handiagoz, kasu honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari bakarrik badagozkie ere. UPV/EHUren Euskobarometro ikerketataldeak 2006rako (geroago ez dute autodeterminazioaren gaia landu) eman zituen datuen arabera, % 71k usten zuen politikariek adostu beharko luketela eskubide hori (Euskobarometro, 2006).

Erreferendum horretan, jendearen nazio-sentimenduei, edo bestelako interesei, bide emango litzaienke, eta administratiboki zer aukera hobesten duten erabakiko litzateke, baina paradoxa bada ere, erreferendum horretan ezin izango lukete parte hartu sentimenduz euskal herritar sentitzen diren guztiek, eta estatua gauzatuta ere, ikusteko dago naziokide sentitzen diren guztiek aukera edukiko luketen Euskal Herriko *herritar* bihurtzeko, herritartasuna, berriro ere esango dugunez, ez baita kontzeptu subjektiboa, eta bai, aldiz, guztiz objektiboa.

5. Eskubidetik harago, autodeterminazio erreferenduma egiteko aukera ontzat ematen zuen % 48,3k EAEn eta % 42,6k Nafarroa Garaian. Hala ere, tarteko beste aukeraren bat kontrajartzen zaionean (estatu federala, autonomikoa...), autodeterminazio-eskubidea, estatua osatzeko aukera modura, jaitzi egiten da % 20ra Hego Euskal Herrian (datu guztiak in Lopez-Aranguren, 1993: 253-256).

2.2. Nor da euskal herritar? Euskal Estatua osaturik. Herritartasuna

Aurreko ataleko datuetan Euskal Herriko biztanleak subjektiboki zer sentitzen diren ikusi dugu. Hala ere, administrazio batek ezin du biztanleen iritzi subjektiboaren arabera jokatu: ezin du pertsona bat administrazio horretako kideztat jo pertsona horrek hala nahi duelako bakarrik. Kasu horretan egongo lirateke etorkinak, noski, euren interes materialaren bila; baina baita diasporako hainbat kide, nazio-sentimenduan bertakoak bezain naziokide izan litezkeen arren. Herritartasun unibertsalik ez dagoen modu berean, ez dago nahierara eginikorik. Mundua estatutan banatzen da, eta estatu bakoitzak bere herritarrak nortzuk diren zehaztu eta arautu egiten du, eta ondoren araututakoari jarraitu. Herritar izateak baditu eskubideak eta betebeharrak, eta gehiago dira atzeritarrei onartzen zaizkienak baino. Estatu bateko herritar izateak (eta ez beste batekoak), beraz, garrantzi handia du⁶.

Administrazioa kudeatzen duen nazio-estatuan objektibotasuna bilatu behar da, subjektibotasunaren kaltean. Estatua autodeterminazio-erreferendum batean sortu da, agian, eta hor garrantzi handia izan du herritarren nazio-sentimenduak, jendeak horren arabera erabaki baitu bere bozaren zentzua. Hala ere, eta horra gaiaren konplexutasuna, erreferendumean boza nazio-sentimenduaren arabera emateak ez luke inolako eraginik izan beharko herritartasuna erabakitzean, ez onartzeko ez ukatzeko, berau irizpide objektiboetan oinarritu beharko litzateke eta: euskal herritar sentitzeak ez lioke pertsona horri herritartasunik bermatuko; eta euskal herritar ez sentitzeak ez lioke euskal herritartasuna kenduko, horretarako eskubidea izanez gero.

Baina sentimendua ez bada, zeren arabera erabaki daiteke Euskal Estatu baten herritartasuna nori dagokion? Zerk emango luke euskal herritartasuna izateko eskubidea? Nazio-estatuak baldintza argiak ipintzen dituzte horretarako, oro har, estatuaren lurraldean jaioa izateak edo/eta gurasoen herritartasunak markatuak⁷. Euskal Estatu batek zelako baldintzak ipiniko lituzke? Ez dago horretaz daturik, noski, inkestetan ez baita halako galderarik egiten. Hala ere, zeharka bada ere, nolabaiteko hurbilpena egin liteke beste datu batzuk erabilita.

Linen datuetara itzulita, atal batean, euskal nazio-nortasuna non finkatzen den aztertzen da. Hau da, inkestak euskal herritartzat nor jotzen duten adierazten dute (eta ondorioz, euskal herritartasunerako eskubidea edukiko luketela pentsa genezake). Datuok argiak eta esanguratsuak dira. Hau adibidez: *soilik euskal herritar* sentitzen direnentzat, *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* da baldintza nagusia (% 79,8) nazio-nortasuna adierazteko, *euskaraz hitz egitea* (% 28,3) eta *familia bertakoa izatearen* gaitetik (% 41,2). Oro har, biztanle guztiak hartuta, gehienek, % 69,2k, uste dute Euskal Herrian bizi eta lan egitea baldintza nahikoa dela euskal herritartasuna erabakitzeke (Linz, 1986: 32). Datu hauek ere erabilita, Llera-k gaiaren jarraipena egiten du, 2005era heldu arte. Joera horiek areagotu egiten dira.

6. Berez, Nazio Batuek debekatu egiten dute estatu-gabetasuna. Pertsona guztiak izan behar dute herritartasuna, eta hala ere, 2009an 12 milioi estatugabe zegoen munduan, arrazoi asko direla medio. Estatugabea izateak pertsona guztiei aitortu behar zaizkien oinarritzko eskubideak galtzea dakar (datuetarako, eta gaiari sakontzeko, ik. Blitz / Lynch, 2011).

7. *Iure sanguinis* eta *iure soli* irizpideak, hain zuzen ere. Honetaz, eta halako gai eta arazo legalez, oso interesgarria da ikustea Lasagabaster / Lazcano, 1999.

2005ean, adibidez, *Euskal herritar izateko baldintzez* galdetzen denean, % 85ek uste du *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* derrigorrezko baldintza dela; % 73k *Euskal herritar izateko nahia* jartzen du baldintzat; eta ondoren, *Euskal Herrian jaioa* izatea, % 57k ipintzen du baldintza gisa⁸. Euren burua *subjektiboki* euskal herritartzat dutenek, beraz, uste dute *objektiboki* herritartasuna bertan bizi eta lan egiten dutenei onartu beharko litzaiekeela (legelariak erabakiko dute zenbat urte bizitzen edo lan egiten). Ematen du, hortaz, Euskal Estatu batean, herritartasuna zehaztea ez litzatekeela gatazka-iturri handia izango.

Eusko Ikaskuntzako taldeak ere ematen dizkigu (Baxok *et al.*, 2006) datu interesgarriak. Izan ere, hamar urte barru zer sentituko den galdetzean, oso jende gutxi erantzuten du *orain baino frantsesago edo espainiarrago*: % 1 (% 3 Ipar Euskal Herrian). Gehienek *berdin* sentituko direla diote (% 78), baina bada datu esanguratsua: % 8k uste du *euskal herritarragoa* sentituko dela orain baino (% 11 Nafarroan). Are gehiago, etorkin-jatorria dutenek ere halako datuak eskaintzen dituzte: % 2k uste du *espainiarrago edo frantziarragoa* sentituko dela, eta % 6k, aldiz, *euskal herritarragoa* (*ibidem*: 51). Joera bat zehaztu daiteke, beraz, euskal herritartasunerantz.

2.3. Nor da euskal herritar? Komunitate-sentimenduaren bila. Naziotasuna eta herritartasuna baturik

Herritartasuna nori dagokion modu sistematikoan erabakirik, Euskal Estatu batek bere bidea egin lezake munduko beste estatuen artean. Baina munduko beste nazio-estatuak ez dute nahikorik biztanleriaren sistematizazio horrekin. Bizitasuna behar dute; herritarrek proiektu komuna partekatzen dutela sinetsi behar dute, horrela ez bada, indar-sakabanaketa gerta liteke eta. Zer aukera dago, ordea, halako sentimendurik sortzeko?

Estatu berria modu demokratiko batean sortu bada, litekeena da gizartea bi multzotan banatuta egotea hasiera horretan. Kasurik hoberenean, denek onartu dute erreferendumaren emaitza, baina horrek ez du bermatzen denek helburu kolektibo bera partekatzea. Jakin behar da erreferenduma galdu dutenek zelako gogoz helduko dioten egoera berriari, baina baita ea irabazi dutenek beste taldea onartzen duten ere. Halako mesfidantzak gertatu dira Euskal Herrian, eta datu zehatzik ez badugu ere, hurbilpen bat egin genezake.

Lehenengo datua erreferendumaren momentuari dagokio. 2006an, Euskobarometroko emandako informazioaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kontsultatutako % 64k uste zuen autodeterminazio-erreferendum batek ez lukeela zatiketarik ekarriko gizartera (Euskobarometro, 2006). Haratago joanda, gai gatazkatsua izan da Euskal Herrian Euskal Estatu posible batek nolako eragina izango lukeen estatu horretan sinesten ez dutenengan, eta zehatzago, bada iritzi bat, noizbait haizatzen dena, esaten duena Euskal Estatu batek kanporatu

8. 1979, 1989, 1996, 2002 eta 2005eko datuak erabiltzen ditu (Linz 1986) CIS eta Euskobarometro-tik hartuta. Beste hiru baldintzez ere galdetzen da: *Euskaraz hitz egitea* baldintzat hartzen du % 20k 2005ean; *Euskal jatorrikoa* izatea % 28k onartzen du; eta *nazionalista* [euskal nazionalista, dirudienez] sentitzea % 23k onartzen du baldintza gisa (Llera, 2009: 9).

egingo lituzkeela etorkinak eta espainiar sentitzen direnak⁹. Horretaz guztiaz datu kuantitatiborik ez dugu, baina aukera dugu datu kualitatibo batzuk erabiltzeko, 50-80ko hamarkaden artean etorritako hainbat immigranterekin eginiko elkarrizketetatik (ik. Zabalo / Basterra / Iraola / Mateos, 2010). Bertan, jarrera abertzalea ez duten etorkinak oinarri harturik, argi ageri da hauek ez dutela ezelako beldurrik edo mesfidantzarik halako zerbait gerta dadin. Are gehiago, barrez erantzuten dute, burutik pasatu ere egiten ez zaielako aukera hori (*ibidem*: 103). Ondo ezagutzen dituzte abertzaleen eskaerak, eta ez diete batere beldurrik horiei ere (*ibidem*: 109). Haien eskaeren kontra egon daitezke, baina ez dute ezelako asmorik alde egiteko, eta bai, aldiz, elkarlanean jarraitzeko (*ibidem*: 104).

Euskal Estatu batek ez omen luke sortuko, hortaz, Espainiatik edo Frantziatik iragartzen zaion beste arazo edo gatazka. Euskal Herriko biztanleek ba omen dute bizikidetzarako gogoia, eta badakite denon konpromisoa eskatzen duela horrek. Hori argi utzita ere, erronkak eta arriskuak asko dira, eta horiekin bizi beharko da, hasiera batean behintzat. Baina, bestalde, onurak ere etor litezke, zer esanik ez, txosten honetako beste lan batzuetan azaldu den bezala.

Herritartasunari dagokionez, gai asko geratzen dira ebazteke, hala nola euskal herritar izateko baldintzak, europar herritartasunaz, multikulturalitateaz, herritarren eskubideez eta betebeharez... (ik. Lasagabaster / Lazcano, 1999), baina goizegi litzateke hori ebazteko, eta ez dirudi txosten honen zeregina denik. Gai horien artean, herritartasun bikoitzarena behin baino sarriago aipatu da. Nahasmen nahikoa egoten da haren inguruan, batzuetan ez baita argi geratzen herritartasun administratiboaz edo naziotasunaz ari den. Guk defendatu dugun ikuspuntutik, naziotasuna sentimenduaren arlo subjektiboan kokatzeak lagundu egingo luke arazoa leuntzen, zeren herritarrak (administrazio-mailako herritarrak) eskubidea edukiko bailuke naziotasuna aukeratzeko, baita naziotasun bikoitza lantzeko ere. Oraingo nazio-estatuak, kontzeptu biek bat egitean, eragotzi egiten du estatuari atxikiturik doan naziotasuna ez onartzea, eta are gutxiago, beste bat aldarrikatzea. Euskal Estatua, herritartasuna eta naziotasuna batera joatearen onurak jakinik, horretan ere ahaleginduko litzateke, baina naziotasunaren ikuskera zabalagoa eduki beharko luke, eta naziotasun bikoitza aukera onargarri eta interesgarritzat jo, Euskal Herrian hiru naziotasun mota nagusi daudela kontuan harturik.

Edonola ere, duen garrantzia onartu behar zaio Euskal Herriko biztanleek erakusten duten heldutasunari, izaera bateko edo besteko nazionalista izanik, denon arteko bizikidetzarako jarrera nagusitzen baita, eta prest agertzen baitira modu demokratikoan onartutakoa errespetatzeko. Esan liteke komunitate-sentimendurako ibilbidea hasita dagoela, eta bide luzea egin lezakeela.

9. Espainiar nazionalismoak landutako iritzia da, noski, baina oinarrian euskal nazionalismoaren iritzia-ildo bat ere islatzen du. Ildo hori hasierako arraza-nazionalismoari dagokio neurri handi batean, eta ez dauka inolako islarik gaur egungo alderdi abertzaleen diskurtsoetan.

BIBLIOGRAFIA

- Baxok, E. *et al.* (2006): *Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Barber, B. (2004): *Democracia fuerte*, Almuzara, Granada.
- Billig, M. (1995): *Banal nationalism*, Sage, Londres.
- Blitz, B. K. eta Lynch, M. (2011): *Statelessness and Citizenship*, Edward Elgar, Cheltenham.
- Connor, W. (1978): "A nation is a nation, is a state, is an ethnic group, is a...", *Ethnic and Racial Studies*, **1(4)**, 377-400.
- Cortina, A. (1997): *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*, Alianza, Madril.
- Euskobarometro (2006): "Estudio Periódico de la Opinión Pública Vasca", Mayo (UPV/EHU).
- Lasagabaster, I. eta Lazcano, I. (1999): "Derecho, política e historia en la autodeterminación de Euskal Herria", in M. Gomez Uranga; I. Lasagabaster; F. Letamendia eta R. Zallo (arg.), *Propuestas para un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo, 175-280.
- Linz, J. J. (beste batzuekin elkarkidetzan) (1986): *Conflicto en Euskadi*, Espasa-Calpe, Madril.
- Llera, F. J. (2009): "Spain: identity Boundaries and Political Reconstruction", *Nationalism and Ethnic Politics*, **15: 3&4**, 305-335.
- Lopez-Aranguren, E. (1993): "El problema del derecho de autodeterminación de los pueblos: la actitud de los españoles", *Derechos y Libertades*, **1(1)**, 251-260.
- MacIntyre, A. (1993): "¿Es el patriotismo una virtud?", *Bitarte*, **1**, 67-85.
- Peña, J. (2003): "Ciudadanía", in Arteta, Garcia Guitián eta Maíz (bil.), *Teoría política: poder, moral, democracia*, Alianza, Madril, 215-245.
- Schnnaper, D. (2001): *La comunidad de los ciudadanos. Acerca de la idea moderna de nación*, Alianza, Madril.
- Sdupe, J. (1998): *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak*, Euskaltzaindia/BBK, Bilbo.
- Zabalo, J.; Basterra, I.; Iraola, I. eta Mateos, Tx. (2010): *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*, GITE-IPES, Bilbo.

2. Herritartasuna, immigrazioa eta Euskal Estatua

Iker Iraola Arretxe, Soziologian doktoregaia, UPV/EHUko irakaslea

Immigrazioak herritartasunarekin, nazioarekin eta estatuarekin lotura zuzena du, eta agerian uzten du kategoria horien izaera eraikia. Hortik abiatuta, immigrazioak Euskal Herrian duen eragina aztertzen da. Lehenik, bertara iritsitako migrazio-prozesuak aipatzen dira, Euskal Herriko gizartearen egungo osaera immigrazioaren ondorio baita, hein handi batean. Ondoren, Euskal Herria estatu bilakatu nahi duen mugimenduak, abertzaletasunak, Euskal Herrira heldutako migrazio-fluxuen aurrean garatutako ildoak aztertzen da, jarrera horiek euskal herritartasunaren definizioaren bilakaeran funtsezkoak izan baitira. Amaitzeko, eta multikulturalismoaz ohar batzuk eman ostean, Euskal Estatua sortzeak auzi honetan izan ditzakeen ekarpenak eta ebatzi beharreko gaiak aipatzen dira.

Citizenship, immigration and the basque state

Immigration is directly related to citizenship, the nation and the state, revealing as it does the constructed nature of those categories. Here the impact of immigration on Euskal Herria is examined from this perspective, looking first at the processes of migration to it which have produced the make-up of present-day Basque society to a large extent. This is followed by a consideration of the way migratory movements have been viewed by the movement for the development of Euskal Herria into a state, the Basque nationalist movement, since these attitudes have played a fundamental role in defining Basque citizenship. After some observations about multiculturalism, the chapter concludes with a look at how the creation of a Basque state might contribute to this and the issues that will be raised.

SARRERA

Immigrazioa funtsezko azterketa-eremu bilakatu da azken hamarkadan Gizarte Zientzietan eta, bereziki, azterketa politikoetan. Hain gai zabala izaki, eremu ugari aztertu izan da migrazioei loturik, baina 1990eko hamarkadatik aurrera, kulturari lotutako gaiak garrantzi berezia eskuratu dute arlo horretan. Horrela, kultura-aniztasun edota multikulturalismoari buruzko azterketa, ikuspegi eta eztabaidak ugariak dira. Horri kritika ere egin zaio, hainbat aspektu dituen errealitate sozial bati erantzun kulturala soilik eman nahi izan zaion heinean, eta kultura-aniztasuna immigrazioarekin bakarrik lotzen delako.

Immigrazioa aztertzen dugunean, ikerketa-eremu horren hainbat mugaz kontziente izan behar dugu; esaterako, *immigrazioaren gaiztat* hartzen direnak, oro har, herritar guztiei dagozkie, eta ez etorkinei soilik. Dena dela, lan honetan immigrazioaren auzia estatua lortu nahi duen harrera-gizartearen ikuspegitik landuko dugu, immigrazioa harremanetan jarriz estatua, nazioa eta nazionalismoa bezalako gaiekin. Zentzu horretan, arreta nagusia ez da etorkinarengan ipiniko (estatu berri batek migratzailearen ikuspuntutik izan ditzakeen abantaila eta arazoak ere aztertu beharko lirateke), eta immigrantearen perspektiba aipatzen denean, goiko ikuspegiari lotuta egingo da.

Immigrazioa eta etorkina kategoria eztabaidatuak dira, ikusmolde askotatik aztertzen direnak. Horrela, badira *immigrante* etiketa, duen kutsu ezkorra dela-eta, alboratu behar dela uste dutenak. Ikuspegi horretatik, etorkin moduan iritsi berriak soilik definitu behar dira (ik. Bilbeny, 2009). Izan ere, *immigrante* kategoria, estigma bat finean, saihestu nahi izaten da, herritar oso eta *normala* izateko, nahiz eta horren ondorioa ez den jatorrizko identitate zein praktika kulturei muzin egiteko nahia (Zapata-Barrero, 2004). Edonola ere, lan honetan *immigrante* edo *etorkin* kategoria modu lausoan erabiliko dugu, Euskal Herritik at etorritako biztanle guztiez aritzeko, haien migrazio-prozesua orain dela hamarkada batzuk gertatu bazen ere.

Hortaz, lehenik eta behin, immigrazioak maila teorikoan estatuarekin eta nazioarekin duen harremanaz gako batzuk azpimarratuko ditugu, ondoren Euskal Herriko errealitatean murgiltzeko. Lehenik, Euskal Herrira iritsitako immigrazio-fluxuen ezaugarri nabarmenenak azpimarratuko dira; eta, ondoren, Euskal Herrian immigrazioak sortutako eztabaida esanguratsuen laburpena planteatuko da: immigrazioaren aurrean euskal nazionalismoak garatutako ildoak eta izandako bilakaera, hain zuzen. Horren ostean, gaur egungo immigrazioari buruzko eztabaidetan etengabe erabiltzen diren ideia batzuk aipatuko ditugu, hala nola *integrazioa* edota *multikulturalismoa*. Amaitzeko, aipatutako ideiak Euskal Herriko estatuaren beharrek lotzen saiatuko gara.

1. IMMIGRAZIOA, ESTATUA, NAZIOA

Migrazio-mugimenduek hainbat ondorio sortzen dituzte bai migratzaileen jatorrizko herrialdeetan bai eta helmugako herrialdeetan ere. Aspektu hauen guztien artean, immigrazioak nazioaren eta estatuaren kontzeptuekin duen harremana nabarmenduko dugu hemen.

Immigratzeak estatu berri batera sartzea dakar, eta eragina du hainbat gai *administratibori* dagokionez (adibidez, lurraldera sartzeko prozesua, lan egiteko baimenak, lege-egoeraren erregularizazioa, eta abar). Baina estatuari ez dagokio, noski, administrazio-arlo hori bakarrik, eta izaera politiko ukaezina dauka: nazioaren aldagaia sartzan zaigu orduan.

Estatuek, oro har, beren lurraldearen izaera nazionala aldarrikatu, eta eurena *nazio-estatu* moduan ezaugarritzen dute. Estatuak, horrela, nazio baten existentzian oinarritzen du bere legitimitatea. Nazioa ulertzeko moduak ugariak dira, eta elementu ugari nabarmentzen dira nazioak edo nazio zehatzak zedarritzerakoan (hizkuntza, etnia, historia, borondatea, eta abar); baina nazioa, funtsean, egitate politikoa da, eta asmo politiko bati loturik doa. Nazioaren aldarrikapena ez dagokio estatuari soilik, eta ugariak dira estaturik erdietsi ez duten nazionalismoak, estatu-nazionalismoen eta estaturik gabekoen arteko talka nabarmena izanik lurralde askotan.

Migratzailea, esan dugunez, estatu batera iritsiko da, baita nazio batera ere. Baliteke bi errealitateen arteko kontraesanik ez gertatzea, edo kontraesan hori gutxiengo baten ardura hutsa izatea, sozialki adierazgarria izan gabe. Baina lurralde horretan estatuak bultzatutako nazioarekin bat egiten ez duen nazionalismo esanguratsu bat baldin badago, nazio-gatazka mahaigaineratzen da; eta lurralde horretako herritarrek jarrera bat hartuko dute afera horren aurrean, baita immigranteez ere. Edonola ere, bere nazio-proiektua zalantzan jartzen duen mugimendurik egon edo ez, estatuak bere nazio-egitasmoa hedatzen du herritarren artean —edo horretan saiatzen da—, eskura dituen gizarte-erakunde ororen bitartez, eta egunerokotasunean presente dauden eta zalantzan jartzen ez diren ekintza ugarien bidez (ik. Billig, 1995). Estatu-nazionalismoaren eraginkortasuna, hortaz, handia izan ohi da, ez baita nazionalismotzat hartuko, *normaltasunaren* ondorioztat baizik. Estaturik gabeko nazionalismoak, berriz, bere egitasmoa aldarrikatu behar du, eta bere jarraitzaileek nolabaiteko jarrera aktiboagoa hartu behar dute, ondorioz.

Immigrazioaren auzian, bada, estaturik gabeko nazionalismoaren zailtasuna nabarmena da. Estatuak duen tresneria hori guztia eduki ez, eta nazio-egitasmoa garatzeko arazoak ugariak dira. Izan ere, estatu-nazionalismoaren eta estaturik gabekoaren arteko indar-harremanean, faktore ugarien eraginez, immigrazioak lehenaren alde egiteko joera duela nabarmendu izan da, immigratuaren bizitzan zuzenean eragiten duen eta eragile boteretsuena den heinean (ik. Kymlicka, 2003; Zapata-Barrero, 2008). Hala ere, baieztapen horren ondorioa ez da, inondik inora, estaturik gabeko nazionalismoa immigranteekin bateraezina izatea. Estaturik gabeko nazionalismoek immigrazioaren aurrean garaturiko ildoak askotarikoak dira, eta badaude jarrera defentsibo batean gotortu eta immigranteen aurkako jarrera xenofoboa garatzen dutenak zein etorkinak euren nazio-proiektura bildu nahi dituztenak. Estatu-nazionalismoen kasuan ere ikuspegi desberdinak garatzen diren bezala.

Maila teorikoan jarraituz, estatua erdietsi edo ez, nazionalismoak harreman konplexua du immigrazioarekin. Nazionalismoak, bere nazioaren mugak zedarritzean, bere nazioko kideak —naziokideak— definitzen ditu; eta hori egitean, atzerritarrak zehazten ditu, aldi berean. Areago, *gu* nazionalaren eraketarako, beharrezkoa da

bestetasun atzerritarren presentzia, *beste*a modu sinbolikoan ager badaiteke ere (Connor, 1998: 51; Triandafyllidou, 1998).

Etorkina, herritar nazionalen eta atzerritarren arteko sailkapen horretan, modu gatazkatsuan kokatzen da, ez baita, ez nazioko kide, ezta atzerritar hutsa ere. Atzerritarrak badu *bere* nazioa, baina immigranteak, *berea ez den* lurraldean kokatzean, *gu* eta *besteen* definizioa *problematizatzen* du, *kanpoko* eta *barruko* izatearen artean baitago. Beste hitz batzuekin esanda, migrazioak nazio-estatua *desnaturalizatzen* du¹⁰, eta bere izaera historiko eta soziala nabarmendu (ik. Gil Araújo, 2006: 59-61). Finean, bi errealitateek —migrazioei dagokiena, batetik, eta nazioari edo estatuari loturikoa, bestetik— logika desberdinei jarraitzen diete, eta bakoitzak ordena bati bide ematen dio, Abdelmalek Sayad-ek (2010) erakutsi bezala, nazio-ordenari eta migrazio-ordenari, hain zuzen. Bi logika kontraesankor horien arteko harremanak, hortaz, gatazkatsuak dira, ezinbestean.

2. IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN: BEGIRATU BAT

Goian aipatutako eztabaida *teorikoak* inplikazio zuzenak ditu lan honetan helburu dugun gaien: migrazioaren eta Euskal Estatuaren arteko harremanean, hain zuzen. Planteamendua Euskal Herrira ekarrita, beharrezkoa da, lehenik eta behin, migrazioak Euskal Herrian dituen ezaugarri nagusiak aipatzea. Jarraian, Euskal Herrira iritsitako migrazio-fluxu nagusien ezaugarri nabarmenenak azpimarratzen saiatuko gara.

Zentzu horretan, bi migrazio-prozesu oso desberdin (estatuetatik zein horietatik at etorritakoak) aipatuko ditugu, etapa desberdinetan indar biziagoz edo mantsoago jazo direnak, baina gaur egun ere batera gertatzen direnak (nahiz eta migrazioaren diskurtso eta irudi sozial batez soilik arduratu). Gure iritziz, Euskal Herriko estatuaren eta migrazioaren arteko harremanaz pentsatu nahi badugu, Euskal Herrian migrazio-arloan garatutako esperientzia oparoa (argi-ilun guztiekin) aintzat hartu beharrezkoa da.

Aurretik, halere, zehaztapen bat egitea beharrezkoa da. Izan ere, Euskal Herriko migrazioa aztertzeak zailtasun nabarmenak ditu, datu estatistiko egokiak biltzea bera ere ezinezkoa izanik. Horregatik, jarraian aipatuko ditugun datuak tentuz irakurri behar ditugu, gerturatze moduan soilik. Ipar Euskal Herriko migrazioaren datuetan, adibidez, Hendaian bizi diren Hego Euskal Herriko herritarrak ere sartzen dira. Izan ere, Euskal Herriaren egituratze ezaren ondorioak modu argian mahaigaineratzen dira migrazioaren kasuan.

2.1. Aurrekaria: Espainia eta Frantziatiko migrazioa

Jakina den moduan, euskal herritarrek historian zehar emigratu behar izan dute, *euskal diaspora* deitutakoa horren erakusgarri izanik. Hausnarketa berezia behar luke Euskal Herri kanpoko euskal jatorrikoek estatu berrian izan beharreko paperak. Izan ere, estatuen artean desberdintasunak handiak dira atzerrian jaiotako

10. Zentzu horretan, adierazgarria da estatu bateko herritartasuna lortzeko prozesua *naturalizazio* izenez ezagutzea.

herritar nazionalen ondorengo herritartasunari dagokionez. *Diasporak* aipatuta, immigrante guztiak, aldi berean, beste herri batzuen diaspora ere badirela oroitu behar dugu.

Arreta Euskal Herrira iritsitako immigrazioan jarriz, bada, lurraldea, modu esanguratsuan, XIX. mende bukaeran hasi zen etorkinen hartzaile izaten. Orduan, Espainiatik abiatutako immigrazio-prozesuak indarra hartu zuen, eta benetako giza mugimendu sendo bilakatu zen. Ondorengo ehun urteetan luzatuko zen prozesu bati hasiera eman zitzaion horrela (Araba, Bizkai eta Gipuzkoara mugatuta, prozesu horretarako, ik. Ruiz Olabuénaga / Blanco, 1994). Hasieran Bizkaian soilik (zehazki, Bilbon, Ezkerreldean eta Meatzaldean), gutxinaka etorkin ugari iristen hasi ziren, bertako meategiei loturiko industria berrietan lan egiteko. Hego Euskal Herri barruko barne-migrazioaz gain (Bizkaian, adibidez, lagun ugari baserri-ingurua utzi eta industriaguneetara joan ziren), Euskal Herriarekin muga egiten duten Espainiako lurraldeetako etorkinak ugaritu ziren, gaztelauak batik bat.

Egoera berri horrekin, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko desberdintasun demografikoa nabarmendu zen. Izan ere, Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak herritarrak galtzen jarraitzen zuten bitartean, gainerako herrialdeetan egoera aldatzen hasi zen. Edonola ere, begirada Hego Euskal Herrira mugatu arren, herrialde eta eskualdeen arteko errealitateak diferenteak izan zirela kontuan izan behar dugu. Nafarroa Garaian, esaterako, immigrazio-fluxu esanguratsurik ez zen gertatu XX. mende erdira arte, eta orduan ere gainerako herrialdeetan baino etorkin gutxiago iritsi ziren (ik. García-Sanz / Mikelarena, 2000).

Baina Hego Euskal Herrian sakoneko eragina izan zuen immigrazio-prozesua geroago jazo zen, 1950etik aurrera, eta, nagusiki 60 eta 70eko hamarkadetan. Espainiako langile ugari heldu ziren, hasieran Bizkaira eta Gipuzkoara eta, ondoren, Araba eta Nafarroa Garaia, Euskal Herriko lan-aukerek bultzatuta, eta frankismoaren testuinguru ilunean. Indar biziagoz Bizkaian (aurreko immigrazio-garaia ezagutu zuten eskualdeetan, batez ere) eta, segidan, Gipuzkoan (bailara desberdinetan sakabanatuago) immigratuak industria hedatzen zen inguruetara heldu eta hiri-inguruetan bildu ziren. Gure hiri-paisaiaren erakusgarri diren langile-auzoak, modu kaotikoan eraikitakoak, hedatu ziren Hego Euskal Herriko hainbat ingurutan, eta bertan etorkinek portzentaje esanguratsuak osatu zituzten. Araban (Gasteizen, nagusiki) eta, askoz modu txikiagoan, Nafarroa Garaian, immigrazioa ondoren garatu zen, 1970eko hamarkadan, batez ere.

Immigrazio-prozesu horretan, aurreko aldian gertatu zen bezala, eta halako prozesu gehienetan legez, gizarte-egoera gogorak gertatu ziren, etxebizitzetan pilaketak ugariak izanik, adibidez; eta, beste aldean, industria-jabe batzuen aberasterako hauspoa ere izan zen prozesu hura. Horrez gain, Euskal Herrian berpizten hasi zen mugimendu abertzalearen gain ere eragina izan zuen, haren jarreraren sakoneko aldaketa gauzatu baitzen, aurrerago azalduko dugunez. Bestalde, ez zen gizonezkoen immigrazio bat izan, halako migrazio ekonomikoetan gertatu bezala, emakume eta gizonezkoen kopuruak nahiko antzekoak izan baitziren (Ruiz Olabuénaga / Blanco, 1994: 154-155).

Immigrazio-uholde horrek Hego Euskal Herriko gizarte-egitura eraldatu zuen. Industrializazio- eta urbanizazio-prozesu sakonei loturik, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta —neurri apalagoan— Nafarroa Garaian biztanleriak gora egin zuen, nabarmen, eta kanpoan jaiotakoek kopuru esanguratsua osatu zuten. 1973an, esaterako, Euskal Herrian jaiotakoak eta gurasoak ere bertakoak zituztenak % 53 ziren Hego Euskal Herrian (in Jáuregui, 1981: 69). 1980ko hamarkadan sartuta, eta krisi ekonomikoaren testuinguruan, immigrazio-prozesu horrek etena izan zuen, eta migrazio-saldoek zentzu negatiboa eskuratu zuten. Hamabost urte inguru itxarotea beharrezkoa izango da, hortaz, Hego Euskal Herrian immigrazioa berriz nabarmentzeko, oraingoa bestelako jatorri bateko etorkinekin, jarraian ikusiko dugun bezala.

2.2. Immigrazio berria

Gaur egun, Euskal Herrian 3.100.000 biztanle inguru bizi gara, horietatik % 10 baino gutxiago Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan; eta biztanleriaren zatirik handiena (% 37,1) Bizkaian biltzen da¹¹.

1. taula. Biztanleriaren osaera jaioterriaren arabera (Ipar Euskal Herria 2008, Hego Euskal Herria 2010).

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Ipar EH*	Guztira
Euskal Herria	66,6	71,2	77,1	73,6	58,7	71,5
Frantzia edo Espainia	23,9	21,8	15,9	13,1	31,3	19,7
Atzerrian, Estatuetatik at, Estatuko herritartasunarekin	0,6	1,0	1,0	2,0	5,6	1,6
Estatuetatik at	8,9	6,0	6,0	11,2	4,3	7,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
Guztira (gordina)	313.819	1.152.658	705.698	630.578	282.003	3.084.756

Iturria: Aierdi, 2011.

Taulan ikus daitekeenez, immigrazio-tasa baxueneko lurraldea Gipuzkoa da, eta handienekoa, berriz, Ipar Euskal Herria (hala ere, herrialdeen arabera aldea handia da azken horretan: 2001ean, Euskal Herri osoan immigrazio handieneko lurraldea Lapurdi zen bitartean, Zuberoan kontrako egoera zegoen; ik. Aztiker, 2006: 116).

Horrekin batera, arestian aipatu dugun Estatuetatik abiatutako immigrazioak (eta 1950-1980ko immigrazio-aldia igarota, Espainia eta Frantziatik gertatutako fluxu etengabea) pisu handia dauka Euskal Herriko gizartearen, % 20ren inguruan. Horrekin batera, Estatuetatik etorritako gurasoetako bat edo biak dituztenak aipa daitezke, % 24 inguru baitziren 2001ean (Aztiker, 2006: 117). Euskal Herriaren osaera demografikoa aztertuta, alboraz ezinezko errealitatea da Espainiatik zein Frantziatik etorritako immigrazioa, beraz.

11. Atal honetan azalduko ditugun datuak Aztiker (2006) ikerketa-taldearen eta, batez ere, Aierdiren (2011) lanetik atera ditugu. Aztikerren datu gehienak 2001ekoak dira; Aierdirenak, berriz, berriagoak: 2010ekoak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren kasuan, eta 2008koak, Ipar Euskal Herriaren kasuan.

*. Jatorria Pirinio Atlantikoen departamendu osoa kontuan hartuta eskuratu da.

Bi estatu horietatik kanpoko immigrazioa (hemen *immigrazio berria* izendatuko duguna) kontuan hartuta, etorkinen portzentaje esanguratsuenak Araba eta Nafarroa Garaikoak dira; eta Ipar Euskal Herrian frantziar herritartasuna duten arren Frantziatik at jaino direnek kopuru esanguratsua osatzen dute (% 5,6). Ondokoa azaltzea ere interesgarria da: Nafarroa Garaian, XX. mendeko Espainiatiko immigrazioa gutxien bizi izan zuen Hego Euskal Herriko herrialdean, immigrazio berriaren portzentaje esanguratsuenak gertatzen dira. Horrekin batera, nabarmentzekoa da immigrazio-portzentaje altuenetako eskualdeak Nafarroako hegoaldekoak (Tuteralea buru) eta Arabako Errioxa direla; hots, nekazaritza funtsezkoa den eta euskara oso gutxiturik duten eskualdeak. Ipar Euskal Herrian ere, immigrazio horrek kopuru esanguratsuak hartzen ditu, Lapurdiko kostaldean metaturik, ziur asko.

Modu *ofizialean* etorkintzat Espainia eta Frantziak kanpokoak soilik hartzen direla kontuan izanda, Euskal Herriko portzentajea (% 7,2) Espainiakoa (% 12,3) baino baxuagoa da, baina Frantziakoa (% 5,8) baino altuagoa; eta Europar Batasunekoaren (% 6,5) antzekoa (Eurostat, 2011). Izan ere, nazioarteko immigrazioak Europako mendebaldean Euskal Herrian baino lehenago indarra hartu zuela kontuan hartu behar dugu. Bigarren Mundu Gerra ostean, jada, Afrikako iparraldeko edota Turkiako immigrazioa, adibidez, ugaritzen hasi zen Frantziar, Erresuma Batuan edo Alemanian. Horrela, Frantziatik at jaiotako guztiak —herritartasuna izan edo ez— barne hartuta, Hexagonoko portzentajea % 11,1era iristen da, eta Espainiakoa, berriz, %14an mantentzen da, immigranteek oraindik herritartasuna lortzeko astirik izan ez dutelako, ziur asko (*ibidem*).

Izan ere, *immigrazio berri* deritzogunaren iraupena, hots, immigrazio-fluxu hori noiztik gertatzen den, aipatu beharrekoa dugu. Hego Euskal Herrian, Espainiar bezala, immigrazio berria Europako iparraldeko herrialdeetan baino beranduago hasi da, eta azken hamarkadako igoera oso handia izan da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian, immigrazio berria 2000ko hamarkadan sartzearekin batera hasi zen kopuru esanguratsuak eskuratzen. Azterketa berezia behar luke immigrazio berriaren irudi sozialak, *legez kanpoko immigrazioarekin* parekatzen baita, nahiz eta Hego Euskal Herriko etorkin berrien gehiengo zabalaren lege-egoera erregularra izan (Ikuspegi, 2011a).

Immigrazio berriaren bereizgarri nagusia bere jatorria da, kopuruez gainera, ikusgarritasun berezia egotzen zaiolako immigrazio honi. Aurreko fluxuetan baino jatorri urrunagokoak nagusitzen dira, eta Latinoamerikak pisu berezia hartzen du. Hego Euskal Herriko jatorri nagusiak, estatuei begiratuta, Maroko (% 13,5), Errumania (% 12,3) eta Kolonbia (% 9,5) dira, baina amerikarrak (latindarrak, gehienak) etorkin berrien % 42,1 dira Hego Euskal Herrian (Aierdi, 2011). Gainera, feminizazio-tasa handiko immigrazioa da, eta emakume latinoamerikarrak berriz ere nabarmentzen dira. Nazioartean, immigrazioak industria-sektoreko gizon gaztearen afera izateari utzi zion 1970eko hamarkadan sartzearekin, eta zaintzari loturiko lanbideetan txertaturiko emakumeek gero eta pisu handiagoa dute Euskal Herriko eskualde batzuetako immigrazio kopuruetan.

Oro har, immigrazioa estatuen markoetatik aztertzen da, eta horren azpiko mailetan datuak jasotzea zailagoa izaten da. Hori oso agerikoa da Ipar Euskal

Herriaren kasuan, egituratze instituzionalaren gabeziaren eraginez. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Frantziatik abiatutako immigrazioak pisu garrantzitsua duela ikus daiteke arestian erakutsitako taulan, % 30etik gora, eta horri Frantziatik kanpoko immigrazioa gehituta, autoktonoak % 60 inguru dira Ipar Euskal Herrian. Ziur asko, immigrazioa Lapurdiko kostaldean kokatzen da, barnealdeak kontrako prozesua bizi baitu: hustea. Maiz ahantzita geratzen den arren, immigrazioak errealitate sendoa osatzen du hiru herrialde horietan, eta, gure ustez, azterketa berezia eskatzen du.

3. IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN: ABERTZALETASUNA

Euskal Herrirako immigrazioa prozesu luze eta sakona izan da, mota guztietako ondorioak izan dituen eta, gaur egungo Euskal Herriko gizartea ulertu ahal izateko, ezinbestez kontuan hartu behar dena. Ondorioak demografikoak, ekonomikoak, kulturalak, sozialak, politikoak eta beste hainbat alorri loturikoak izan dira. Lan honen helburua Euskal Herriko estatua eta immigrazioa harremanetan jartzea izaki, abertzaletasunean¹² geldituena egiteak beharrezkoa dirudi, proiektu horren bultzatzailea den heinean.

Izan ere, Euskal Herrian nazio-gatazka funtsezko elementua da, eta nazionalismo desberdinek dihardute lehiak bertan, arlo guztietan, immigrazioaren auzian ere bai. Azken gai horretan, ika-mika agerikoagoa izan da Hego Euskal Herrian, euskal eta espainiar nazionalismoen artean (ik. Zabalo *et al.*, 2010: 37-62), Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan baino. Azken eremu horretan, immigrazioak berezko ezaugarriak izateaz gain, euskal eta frantziar nazionalismoen arteko indar-harremana desberdina izan da, eta konfrontazioak beste eremu batzuk hobetsi ditu. Hortaz, jarraian Hego Euskal Herrian euskal nazionalismoak immigrazioari buruzko jarrerak izandako bilakaera azpimarratzen saiatuko gara, garapen horretan funtsezkoak izan diren hainbat aspektu (espainiar nazionalismoaren jarrera, esaterako) kanpoan utzi beharko ditugula ohartaraziz.

Bada, aipatu dugunez, euskal nazionalismoak garrantzi handia eskaini dio immigrazioaren auziari; prozesu horrek Euskal Herrian izandako eragina kontuan hartuta, bestalde, harrizkoa ez dena. Jarrera desberdinak garatu dira immigrazioari buruz, baina, oro har, immigrazioak esangura nabarmena izan du abertzaletasunaren ezaugarritzean. Gure ikuspegitik, euskal nazionalismoak immigrazioaren aurrean izandako jarrerak gertatutako bilakaera da azpimarratu beharrezkoa, immigrazioaren aurkako ildo *itxi* batetik, migratzaileen *integrazioa* bilatu duen ikusmolde batera igaro baita, prozesu luze eta konplexu batean (ik. Conversi, 1997: 187-221).

Ezaguna denez, euskal nazionalismoaren sorrera, Sabin Aranaren eskutik, espainiar jatorriko immigranteen aurkako jarrerari loturik gertatu zen. XIX. mende amaieran immigrazio-uholdea iritsi zen Bizkaiko eskualde industrializatu berrietara. Momentu horretan, nazionalismo jeltzalea sortu zuen Aranak, eta mugimendu kontserbadore eta erlijiozale bati hasiera eman zion. Nazionalismo jaio berrian, bada, immigrazioari buruzko diskurtsoak tarte garrantzitsua eskuratu zuen, garaiko

12. Nazionalismoa eta abertzaletasuna kontzeptu desberdinak badira ere, lan honetan *euskal nazionalismoa* eta *abertzaletasuna* sinonimo gisa darabilzkigu.

Bizkaiko gizarteko sektore orotan —eta ez nazionalismo sortu berrian bakarrik— gai zentrala zen modu berean.

Ezaguna da abandotarrak espainiar etorkinen aurka garatu zuen ildo gogorra, eta askotan ikuspegi hori azpimarratu izaten da, oraindik ere, egungo euskal nazionalismoaren aurkako klixer moduan¹³. Izan ere, Aranarentzat euskal herritar izateko baldintza *arraz*a zen, baina modu berezian ulertutako *arraz*a, deituren euskaltasunean oin hartzen baitzuen, arrazakeria biologikoan erori gabe (Azurmendi, 1979: 128; Conversi, 1997: 68). Alta, Aranaren euskal nazioan etorkinek ez zuten lekurik, eta immigranteen aurkako birao ugari jaulki zituen. Finean, euskal nazionalistak talde txiki bat baino ez ziren garai batean, Aranek orduko Europako kabinete zientifikoetan erabiltzen zen *euskal arrazaren* ideia hartu, eta bere helburuetarako erabili zuen; hots, euskal nazioaren aldarria plazaratzeko. Egoeraren arabera, nazionalismoek elementu desberdinak erabili ohi dituzte beren nazioaren mugak zedarritzeko, eta Aranek *arraz*a erabili zuen, ziur aski bere ustez beste elementuek (hizkuntzak, adibidez) huts egiten ziotelako (Aranaren *arrazaren* ideiarako, ik. Douglass, 2004).

Euskal nazionalismoa etorkinei itxitako mugimendua izan zen hamarkada luzeetan zehar, immigratuak eta haien ondorengoak Euskal Herrian gero eta ugariagoak ziren arren (eta, praktikan, salbuespenak egiten zirelarik, edota mugimendu nazionalistan parte hartzeko *arraz*-*eskakizunak* malgutzen zirelarik). Jarrera horrek, agerikoa denez, mugimendu abertzalearen hedapen-ahalmena eta eragiteko gaitasuna izugarri mugatzen zituen. Gainera, gutxinaka, abertzaletasunaren baitan bestelako ikuspegiak agertzen joan ziren, oso ahul hasieran, eta arrakasta handiagoz ondoren. Aldaketa horren adibideak aurki ditzakegu Sabin Aranaren jarraitzaile batzuen artean (Jagi-Jagi mugimenduko buruzagi zenbaitzuen aldarrikapenetan [in Gallastegi, 1993: 110 eta hur.]) zein Aranaren tradizioetik at kokatutako Eusko Abertzale Ekintzak proposatutako abertzaletasun laiko berriaren ildoan (Díez Medrano, 1999: 104).

Edonola ere, langile-mugimendutik jaiotako ideologiek eta nazioartean *arraz*ak hartutako kutsu negatiboak eragina izan zuten euskal nazionalismoan; eta eragin hori guztiz mahaigaineratu zen, hamarkada batzuk geroago, ezkerreko abertzaletasuna ETArekin sortu zenean. 1960ko eta 1970eko hamarkadetako immigrazio-aldiaren baitan, euskal nazionalismo berria gorpuztu zen eta euskal herritartasunaren definizio berriak plazaratu ziren. *Arraz*a guztiz alboraturik, etniak hartu zuen indarra hasiera batean eta, horri loturik, euskarak segidan (Jáuregui, 1981: 133-135). Eztabaida horren testuinguruan, immigrazioak paper garrantzitsua bete zuen 60ko hamarkadako ETArekin eztabaidetan, eta nahiz eta hasieran ikuspegi desberdinak mahaigaineratu ziren, behin mugimenduak marxismoarekin bat egin ostean, etorkin- abertzaletasunean integratzearen aldeko hautua gailendu zen, ezkerreko abertzaletasunaren praktikan ikuspegi horri jarraipena emanez (Garmendia, 1983: 78).

13. Hainbatetan, gaur egungo euskal nazionalismoak immigrazioarekiko bazterkerian oinarritutako jarrera duela frogatuztat ematen da; eta, horretarako, nazionalismo horren sorrerako ildoaz azpimarratu eta, gutxienez, azken 60 urteetako bilakaera saihesten da. Ikuspegi horrek nolabaiteko isla du euskal nazionalismoaren izaera *etnikoa* —modu ezkorrean ulertuta— baieztatzen den batzuetan.

Euskal herritartasunaren definizio berriak euskal nazioaren ateak irekitzen zizkion bertako kide izan nahi zuenari, euskara ikastearen baldintzarekin; eta sekulako jauzia izan zen euskal nazionalismoaren planteamenduetan, ondorioa migratzaileen eta abertzaleen arteko harremanetan errotikako aldaketa izanez (Shafir, 1995: 112). Gainera, praktikan, euskal herritartasunerako *baldintzak* are lausotuago geratu ziren, euskarak barik, borondate politikoak eta parte-hartzeak hartu baitzuten zentraltasuna euskal naziotasunaren definizioan (Zabalo, 2006). Euskal herritarra izateko, hori nahi izatea zen bete beharreko baldintza. Horretarako abertzaletasunarekin bat egitea bultzatzen zen, eta herritarrari nolabaiteko jarrera aktiboa eskatzen zitzaion.

Nazioaren ikuspegian gertatutako aldaketak funtsezko ondorioak izan zituen immigrazioaren lanketan. Gogora dezagun garai horretan immigrazioa oso ugaria zela, eta euskal nazionalismoak, etorkinak errefusatzeko tematu beharrean, bestelako hautua egin zuen: abertzaletasunaren helburu garrantzitsu bilakatu zen immigranteak bere mugimendura eta, oro har, euskal nazio-sentimendura erakartzea. Etorkinen integrazioa euskal nazionalismoaren funtsezko helburu bilakatu zen, beraz (Shafir, 1995: 126; Conversi, 1997: 199). Garapen horretan funtsezko eragina izan zuen euskal nazionalismo berriaren ezkeritartasunak¹⁴; eta hainbat etorkinek euskal nazionalismoarekin bat egin zuten (ik. Garmendia *et al.*, 1982; Shafir, 1995: 114-115; Conversi, 1997: 205). Hasieran ezkerreko abertzaletasunak hartu zuen ildo hori euskal nazionalismo osora hedatu zen ondoren.

Labur azaldu dugun prozesu horrek, beraz, ondorio sakonak izan zituen. Euskal nazio-ezaugarriak (euskara, bereziki) arrisku larrian zeuden testuinguru batean, ukazina da Espainiatik zetorren immigrazio-uholdeak egoera horretan sakondu egiten zuela. Euskal jendartearen sektore zabaletan, nazio-ezaugarrien galtze-prozesuaren sentipena oso indartsua zen (Jáuregui, 1981: 70). Hortaz, are adierazgarriagoa da, gure ikuspegitik, abertzaletasunak hartutako bidea.

Orain arte Espainiatik abiatutako immigrazioaz aritu gara, hori izan baita, ezbaierik gabe, momentuz Hego Euskal Herrian ondorio sakonena izan dituen, eta euskal nazionalismoan ere eragin nabarmena izan duena. Ipar Euskal Herrian, aipatu dugunez, eztabaida beste esparru batzuetan garatu zen, eta azterketa propioa behar duela uste dugu. Immigrazio berria, bere aldetik, 2000ko hamarkadan nabarmendu zen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian, aurreko immigrazio-aldiak baino era apalagoan, gainera. Prozesu horren berritasunaren eraginez, abertzaletasunean gai horri buruz garatutako ikuspegiak oso oinarritzkoak dira oraindik, gure ustez.

4. IMMIGRANTEEN EGOKITZAPENA: OHAR BATZUK

Migratzailea lurralde batera iritsi osteko prozesu luze hori guztia barne biltzen du *etorkinen integrazio* kontzeptu zabalak (Favell, 2003), zeina eztabaida ugariaren iturburu den, eta gizarteko hainbat dimentsiori dagokion (lan-mundua, harreman sozialak, partaidetza politikoa, hizkuntzaren ikasketa, eta abar). Hala ere, kontuan

14. Herritartasunaren definizioan bertan agertzen da marxismoaren eragina, *euskal herri langilea* (maiz gaztelaniaz: *pueblo trabajador vasco*) izendapenarekin: euskal herritarra da Euskal Herrian bizi dena eta lan egiten duena.

hartu beharrekoa da egiturazko integrazioa (batik bat egitura sozialari eta lan-munduari loturikoa) ezinbestekoa gertatzen dela etorkinarentzat, integrazio politiko-kulturala ez bezala. Integrazioa, bada, alde biko prozesu moduan ulertzen da, hots, immigranteari *eta* bertakoari dagokiena. Beraz, gutxienez bi taldeen arteko prozesua da, baina, bi aldeek botere-harreman desberdina duten heinean, prozesu asimetrikoa dela kontuan izan behar da. Edonola ere, maiz asimilazioaren sinonimo gisa erabiltzen den arren, integrazioak, berez, asimilazioak baino *zerbait gehiago* eskatzen du.

Integrazio- edo egokitzapen-prozesu horretan, estatuaren egitekoa funtsezkoa da, errealtatea definitzeko duen boterearen bidez, eta immigrazio-politikaren bidez. Halaber, estatuak garatutako herritartasun-politika etorkina barneratzeko nahiz baztertzeko funtsezko mekanismoa da. Gainera, prozesu horretan, arreta askotan immigrantearen ezaugarrietan jartzen den arren (haren erlijioa dela, haren ohiturak mantentzen tematzen dela, eta abar), barneratze/esklusio mekanismo horiek harrera-gizartearen ezaugarrien araberrakoa izan ohi dira (Gil Araújo, 2006: 64). Izan ere, ereduak eredu, eta *kanpotarrak* bota edo zokoratzea helburu duten diskurtsoak alde batera utzita, estatu orok bere lurraldera iritsitako gizabanako berriak bere gizartearen barneratu nahi ditu. Prozesu horretan, integrazioaren aldebikotasuna ahantzia gelditu ohi da, eta zentzu asimilazionista hartzen du. Izan ere, eskaerak etorkinari soilik bideratzen zaizkio: praktikan, etorkina da harrera-gizartera *integratu* behar dena.

Aipatu dugunez, immigrazioak aspektu sozial, kultural, politiko, demografiko, juridiko eta abarrekoak barne biltzen ditu. Baina, azken hamarkadetan, immigrazioaren alderdi kulturalak zentraltasuna eskuratu du migrazioei buruzko azterketa akademikoetan zein eztabaida sozialean. Finean, funtsean arazo soziala dena, *etnifikatu* egin da (ik. Cachón, 2009: 262), eta bestelako erroak *ere* (klase soziala, generoa, adina, eta abar) badituzten errealtateei *azalpen kulturala* ematea izan da ondorioa.

Edonola ere, immigrazioaren ondoriozko kultura-aniztasunaren aurrean, estatuak zein aktore sozial eta politikoei garaturiko jarduna azterketa-iturri agortezina da azkenaldian immigrazio kopuru esanguratsuak jasotzen dituzten herrialdeetan. Izan ere, immigrazioaren eraginez, harrera-gizartearen ugaritasun kulturala areagotu da edo, zahatzago esanda, aniztasun hori ageriko bilakatu da. Immigrazioak sortutako multikulturalitatearen aurrean (bakarra izan ez arren, zentraltasun osoa eskuratu duena), bada, hainbat eredu garatu izan da, testuinguruaren arabera. 1970eko hamarkada arte, eta batez ere eremu anglosaxoiaz ari garela, asimilazioa edota *melting pot* bezalako ereduak nagusi ziren, modu diferenteetan immigrantea harrera-gizarteko kulturaren (kultura bakar moduan ulertuta) barneratzea xede zutenak. Ikuspegi arabera, harrera-gizartearen barneratzeko prozesua —ustez modu *naturalean* gertatzen zena— immigrantearen ardura zen. 70eko hamarkadatik aurrera, baina, eredu horien muga eta ezintasunak azaleratu, eta kultura-aniztasunaren onarpen positiboak hartu zuen indarra, hots, pluralismo kulturalak. Ikusmolde horrek, harrera-gizartearen usteko homogeneotasun kulturala faltsua dela jabetuta, immigrazioak ekarritako kultura-alorreko ugaritasuna modu positiboan

baloratzen du, eta immigrazioaren azterketan nagusi den ikuspegi normatiboa da (eredu hauetarako, ik. López Sala, 2005: 77-92).

Pluralismo kulturalaren barruan, eredu nagusia, aztertuena, eta eztabaida handiak sortu dituena, multikulturalismoa da¹⁵. Ikusmolde horrek, funtsean, berdintasun eta kohesio soziala xedetzat hartuta, gutxiengo nazional eta etnikoen diferentziarako eskubidearen bermea azpimarratzen du (ez da immigrazioaz soilik arduratzen, beraz), eta nagusiki jarrera liberal batetik abiatzen da¹⁶. «*Berdinak gara kulturalki desberdinak izateko eskubide berak ditugulako*» esaldian laburbil daiteke haren mezua.

Multikulturalismoari alde ugarietatik egiten zaio kritika, ikuspegi askotatik, komunitate kultural desberdinak bultzatzen direnez gizartearen kohesioa apurtzen dutela uste dutenetatik (adibidez, ik. Sartori, 2003), ikuspegi feminista eta kritikoraino¹⁷, esaterako. Izan ere, ez dira gutxi multikulturalismoa ulertzeko moduak¹⁸. Nolanahi ere, immigratuek harrera-gizartean burutu beharreko egokitzapen-prozesuan, kultura-aniztasunaren afera ere kontuan hartu behar dela ukaezina da. Estatuak ere, hortaz, bere jarduna definitu behar du kultura-aniztasunari dagokionez. Kultura-aniztasunaren aitortza edota onarpenetik harago, multikulturalismoaren defendatzaileek aniztasun hori eskubidea dela azpimarratzen dute.

Estatuak gai etnikoetan izan dezakeen *neutraltasunaren* asmo liberala gaindituta, immigrazioaren ondoriozko aniztasuna eta estaturik gabeko nazioei loturikoa ere harremanetan jarri behar dira, estatuaren nazioarekin bat egiten ez duen nazionalismo indartsua dagoen kasuetan. Halako testuinguruetan, Will Kymlicka-k proposatutako banaketa hartzen da erreferentziatzat, eta kultura-aniztasunaren forma nagusiak izendatzeko *multinazional* eta *polietniko* kategoriak bereizten dira. Horrela, estatu multikulturala *multinazionala* izango da bere herritarrak nazio desberdinetako kideak direnean (estatu multinazionala); eta *polietnikoa*, berriz, kide horiek nazio desberdinetatik emigratu baldin badute, eta desberdintasun horrek esangura pertsonala nahiz politikoa eskuratzen baldin badu (estatu polietnikoa) (Kymlicka, 1996: 35 eta hur.). Normalean, estatu bat multinazionala edo/eta

15. Pluralismo kulturalaren barruan, multikulturalismoa gainditzen duen eredu moduan aurkezten da zenbaitetan *interkulturalismoa* edo kultura-artekotasuna. Alta, multikulturalismoaren eta azken horren arteko muga ez da batere argia, eta interkulturalismoak kulturen arteko harremana eta sintesia hobesten dituela azpimarratzen da (eta, aldi berean, multikulturalismoak talde kulturalen arteko mugak eta diferentziak areagotzen dituela defendatzen da). Edonola ere, interkulturalismoak maila mikroan izan du garapena, hezkuntza-arloan bereziki.

16. Ildo horretan, kontuan hartzekoa da Nimni-ren (1999) kritika. Haren aburuz, multikulturalismoaren eztabaida garaikidean ikuspegi liberala hegemonikoa izatearen arduradun nagusia ezkerria da; izan ere, historian zehar ezkerretik plazaratu diren diferentziaren onarpenaren teorien ildotik —*austromarxismoa*, adibidez— jarraitu baino, eremu hori ikuspegi liberalari utzi baitio.

17. Feministotik gogorarazten denez, multikulturalismoak berekin dakarren *kultura propioaren defentsak* kultura modu esentzialistan ulertu eta berau *kosifikatzea* izan dezake ondorioztat; eta, horrela, gutxiengo kulturalen barruko botere-harremanak (generoen artean, esaterako) eta barne-disidentziak ahantzita geratzen dira (ik. Yuval-Davis, 2010).

Beste ikuspegi batetik, Zizek-ek, adibidez, multikulturalismo liberalaren *onarpena* eta *tolerantzia* salatzen ditu, faltsuak direlako. Gainera, bere ustez, multikulturalismo liberalak, gutxiengo borrokak *onarpenaren* norabidean kokatzen dituenez (sistemaren kontrako borrokan baino gehiago), eskakizun horiek merkatu globalaren logikan txertatzen ditu (ik. Zizek, 1998).

18. Multikulturalismoaren azalpen kritiko baterako, ik. Galfarsoro (2012).

polietnikoa izango da, baina aniztasun-iturri bakoitzak eskaera desberdinei bide ematen dienez, bi maila horiek bereiztea komeni da.

Planteamendu horretatik abiatuta, Kymlicka-ren aburuz, *multikulturalismoaren erronka* ondokoa da: nazio eta etnia mailako desberdintasunak modu egonkor batean egokitzea, aldi berean egokitzapen hori modu etikoan eginez. Horrela, Kymlicka-k bere hausnarketa eskubideen alorrera darama. Izan ere, multikulturalismoak defendatutako ideia da immigrantei eta bestelako gutxiengoei zuzendutako talde-eskubideen aitortzaren beharra. Modu eskematikoan azalduta, autogobernu-eskubideak, eskubide polietnikoak eta ordezkapen-eskubide bereziak bereizten ditu kanadarrak. Lehenengoak, estaturik erdietsi ez duten nazioei dagozkie; eta bigarrenak, aniztasun polietnikoaren ondorio dira, immigrazioari lotutakoak, beraz. Azken horiek, autogobernu-eskubideak ez bezala, gutxiengo etnikoa gizartean integratzea dute xede. Ordezkapen-eskubide bereziak, azkenik, behin-behineko eskubideak dira, *ekintza* edo *diskriminazio positiboari* loturikoak, eta talde desberdinek (ez nazional edo etnikoek soilik) erakundeetan ordezkapena lortzea dute helburu (Kymlicka, 1996: 47 eta hur.).

Multikulturalismoaren auzia Euskal Herrira ekarrita, paradigma horrek Euskal Herrian eragin ditzakeen ekarpenak mahaigaineratu izan dira jada. Planteamendua estatua erdietsi duen nazionalismoaren jardueratik proposatu bainoago, estatua lortzeko borrokan diharduen mugimenduaren ikuspegitik luzatu da. Asmo asimilazionista oro (eta intentzio horrek *integrazio* izena har dezakeela ahantzi gabe) gainditzearen beharra azpimarratzen da orduan; eta immigratuen eskubideak eta ikuspuntuak kontuan hartzearen garrantzia. Hortik abiatuta, etorkinen eskubideen aldarrikapena euskal herritar ororen eskubideen aldeko dinamiketan txertatzearen beharra proposatzen da; eta, bide horretan, Euskal Herrian bizi diren jatorri desberdineko biztanleen eskakizunak barne bilduko lituzkeen jarduna eraikitzen saiatzea da xedea (Albite, 2008).

5. IMMIGRAZIOA ETA EUSKAL HERRIKO ESTATUA: ONDORIO MODURA

Immigrazioa auzi politikoa da. Immigrazioaren nozio modernoa bera —normalean, nazioarteko migrazioak dira-eta hizpide— estatuari loturik dago: immigratzea estatu batetik beste batera mugitzea baita. Herritartasuna ere, estatuko naziokide gisa ulertuta, *bestetasunari* kontrajarrira eraiki da: atzerritarrari zein, are modu gatazka-tsuagoan, immigranteari berari. Hala ere, immigrazioaren gai honetan, etorkina zokoratu edo segregatzea baino, immigratuaren *integrazioa* edo egokitzapena da hizpide (gai eztabaidatua izan arren); eta, prozesu horretan, kulturaren auziak zentraltasuna eskuratu du duela hamarkada batzuetatik. Hala eta guztiz ere, harrera-gizartearen eta etorkinaren arteko harremana asimetrikoa dela gogorazai beharra dago, eta, integrazioa aldebikoa dela azpimarratzen den arren, diferentzian oinarritutako kokapen soziala duten eremuen arteko harreman batez ari garela.

Immigrazioaren izaera politikoa dela genioen; eta hori ezin modu argiagoan mahaigaineratzen da, gure ustez, nazio-gatazka egoeretan. Izan ere, migratzaileek (kategoria horren atzean ezkututzen diren jatorri, kultura, klase, genero eta abar

ugariak direla gogora dezagun) kopuru esanguratsua osatzen duten eta nazio-gatazka pil-pilean dagoen lurralde batzuetan, immigrazioak garrantzia eskuratu du agenda politikoan. Immigrazioaren lanketa estatuaren esku egon ohi da, eta harekin izan ohi dituzte lehen harreman erakundetuak migratzaileek. Hori dela-eta, estaturik gabeko nazionalismoak etorkinekiko jardunik garatzen ez badu, estatuak etorkinak bere nazio-proiektura erakartzea izan daiteke ondorioa. Areago baldin eta estatuari loturiko nazioaren zein kulturaren baitan mugikortasun sozialerako aukerak handiagoak badira. Horren aurrean, zenbait lurraldetan (Quebec izaten da adibiderik aipatuena) independentziari buruzko eztabaida immigrazioaren aferarekin lotu da. Zehatzago esateko, immigrazioa ikuspegi propioz lantzeko ahalmena lortzeko beharrekinekin.

Euskal Herrian, aitzitik, egoera bestelakoa da. Immigrazioa —herritartasunari lotuta eta bere dimentsio *nazionalean*— lantzeko eskumenik egon ez den neurrian, ez da gai horri buruzko benetako eztabaida sozialik egon; eta, maila politikoan ere, debate hori ez da nabarmendu. 1970eko eta 80ko hamarkadetan, aitzitik, euskal herritartasunari buruzko eztabaidak indarra hartu zuen, aktore politikoen kasuan, bederen. Baina, gaur egun, immigrazioa beste arlo batzuetan da hausnarketa-iturri, batez ere gai sozialei lotuta eta, bigarren maila batean —gure alorretik gertuago— hezkuntzari edota hizkuntzari lotuta.

Euskal Herria estatu bilakatzeko prozesuak, hala ere, immigrazioaren dimentsio politikoaren eztabaidari bide eman beharko dio, eta ebatzi beharreko gai ugari mahaigaineratuko dira, orduan. Horien artean, ondokoak azpimarra daitezke: herritartasunaren afera¹⁹ (euskal herritar bilakatzeko baldintzak); immigrazioari loturiko kultura-aniztasunaren auzia (*kultura* horiek Euskal Herriko gizarteko eremu desberdinetan —hezkuntzan, adibidez— izan beharreko lekua); immigrazioaren lanketan euskarak izan beharreko papera, eta Euskal Herriko beste hizkuntzen (gaztelania eta frantsesa) zein immigrazioaren ondorioz hitz egindakoen lekua; immigrante taldeen trataera eta eskubideak (talde-eskubideen eztabaida); etorkinen integrazio-prozesua (*integrazione* hitzaren atzean ezkuta daitezkeen helburuen argipena, eta horretarako mekanismoak), eta abar.

Finean, Euskal Herriko estatuak immigrazioaren auzian helburu desberdinei aurre egin beharko die, bere egitekoa lurralde horretan bizi diren herritar guztiei zuzendu beharko diela kontuan hartuta, herritar horien jatorria edozein izanik ere. Euskal Herriko nazio-zutabeak sendotzeko xedea izango du, eta, horrekin batera, immigranteen ongizatea eta gainerako herritarrekiko berdintasuna ere bultzatu beharko ditu. Zentzu horretan, gogorarazi beharrekoa da, hemen immigrazioaz ari bagara ere, *immigrante* kategoria ez dela totala, eta etorkinak, migratzailea izateaz gain, klase, genero eta abarren arabera kokapen sozial zehatza duela. Ondorioz, gauza jakina dirudien arren, Euskal Herriko estatuak euskal herritar orori sortuko dizkion onura berak Euskal Herrira berriki iritsitakoentzat *ere* izango direla aipatzea ez dago sobera.

Egitura politiko batez hornitzen diren nazio guztiek garatzen dute beren migrazio-politika nazionala. Estatu *garatu* guztiek, beren lurraldera iristen diren

19. Bilduma honetan bertan, herritartasunari buruz egindako lanean afera horretan sakontzen da.

gizabanakoen aurrean, jarduera zehatza garatzen dute. Immigrazio-politika nazional horrek estatuko lurralderako sarrera, herritartasuna eskuratzeko baldintzak eta prozedura, edota immigranteen egokitzapen-prozesu zabala barne hartuko ditu, besteak beste. Gure testuinguruan, horietako gai batzuk, ezaguna denez, Europar Batasunaren esku egon daitezke.

Euskal Herriko estatuak ere, beste edozein estatuk bezala, bere migrazio-politika propioa garatu beharko du, eta, horrela, hainbat ahalmen eta aukera Euskal Herrira ekarriko dira, oraingo egitura administratiboek ez baitute horretarako eskumenik (Euskal Herri mailako datuak jasotzeko ezintasuna bera horren adibide da). Politika horren alderdi nabarmena izango da migratzaileen integrazio- edo egokitzapen-prozesua, Euskal Herriatik eraiki ahal izango dena, prozesuaren hasieratik eta helburu zehatzekin. Adibidez, euskarak ere prozesu horretan bere lekua izango du, gaur egun ez bezala²⁰. Lan honetan, bestalde, ez ditugu aztertu egungo migrazio-politikek sortzen dituzten egoera bidegabeak; baina, gure ustez, etorkizuneko estatuak —integrazioa aldebikoa dela kontuan hartuta (hots, etorkinez gain, jada bertan dauden herritarrei ere badagokiela)— egoera horiek gainditzeko erronka izango luke, gutxienez.

Euskal Herriko estatuak immigrazioarekin izan dezakeen harremana pentsatu nahi badugu, ezinbestekoa da Euskal Herrian immigrazio-arloan garatutako esperientzia kontuan hartzea. Prozesu luze eta zabal horretako bi eremutan zentratu gara lan honetan: XIX. mendearen bukaera aldetik Euskal Herrira etorritako immigrazio-aldi nagusietan, batetik; eta horren aurrean abertzaletasunak garatutako ildoan, bestetik.

Lehenengoari dagokionez, Euskal Herriko biztanleen jatorria askotarikoa dela gauza jakina da. Batzuetan aniztasun hori arazo moduan mahaigaineratzen den arren, gizarte homogeenoa fikzioa direla gogorarazi behar da. Areago, Euskal Herriko biztanleriaren osaera ez da, inguruko herrialdeekin alderatuta, oso desberdina. Estaturik kanpoko immigrazio *berriari* dagokionez, herrialdez herrialde oso egoera desberdinak gertatzen badira ere, immigrazio kopuruak nahiko baxuak dira Europako hainbat herrialderekin zein gure ingurukoekin alderatuz gero.

Bigarrenik, immigrazioaren aurrean abertzaletasunak izandako bilakaeraz gako batzuk ere aipatu nahi izan ditugu. Gai hau garrantzitsua iruditzen zaigu; izan ere, abertzaletasuna Euskal Herriko estatuaren bultzatzailea izanda, mugimendu horrek immigrazio-fluxu desberdinekiko garatu duen ikuspegiak garrantzi handia hartzen du. Prozesu luze baten baitan, ikusi dugunez, XX. mendearen bigarren erdian, mugimendu abertzaleak etorkinak euskal nazioan txertatzearen aldeko apustua egin zuen. Jarrera horren ondorioz, abertzaletasunean eta, oro har, Euskal Herriko gizartean immigrazio berriak landu ahal izateko oinarriak baditugu.

Euskal Herrian, bada, immigrazioari buruzko esperientzia egon badago, eta Euskal Herria estatu bilakatu nahi duen mugimenduak gai hori landu izan du, eztabaida nagusiak orain dela hamarkada batzuk gertatu baziren ere. Finean, bi gai

20. Estatuak edukitzeak, gainera, euskararen gaia modu normalizatuan lantzea izan dezake ondorioztat: ez Estatuko (Espainia nahiz, landuko balitz, Frantziako) lurralde bateko *berezitasun* gisa.

horiek estatu berriarentzako indargunetzat uler daitezke. Gaur egungo immigrazioak eztabaida berriak dakartza berekin (migratzaileen egokitzapenari buruzko ikuspegi ugariak, esaterako), aurreko immigrazio-aldietan garatu ez zirenak. Horiei bide eman beharko zaie, ezbairik gabe, eta, gure ustez, Euskal Herriko estatua, bide horretan, lagungarri baino ez da izango.

BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, X. (2011): "Immigrazioa Euskal Herrian", *Gaindegia txostena 2010*, Gaindegia, Andoain, 41-48, <http://www.gaindegia.org/files/GT2010_EU_1.pdf>.
- Albite, P. (2008): "Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak", *Jakin*, **165**, 31-73.
- Aztiker (2006): *Euskal Herria datuen talaiatik*, Txalaparta, Tafalla.
- Azurmendi, J. (1979): *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Hordago, Donostia.
- Bilbeny, N. (2009): "La integración social en sociedades pluriculturales con inmigración. Concepto y límites", in M, Boladeras (koord.), *Ciudadanía y derechos humanos. Gobernanza y pluralismo*, Horsori, Bartzelona, 49-68.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage Publications, Londres.
- Cachón, L. (2009): *La 'España inmigrante': marco discriminatorio, mercado de trabajo y políticas de integración*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Connor, W.(1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madril.
- Conversi, D. (1997): *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative Routes to Nationalist Mobilisation*, Hurst & Co.,Londres.
- Díez Medrano, J. (1999): *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, CIS, Madril.
- Douglass, W. A. (2004): "Sabino's sin. Racism and the founding of Basque nationalism", in D. Conversi (ed.), *Ethnonationalism in the Contemporary World*, Routledge, Londres, 95-112.
- Eurostat (2011): "6.5% of the EU population are foreigners and 9.4% are born abroad", *Statistics in focus*, **34**, <http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-034/EN/KS-SF-11-034-EN.PDF>.
- Favell, A. (2003): "Integration Nations: The Nation State and Research on Immigrants in Western Europe", *Comparative Social Research*, **22**, 13-42.
- Galfaroso, I. (2012): "Kulturantzitasuna eta naziotasuna: identitatearen politikak vs. politikaren identitatea", *Hausnart*, **1**, 26-54.
- Gallastegi 'Gudari', E. (1993): *Por la libertad vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- García-Sanz, A. eta Mikelarena, F. (2000): "Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, **16**, 125-138.
- Garmendia / Parra / Pérez-Agote (1982): *Abertzales y vascos. Identificación vasquista y nacionalista en el País Vasco*, Akal, Madril.
- Garmendia, J. M. (1983): *Historia de ETA*, Haranburu-Altuna, Donostia (1. liburukia).
- Gil Araújo, S. (2006): *Las argucias de la integración. Construcción nacional y gobierno de la social a través de las políticas de integración de inmigrantes. Los casos de Cataluña y Madrid*, UCM, Madril.
- Ikuspegi – immigrazioa (2011a): "Migrazio-fluxuen *urrezko hamarkada*", *Immigrazioaren begirada*, **38**, <<http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/pan38eusweb.pdf>>.

- Ikuspegi – immigrazioa (2011b): “Atzerritar biztanleria EAEn 2011”, *Immigrazioaren begirada*, **40**, <<http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/pan40eus.pdf>>.
- Jáuregui, G. (1981): *Ideología y estrategia política de ETA*, Siglo XXI, Madrid.
- , (1996): *Ciudadanía multicultural. Una teoría liberal de los derechos de las minorías*, Paidós, Bartzelona.
- Kymlicka, W. (2003): *La política vernácula. Nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*, Paidós, Bartzelona.
- López Sala, A. M. (2005): *Inmigrantes y Estados: la respuesta política a la cuestión migratoria*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Nimni, E. (1999): “Nationalist multiculturalism in late imperial Austria as a critique of contemporary liberalism: the case of Bauer and Renner”, *Journal of Political Ideologies*, **4 (3)**, 289-314.
- Ruiz Olabuénaga, J. I. eta Blanco, M^a C. (1994): *La inmigración vasca. Análisis trigeneracional de 150 años de inmigración*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Sartori, G. (2003): *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo, extranjeros e islámicos*, Taurus, Madrid.
- Sayad, A. (2010): *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Shafir, G. (1995): *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*, State University of New York Press, Albany.
- Triandafyllidou, A. (1998): “National identity and the ‘other’”, *Ethnic and Racial Studies*, **21: 4**, 593-612.
- Yuval-Davis, M. (2010): “Etnicidad, relaciones de género y multiculturalismo”, in P. Bastida eta C. Rodríguez (ed.), *Nación, diversidad y género. Perspectivas críticas*, Anthropos, Bartzelona, 64-88.
- Zabalo, J. (2006): “Nacionalismo vasco: el discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica”, *Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, **5: 1**, 83-94.
- Zabalo / Basterra / Iraola / Mateos (2010): *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*, GITE-IPES, Bilbo.
- Zapata-Barrero, R. (2004): *Multiculturalidad e inmigración*, Síntesis, Madrid.
- , (2008): *La inmigración en naciones minoritarias. Flandes, Quebec y Cataluña en perspectiva*, Icaria, Bartzelona.
- Zizek, S. (1998): “Multiculturalismo, o la lógica cultural del capitalismo multinacional”, in F. Jameson eta S. Žižek, *Estudios Culturales. Reflexiones sobre el multiculturalismo*, Paidós, Buenos Aires, 137-188.

3. Estatua, hezkuntza eta euskal herritarrak

Txoli Mateos González, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Hezkuntza-sistemaren norabidea nazio-arazotzat jotzen da egungo gizarte demokratiko guztietan, eskolari egokitzen baitzaio, langile gaituez gain, herritar arduratsuak eta nazioko kideak sortzea. Hiru zeregin eransten zaizkio etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalari. Batetik, hezkuntza- eta ikerkuntza-sare nazionala sortzea, euskal gizarteak nozitzen duen banaketa administratiboa gaindituz. Bestetik, Euskal Herriko ikasle guztiei heziketa zibiko-morala helaraztea, euskal herritartasuna sendotze aldera. Egitura politikoarekiko leialtasuna eta nazioarekiko maitasuna lantzeaz gain, balio demokratikoak babesten dituzten herritarrak sortu behar ditu biharko euskal eskolak. Eta, azkenik, euskal herritarren integrazioa helburu hartuta, kultura-aniztasun zaharrari eta berriari erreparatu beharko die eskolak, egoerarik ahulenean dagoen euskal kulturari tratu berezia emanaz, ordea.

State, education and the basque citizen

The direction taken by the school system is recognised as a "national issue" in all modern democratic societies, since it is the job of the schools to produce not only a skilled workforce but also responsible citizens and members of the nation. A future Basque National Education System will have three new tasks. One will be the creation of a nationwide education and research network to remedy the difficulties faced by present-day Basque society on account of current administrative divisions. Another will be to provide all the students of Euskal Herria with civic and moral training in order to strengthen their sense of Basque citizenship. The future Basque school system will not only need to instil into students a sense of loyalty to political institutions and a love of their nation, but also to produce citizens who will defend democratic values. Thirdly, in order to achieve the integration of Basque citizens, schools will need to acknowledge both old and new cultural diversity, while giving pride of place to Basque culture given its vulnerable situation.

1. NAZIOA, ESTATUA ETA HEZKUNTZA

Izatez, hezkuntzaz berba egin ahal izan da *hautzaro* kontzeptua sortu zenez geroztik, eta hori gizarte modernoari dagokio. XVI. mendetik aurrera hasi zen itxuratzen, familiaren garapenari loturik. XVIII. mendetik aurrera hedatuz joan zen hezkuntza-sistemaren sorrera hezkuntzarekiko ardurarekin harremanetan ipini behar da. Ardura horrek gaur egunera arte iraun du eta ez dirudi bere indarra galtzeko zorian dagoenik, alderantziz baizik. Horrela, alfabetatze unibertsala eta hezkuntzarako eskubidea balio modernoak dira, eta haien beharrez oso gutxitan jartzen da kolokan. Aipagarriak dira, zentzu horretan, eskubide horren aldarrikapenak jasotzen duen gizarte-kontsentsu zabala eta gizarte desberdinetako hezkuntza-sistemek erakusten duten homogeneotasun maila. Are gehiago, Mendebaleko gizarte guztietan aspalditik, eta munduan zehar sortu diren estatuetan, berriki, oinarrizko hezkuntzarako eskubidea *betebehar* bihurtu da, herritartasunari loturik doazen gainerako eskubideak ez bezala (botoa ematearena, kasu), zeintzuetan eztabaida eta oztopo gehiago agertzen baitira.

Ezein azpikomunitatek ez duenez zeregin hori betetzeko gaitasunik, estatuak hartzen du bere gain eskubidea legez bermatzea, eta garrantzitsuena dena, estatuaren beraren ezaugarri bilakatzen da, hezkuntza-sistemak betetzen dituen funtzio sozialek, ekonomikoek eta politikoez, funtsean, gizartearen biziraupena ziurtatzen dute eta. Bestela esanda, herritarren bizi-baldintzen eta integrazio soziopolitikoaren babesle da estatua, eta zeregin horri hezkuntza-sistema *nazional* baten bitartez ekiten dio (Gellner, 1988: 52).

Egun ezagutzen dugun *nazio-estatu* gorpuztu arteko bidea luzea izan zen. XVI. eta XVII. mendeetan hasi zen ernaltzen eta prozesuaren ondorioz *nazioaren interesak* aldarrikatu ahal izan ziren, eta, estreinako aldiz, gizartea zerbait bateratutzat jo zen. Apurka-apurka indartuz joan zen estatua *nazio-termino*etan legitimatu beharra, estatuari derrigorrezko egin baitzitzaion herritarren leialtasuna irabaztea aurrean zituen exijentziak bete ahal izateko: zergak ezartzea eta armada eratzea.

Estatuak beretzat erreklamatzeko duen nazio-estatu izaeran *nazioa* eta *estatuko biztanleria* parekidetu dira, eta parekidetasun hori gauzatzeko, herritarren *integrazio-politika deliberatuari* ekin zaio: nazio-identitatearen sinboloak sortu dira eta hezkuntza-sistema eraiki da, zeinak umeei nazio-identitate sentimendua igorri, historia irakatsi eta —zuzenean ala zeharka— abertzaletasuna sorrarazten dien.

Ez da kasualitatea, horrela, XIX. mendea *haurraren mendea* eta *nazionalismoaren garaia* izan zirela esatea, zeren eta alderdi bi horiek erabat loturik ageri baitzaizkigu orduetik hona. Estreinako aldiz, hezkuntza *denon arazotzat* jo zen eta haurra zaindu beharreko ondare publiko ere bihurtu zen. Arian-arian nazio-estatuaren agintea gailendu zitzairen gainerako gizarte-talde guztiei (batez ere, familiari eta Elizari). Izan ere, hezkuntza-sistema publikoen garapena estatu modernoaren erakuntza-prozesuarekin harremanetan bakarrik uler daiteke. Prozesu horrek ez du soilki islatzen gobernuaren aparatu administratiboak eta politikoak abian jartzea. Ideologia eta uste kolektiboak ere garatu ziren, eta horiekin batera, naziotasuna eta

nazio-izaera: *sozializazio politikorako plangintza indartsua* deitua izan da (Smith, 1991).

Nazio-estatu moderno guztiek hartzen dute hezkuntza zeregin nazionaltzat, hau da, berebiziko garrantzia emanez, nahiz eta eredu desberdinak garatu diren, estatuaren autoritateak eta ezaugarriek baldintzaturik. Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan, adibidez, *gizarteko kidesuna* garatu da, estatuaren autoritatea ahula zelako; eta Frantzia eta Espainian, bestalde, *estatuko kidesuna* gailendu da, estatuaren autoritatea eta zentralismo maila handiak izan direlako (ik. Ramirez/Boli, 1999). Hain da sakona gizakiari exijitzen zaion alfabetizazio eta gaitasun teknikoaren maila non, hezkuntza-sistema *nazional* batek baino ezin baititu bete hezkuntza-ardurak (Gellner, 1988: 52). Hori horrela, gizarte modernoetan estatuaren ardurapean geratu dira hezkuntza mota guztiak, eta Administrazioari dagokio herritar guztiek duten hezkuntzarako eskubidea bermatzea, horretarako kontrola ezarriz eta diru-laguntzak bideratuz.

Hezkuntza mota guztiak estatuaren ardurapekoak izateak ez du esan nahi irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren arteko mugak ezabatu direnik, baina, nola edo hala, esan liteke lausotzen ari direla irakaskuntza pribatuaren eta publikoaren arteko muga zurrinak, beste garai batean eta herrialde batzuetan, bederen, eztabaidaezinak ziruditenak. Neurri batean, muga horiek estatuaren beraren ezaugarrien bilakaerarekin bat etorri dira, nazio-estatu modernoaren etengabeko aldaketak jasotzen ari baita, jaso ere. Hala, XX. mendearen erdialdetik aurrera, *ongizate-estatu* bihurtu zen Mendebaldeko gizarte aurreratuetan, eta azkenaldi honetan *merkatu-estatu* batez hitz egiten da; hau da, arlo ekonomikoaren arauketan ez ezik, haren norabidean ere bete-betean parte hartzen duen Administrazioaz ari gara. Horrekin batera, irakaskuntzari *publiko* izaera ustez ematen diona, alegia, herritar guztiei irekia izatea —edozein delarik herritarraren jatorri soziala— gero eta gehiago jartzen da zalantzan, merkatuaren beharrezanetara makurtuta, bikaintasunaren bila ari direlarik, selekzio zurrunekeo gune bihurtzen baitira hainbat ikastetxe publiko. Hori, batetik. Baina, bestetik, gorago adierazi bezala, Administrazioaren eragin zuzenik ez duen hezkuntza-sistema pribatuaren diru-laguntza sistema eskergak ere areagotzen du aipatutako muga horiek gero eta *porotsuagoak* izatea²¹.

2. HEZKUNTZA-SISTEMA NAZIONALAREN ZEREGINAK

Aurreko gizarteetan ez bezala, hezkuntza-sistema oinarriko irakaskuntzatik unibertsitatearainoko instituzio bakar eta mailakatua izan behar dela uste da, eraketa burokratiko eta arrazionalizatuaren ezaugarriak ere jasoz haren kudeaketan. Gaur egun, gizarte moderno guztietan hezkuntza gai estrategikotzat eta arazo publikotzat jotzen da, eta haren norabidea eztabaida politiko eta teorikoen erdi-erdian kokatzen da.

XX. mendearen amaieran antolaketa demokratikoaren oinarri filosofikoak berraztertzea dakarten zenbait mugimendu hauteman daitezke. Batetik, Berlingo

21. Gai honen inguruan, ik. Oberti, 2005. Mendebaldeko herrialde batzuen hezkuntza-sistemen arteko azterketa konparatiboa ikus daiteke bertan.

Harresiaren eraispena. Komunismoaren gainbeherarekin batera, demokraziara hurbiltzen hasten diren herrialde europarren beharrak somatzen hasten dira, eta horiek denek eragiten dute Europa mailan berebiziko arreta jasotzea hezkuntzak eta herritarrak demokrazian trebatzeko hezkuntza zibikorako programek. Aldi berean, Estatu Batuetan eta Kanadan liberalismoaren ikuspegi indibidualista krisian sartzen da eztabaida filosofiko eta politikoaren eraginez, eta horren ondorioz ere, demokraziaren funtsa berrikusi eta indartu beharra aldarrikatzen da pentsalari andana baten eskutik. Azkenik, harreman ekonomiko globalizatuak eta etengabeko migrazio-prozesuek ere bultzatzen dute hezkuntzak hezi beharreko herritarraren ereduaz gogoeta egitera (ik. Naval, 2003). Hartara, heziketaren zeregin nagusia haurra gizarteko kide izateko trebatzea bada ere, demokrazia liberala nagusitzen den gizarte aurreratuetan etengabeko eztabaida eragiten du antolaketa demokratikoari leial zaizkion herritarrak eta harreman ekonomiko berri eta globalizatuetan aritzeko gai diren langileak hezi beharrak.

Zeregin hirukoitza eskatzen zaio eskolari —eta, ondorioz, agente publikoari—:

- a. Ezagutzaren gizartean, zientziaren garapenean parte hartzea. Hirugarren Industria Iraultza deitu den horretan, lan-kualifikazioan sakontzea.
- b. Bizitza politikoan parte hartzeko gai diren herritarrak sortzea, hau da, erantzukizun zibikoa transmititzea.
- c. Nazio-harrotasuna, nazio-kultura eta nazio-komunitateko kidesun-sentimendua errotzea, eta aldi berean, kultura-aniztasunari begirunez erreparatzea.

2.1. *Gizartearen egitura sozioekonomikoari dagokion zeregina: heziketa zientifikoa eta teknikoa*

In South Korea, teachers are known as nation builders. Here in America, it's time we treated the people who educate our children with the same level of respect. (...) we want to prepare 100.000 new teachers in the fields of science, technology, engineering, and math. In fact, to every young person listening tonight who's contemplating their career choice: If you want to make a difference in the life of our nation; if you want to make a difference in the life of a child, become a teacher. Your country needs you (Barak Obama, AEBko Kongresua, 2011-01-25).

Izan ere, jakina da hezkuntza-sistemaren sorrera, nazio-estatuarekin ez ezik, antolaketa ekonomiko kapitalistarekin ere harreman estuetan egon zela. Industria-entresaren sorrerak, bestek beste, eragin zuen eskolak haurtzaroaren sozializazio *ekonomikoa* bultzatzea, alegia, lantegirako atari bihurtuta, sistema ekonomiko berrian behar ziren gutxieneko ezagutzak eta jarrera egokiak helaraztea. Mende bitan zehar, askotarikoak izan dira hezkuntza-sistemaren eta sistema ekonomikoaren edota lan-merkatuaren artean garatu diren harremanak, baina, oro har, gizarte-zientzialari askok oso ikuspegi kritikoa plazaratu dute harreman horren inguruan. Eskolak ez omen du *benetan* lanerako hezten, sistema ekonomiko kapitalistaren morroi baino ez baitu egiten ikaslea. Langileak behar duen formazioa, beraz, eskolatik kanpo eskuratzen du. Hala ere, eskolak badu harreman zuzen bat sistema ekonomikoaren

birprodukzioan gizarte-desberdintasunak zilegitzat harrarazten dituenean... Luze joko luke hari horri tiraka dagoen gogoeta sorta deskribatzeak. Horietako batzuk zeharo emankorrak izan dira hezkuntzaren azterketan. Nola edo hala, hezkuntzaren funtzio ekonomikoari garrantzia kendu eta nabarmendu nahi izan dira zeregin ideologikoak, eskolak ahalmen gutxi zeukalakoan lan-indarraren kualifikazioan.

Edonola ere, egungo sistema kapitalistaren antolaketak aldaketa esanguratsuak ekarri ditu hezkuntza-sistemari egiten zaizkion eskakizunetan. Informazioak, eza-gutzak, eta langileen kualifikazioak hartzen duten pisuari erreparatuz gero, hezkuntzak zeregin ekonomiko argia betetzen du; inoiz baino gehiago, gehi zitekeen. *Hirugarren Industria Iraultzak* teknologia eta zientzia ditu oinarri gisa, eta hortik ondorioztatzen da *ezagutzaren gizartea* delako honetan, kualifikazioaren garrantzia ikusgarri hazi izana. Informazioaren eta ezagutzaren erabilera intentsiboak ahalbidetzen du, besteak beste, maila handian koordinatu ahal izatea lana, lantegiaren agertokitik haratago. Lanbideak indartu egiten dira eta desplazatu egiten dituzte kualifikaziorik gabeko langileak eta azken horiek etengabeko lehian sartzen dira euren lana ordezkia lezakeen makinarekin. Baina kualifikazioa, oinarri-oinarrian, hezkuntza-aukeren eta eskolaren funtzionamenduaren menpe dago. Hori horrela, bai sistema ekonomikoak bai eta norbanakoek eurek ere exijitzen diote eskolari —eta, ondorioz, estatuari— etorkizuneko langileen gaitasunean sakondu dezala (ik. Fernández Enguita, 2001).

Nazio modernoek dituzten beharrian sozial ugari asetzen ditu hezkuntzak, hala nola zientziaren garapena, adituen prestakuntza teknikoa, kulturaren eta artearen bilakaera, hizkuntzaren transmisioa eta zaintza... hezkuntza-sistemaren jardunari erants dakizkiokeen hamaika akats eta kritikarekin batera, hortaz, ezin zaio muzin egin errealtate bati: eskolak gizartearen aurrerapenean eta herritarren ongizatean sakontzen du. Gizarte demokratikoetan, alta, ez da uste edozelan bete behar duenik zeregin hori, eskolak bestelako erantzukinak ere baditu eta.

2.2. Gizartearen antolaketa demokratikoari dagokion zeregina: heziketa zibikoa eta morala

Ez dago baliorik transmititzen ez duen hezkuntzarik; beraz, hutsala da eztabaidatzea eskolak baliorik transmititu behar duen edo ez. Are gehiago, eskolen arteko diferentzia bakarra izaten da batzuek zintzoki eta esplizituki adierazten dutela nolako balio multzori eusten dioten, eta beste batzuek ez dutela halakorik egiten. Zenbaitetan, haiek ere ez direlako jabetzen baina, beste batzuetan, aldiz, komunitatearen balioak alboratuz, irakasleen euren balioak lantzen direlako (Etzioni, 1999: 219).

Horrela, gaur egun, gero eta argiago hitz egin eta eztabaidatzen da eskolaren funtzio moralaz: balioetan oinarrituriko irakaskuntza zertan datzan hausnartzen da. Erliioaren protagonismoaren galerak, batetik, apurka-apurka jardun demokratikoaren baldintzetara moldatu beharrak, bestetik, eta etenik gabe haziz doan kultur-aniztasunak, azkenik, eragin dute kezka zabala egotea gure artean herritarren heziketa zibikoaren inguruan. Nolako herritarra izango da bihar egungo haurra? Eta zer dagokio egitea Administrazioari? Horiexek dira galderak, ezinegon sakona adierazten dutenak, erantzun errazik ez baitute aurkitzen.

Izan ere, ezin daiteke aurkitu adostasun handirik heziketa zibikoa —edo herritartasunerako hezkuntza— zehazteko orduan. Bizitza politikoa aritu ahal izateko gutxienerako tresnak helaraztea da, ikuspegi minimalista batzuetan; beste muturrean aurkitzen ditugu bertute zibikoez hornituriko herritarrak sortu behar direla uste dutenak, maximalismo nabarian. Eta badaude ere nolabaiteko erdigunean geratzen direnak, justiziari buruzko gogoeta arrazionala besterik ez dela bilatu behar esatean.

Liberalismoaren ikuspuntutik, hartara, gizakiaren autonomia balio gorena da, eta, ondorioz, zeregin nagusia iritzi propioak dituen herritarra, hots, erabaki inpartzialak hartzeko gai den herritarra, sortzea da lehentasuna. Baina liberalismoari kritika egiten dioteneak, bai ikuspegi errepublikanoetatik bai ikuspegi komunitaristetatik, eta baita, oro har, liberalismoari zenbait zuzenketa egin nahi dioteneak ere, zera diote: gakoa ez dela *errespetua*, baizik eta *bertutea*, herritar bertutetsuak bakarrik konprometitzen direlako komunitatearen ongizatean. Estatuak —Administrazioak— gizartea hezteko ardura du eta, zentzu horretan, esan ohi da ikuspegi horiek *perfekzionistak* direla. Eta badaude ere, demokrazia sakontzeko gogoeta honetan, uste dutenak konfiantza handiegia jartzen dela hezkuntzan espiritu zibikoaren eraikuntza lortze aldera. Izan ere, diote, herritarra *herritar legez jardunez* egiten da, eta ez heziketa formalaren bidez. Eskubideak eta betebeharrak ezagutu baizik egiten ez dituen herritarraren orde, *demokrazia indartsuak* herritar saiaturia behar du, erantzukizunak hartzeko prest dagoena (Barber, 2004).

2.3. Gizartearen nazio-identitateari dagokion zeregina: heziketa zibikoa eta nazionala

Egungo gizarte modernoetan indarrean dauden ideia nagusietako bat da gizakiaren arteko berdintasuna. Teoria mailan, gutxienez, ondo sustraitutako ideia da hori, zeinak errotik deslegitimatzen baitu gizakiaren arteko bereizketarik egiteko edozein saio. Nola edo hala, *denok gara herritar* lemapean dihardu Administrazioak, besteak beste, eta ideia horri esker ahalbidetzen da ongizate-estatuak eragiten dituen gizarte-beharrizanei erantzutea²².

Hala ere, eta aldi berean, estatuak irmoki defendatzen ditu nazio kultural bati dagozkion hizkuntza eta ohiturak, hau da, tradizio kultural jakin bat babesten du, beste batzuen kaltean. Horrela, herrialde zibiko *puruenetan* ere nazioaren historia eta kultura goresen dira, eta nazioaren hizkuntzaren edo sinboloen irakaskuntza bultzatzen da (Llobera, 2001).

Ezinbestean, erabaki kultural batzuk hartzen ditu estatuak, eta horien artean nagusietakoa, eskolan erabili beharreko hizkuntzari dagokio, Will Kymlicka-k adierazten duen moduan:

Quando el gobierno decide la lengua de la escolarización pública, proporciona lo que probablemente sea la más importante forma de apoyo que necesitan las estructuras culturales, ya que garantiza la transmisión de la lengua, así como sus tradiciones y convenciones asociadas, a la siguiente generación (Kymlicka, 2003a, 1. bol.).

22. Gogoratu besterik ez dago zein sonatua izan zen Espainiako Gobernuak sustatutako iragarki bat «Hacienda somos todos (Denok gara Ogasuna)» zioena.

Guztiz ezaguna da, ildo horretan joanda, nola jokatu duten nazio-estatu guztiek. Izan ere, nazio-estatuaren garapena prozesu bikoitz baten emaitza gisa ulertu behar da: batetik, herritarren homogeneousutasun kulturala lantzea, eta bestetik, herritartasun-sentimendua sendotzea, eta hori guztia curriculum estandarizatuaren bitartez eta hizkuntza bakarra ezarriz lortu zuen. Emaitza, esan bezala, estatuko herritarren homogeneousutasun kulturala da, eta horrela ulertu ohi dugu gaur egun, joera baitugu pentsatzera herrialde bateko herritar guztiak kultura berekoak direla.

Baina, globalizazioaren eraginez sortutako immigrazio-mugimendu berrietatik ondorioztatu da herritar guztiek ez dutela beren burua ikusten islaturik kultura nagusi eta ofizial horretan, eta, halaber, tirabira bat baino gehiago kudeatu behar izaten dira (ik. Taylor, 2003). Kultura-aniztasunaren markoan, eztabaida sakonak garatzen dira gaur egun hezkuntzaren norabidea ezartzeko orduan; hezkuntza-sistemari egokitu zaio zeregin garrantzitsu bat, belaunaldi gazteen akulturazioaz gain, demokraziak behar dituen herritar arduratsuak sortu behar baititu. Horrela, kritika bat baino gehiago jasotzen ditu muturreko liberalismoak, ez delako nahikoa aukeratzeko askatasuna lantzea: identifikazioa behar-beharrezkoa da, ordea. Politika demokratikoak identifikazio horien gainean eraikitzen dira, eta herritarrak errazago inplikatzeko dira justiziaren bilaketan.

Así como amamos a nuestros hijos (biológicos o adoptados) más que a los de nuestros amigos porque son parte de nuestra familia, valoramos diferencialmente las orientaciones culturales de nuestro país porque son nuestras. No necesitamos aducir superioridad moral para decir esto. Sólo es necesario decir que algunas formas de vida son mejores que otras para nosotros y nuestros hijos porque estas orientaciones dan sentido y enriquecen la vida interna de la familia y la sociedad (Gutmann, 2001).

Hainbat irtenbide planteatzen dira kultura- eta ikuspegi-aniztasun horren kudeaketari begira. Egoera eta eztabaida zinez konplexuak larregi sinplifikatzeko arrisku nabaria dagoen arren, zilegi bekigu hiru multzo nagusitan aurkeztea:

- *Kultura-artekotasuna*, kultura desberdinen arteko elkarbizitzatik sintesiaren eraikuntza nabarmentzen duena, nolabaiteko kosmopolitismo baten esku-tik. Hezkuntza kosmopolitaren helburua, horrela, herritartasun unibertsala bultzatzea litzateke, lokalismoak alboratuz eta gizaki guztion arteko loturak indartuz. Munduko herri guztien arteko konpromisoaz ohartarazi behar dira haurrak eta, hori lortze aldera, irtenbide bakarra kosmopolitismoari eustea da, alegia, nazio-estatuaren mugak gainditzea. Kosmopolitismoari ezaugarri jakinak eransten zaizkio, ordea, zenbaitetan zeregin moralez bete nahi baita eta ihes egin gura baitzaio unibertsalismo abstraktuari. Hortaz, kosmopolitismo humanista, zibikoa, sustraitua... eta abarreko izenondoak jasotzen ditu (Cortina, 2009; Nussbaum, 2005; Rosales, 2000).
- *Multikulturalismoa*, talde guztien arteko elkarbizitza sustatuz, gutxiengoaren eskubide kultural eta nazionalen alde jokatzeko duen jarrera liberala, kosmopolitismoaz mesfidati. Liberalismoari zuzenketa eginez, hauxe diote: kultura partekatzea, alegia, identitatea partekatzea, eremu publikoan nagusitu beharreko justizia- edo tolerantzia-irizpide batzuk partekatzea baino gehiago

da. Kymlicka-k ohartarazten duenez, printzipioak partekatzea ez da nahikoa autogobernu-eskaerei aurre egiteko, adibidez.

El hecho de que dos grupos nacionales compartan los mismos principios de justicia no necesariamente les proporciona una sólida razón para permanecer unidos y no dividirse en dos países diferentes, puesto que cada grupo nacional puede aplicar esos principios en su propio Estado independiente (Kymlicka, 2003b: 342).

- Multikulturalismo erradikalaren ustezko arriskuez ohartarazten duen *jarrera komunitarista, nazionalista* zein *errepublikanoa*. Kexu agertzen dira, hortaz, multikulturalismoak belaunaldien arteko kultura igortzea babestu nahi delako, eta, hortaz, eskola barruko aniztasuna bultzatzen delako. Jarrera horren kontra argudiatzen da eskoletan *nazio-identitate komuna* birproduzitu behar dela, herritartasun demokratikorako hezteaz gain.

De esto se sigue que las escuelas deben ser públicas en su carácter, deben ser lugares en los que los miembros de distintos grupos étnicos estén juntos y se les enseñe en común. Esto no significa prescribir a las escuelas cómo organizarse y financiarse, sino que sean culturalmente inclusivas y no de naturaleza sectaria. En consecuencia, debe haber algo como un currículum nacional, un cuerpo central de materiales que todos los niños deberían asimilar... (Miller, 1997).

Hartara, kultura-identitate komuna, hots, hizkuntza eta historia partekatuak, funtsezkoak dira gizarte demokratikoek behar dituzten erantzukizuna eta parte-hartze politikoak bermatzeko. Batzuetan eskatzen zaizkigun sakrifizioa eta konpromiso morala askoz egingarriagoak dira nazio-komunitateko kide sentitzen garenean, hots, nazioa maitatzen dugunean. Horrek eragin zuzena du hezkuntza-sistemak transmititu behar duen curriculumean:

El principio subyacente que debe orientar a las escuelas y universidades es que es imprescindible que quienes se gradúen tengan algunos héroes comunes, respeten ciertos símbolos comunes y todos reflejen el núcleo de valores compartidos (Etzioni, 1999).

Nolabaiteko akordioa planteatzen da eskola publikoek curriculumean integratu dezaten nazioaren historia, literatura eta hizkuntza, iraganekoaldi ilunenak ezkutatu gabe, haatik.

3. EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMA NAZIONALA: ONURAK ETA EBATZI BEHARREKOAK

Arestian esan dudanez, egitura politiko batez hornitzen diren nazio guztiek lehentasunezko helburutzat dute berezko hezkuntza-sistema abian jartzea. Euskal Herria nazio modernoaren parean ipintzeak, hortaz, *Hezkuntza Sistema Nazionala* eraikitzea dakar berekin, Euskal Estatu baten agindupean jardungo lukeena.

3.1. *Zatiketa administratiboa gaindituz, hezkuntza- eta ikerkuntza-sare nazionala sortu*

Arrazoi asko direla medio, hezkuntzak polemika ugari eragin izan du azken hamarkadetan —eta egun ere eragiten du— euskal gizartean (ik., besteak beste, Batzuen artean, 1998). Askotarikoak izan dira eztabaida horiek: hezkuntzaren izaera publiko/pribatua, hezkuntza-ereduak, eskola-mapak, eleaniztasunaren planak, bake-rako hezkuntza, immigrazio berriaren eskolatzere-ereduak... eta abar, eta abar. Gai konplexuak dira denak, berezko gogoeta eskatzen dutenak. Hala ere, pentsatu behar dugu gai guztiek oso bestelako trataera eta konponbidea izango luketela hezkuntzaren norabidea Euskal Herriko aginte politikoaren esku balego, hots, euskal herritarren esanetara makurtuko litzatekeen aginte demokratiko baten testuinguruan. Hartara, euskal gizarte demokratikoan Euskal Estatu baten ardurapean jardungo lukeen hezkuntza-sistemak errotiko eragozpen batzuk ezabatuko lituzke, eta horrek onura ukazina ekarriko lioke euskal gizarteari. Esan gabe doa onura horien artean legokeela nozitzen dugun banaketa administratiboa gainditzea, Euskal Herriko eskola hiru administratziotan zatikaturik baitago, horrek dakarren guztiarekin.

Euskal Estatura bidean, lehentasun osoa izan beharko luke nazio mailako ekimenak bultzatzeak, baina ahalegin horretan ez dira gutxietsi behar euskal lurraldean zehar dauden desberdintasunak. Hezkuntza-sistema nazional batez ari garelarik, beraz, saihestezina da gutxieneko homogeneotasuna bermatzea, baina horrekin ez dira ezabatzen ez bazterten lurralde bakoitzak eduki litzakeen bereizgarriak; alegia, errealitateari bizkar ematea litzateke Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria hezkuntza-egoera bertsuan baleude bezala aritzea. Desberdina da, ildo horretan, tokian tokiko hezkuntza-eskumen maila. Ipar Euskal Herriarekin alderatuz gero, ezaguna da Hegoaldeko administrazio autonomiko biek eskumen maila esanguratsua eskuratu dutela, nahiz eta, gaur gaurkoz, gobernu zentralak beretzat gordetzen duen curriculumaren oinarritzko ezaugarriak erabakitzeke ahalmena. Funtsezko ezintasun horretan hiru lurraldeak berdinduta daudela esan liteke. Hori unibertsitatez besteko irakaskuntzari dagokionez, baina antzera gertatzen da gainerako maila eta arloetan. Alde batetik, euskal lurraldean dauden unibertsitateen norabidea eta politika zientifikoaren ildo nagusiak ez dira erabakitzen euskal gizartean. Bestetik, gaur gaurkoz, Europa mailan ikasleen mugikortasuna izugarri errazten ari den garaian, traba administratibo gaindiezinak aurkitzen dituzte Ipar Euskal Herriko ikasleek Hegoaldeko unibertsitateetan normaltasunez matrikulatu ahal izateko. Dударik ez dugu Euskal Estatu batek bermatu egingo lukeela hezkuntza- eta ikerkuntza-sare nazionala sortzea, euskal gizarte modernoaren aurrerapenerako eta euskal herritarren zerbitzurako.

Baina, logikoa denez, hezkuntzari buruzko eztabaidetan ez dira islatzen bakarrik gobernu zentralaren, administrazio autonomikoaren eta hezkuntza-eragileen arteko diferentziak: gizartearen beraren —hots, euskal herritarren— aniztasuna ere ageri da horietan, ordea, eta, beraz, euskal administrazioak ikuspegi desberdinak ere kudeatu beharko ditu eta zenbait arazo ebatzi, halabeharrez.

Bidean gainditu beharrekoak kontuan hartzeaz gain, argi samar dago hiru hezkuntza-errealitate administratiboak batuko lituzkeen aginte politiko batez

jabetzeak onura adierazgarriak ekarriko lizkiokeela euskararen egoerari, eskola-hizkuntza den neurrian. Jakina da eta esanda geratu da idazlan askotan (ik. adibidez, Odriozola, 2000) zein puntutaraino den ezinbestekoa horrelako egitura baten bultzada eta babesa euskararen biziraupena ziurtatzeko. Gizarte-eragile askoren iritzi orokortua da gaur egungo hezkuntza-sisteman aplikatzen den hizkuntza-politikak aldaketa sakonak behar dituela eta ez dagoela baliabide politikorik horiei behar den moduan ekin ahal izateko.

Hemen aipatuko ez ditugun zioengatik, euskarak —eskola-hizkuntza gisa— lehentasunezko arreta jaso behar du, zalantzarik gabe; baina ezin da ahaztu euskal herritarrek gaztelania eta frantsesa ere hitz egiten dutela; alegia, euskal herritar guztiak ez garela euskaldunak. Euskal Herriko hezkuntza-sistemak errealitate hori jasoko luke, ez dago zalantzarik. Denen interes praktiko eta emozionalak kudeatu beharko ditu, hortaz, hizkuntza-atxikimenduak bietatik dauka eta. Egoera horren aurrean, joera egokia izan daiteke, euskarari erreferentzia-balioa emanez, herrialde guztietan hitz egiten delako, ikasle guztiek, eskolatzeko-aldia amaituta, gaztelania edo frantsesa jariotasun guztiz ezagutzea.

Hezkuntzako hizkuntza-politikaz gain, egitura politiko propioaren ardurapean aritzeak beste onura esanguratsu bat ekarriko luke: hezkuntza-sistemaren antolaketari buruzko eztabaida sakona, Madril edo Pariseko gobernuen eraginetik aske. Eztabaida hori, egia da, ez litzateke berria gure artean. Gaiak askotarikoak izan dira ildo horretatik jarraituz, baina, agian, hautsak gehien harrotu dituen irakaskuntzaren —eta sare batzuen— izaera publikoa edo pribatua ezartzea izan da eta horren ondorioz egindako hezkuntza-sareen banaketa²³.

Euskal Estatu baten itzalpean, eta hezkuntza-sistema nazionala helburu hartuta, zalantza barik, sakondu egin beharko da delako eztabaidan. Erabaki beharko da, besteak beste, zer-nolako lotura egongo den sare desberdinen artean, nolako estatusa izango duen bertako irakasleriak, zelako zeresana izango duten gurasoek eta ikasleek hezkuntzaren norabidean... argi izanda *azken ardura* etorkizuneko administrazio nazionalak izan behar duela. Hortaz, hezkuntza ez da kontu pribatu huts bat, zenbait ikuspegi liberalek planteatzen duten moduan, ezta ardura administratibo huts bat ere, herritarren borondatea kontuan hartu barik garatzen dena, alegia. Hala ere, Euskal Herrian ez ezik, gaur egun gizarte demokratiko askotan ere indar biziz garatzen den eztabaida dugu hau: nork du eskubidea hezkuntzaren norabidea ezartzeko? Erantzun zaila du galderak, denok dakigun bezala. Euskal Estatuaren administrazioak bidea eman beharko luke gurasoek, irakasleek, ikasleek eta administrazio-arduradunek elkarrekiko konfiantza eraiki dezaten, Euskal Herriko ume eta gazteen hezkuntza onenaren mesedean.

23. EAEn eta Euskal Eskolaren Legearen kariatara bereziki garatu zen eztabaidaren muina, arin laburtuta, hauxe izan zen: batzuek uste zuten hezkuntzari izaera *publikoa* ematen diona Administrazioaren ardura zuzenekoa izatea dela eta, aldiz, beste batzuen iritzi, gurasoek eta gizarte zibilak, oro har, zeresan zuzena izan behar dute hezkuntzaren norabidea ezartzeko orduan, eta horrexek, hain zuzen ere, bihurtzen du *publiko* hezkuntza-ekimen jakin bat. Tartean, zer esanik ez, ikastola-sarearen estatusa zegoen eztabaidan (ikus Batzuen artean, 1998; Mateos, 2000).

3.2. Euskal herritartasuna sendotu: heziketa zibikoaren beharra

Gorago esan dugun moduan, hezkuntzari, akatsak akats, onura asko aurkitzen zaizkio, eta horien artean garrantzitsuenetako bat da hezkuntza-sistemaren ardurapean dagoela etorkizuneko herritarrak egitea, hots, herritartasuna transmititzea gogoeta arrazionalaren eta sentimenduen bidez. Urratsez urrats zehazten joan beharko dugu zein den biderik eraginkorrena helburu horretara heltzeko eta zelako tarteko egoerak sor daitezkeen, baina, gaurdanik esan genezake *euskal herritarrak egitea* dela Euskal Herriko hezkuntza-sistemak izan behar duen helburu nagusietako bat. Horrek esan nahi du gure ume eta nerabeengan gure herriaren egituraketa politikoarekiko *leialtasuna* eta euskal nazioarekiko *maitasuna* landu behar direla. Eta hori inolako beldurrik edo konplexurik gabe adierazi behar da. Lehenik eta behin, horixe delako munduan dauden hezkuntza-sistema nazional guztien xedeetako bat, ez baitago herritartasun unibertsalik transmititzen duen eskolarik, lehenengo atalean ikusten genuen moduan. Bigarrenik, euskal herritartasuna edukiz bete behar duelako hezkuntza-sistemak. Hortaz, herritar arduratsuak eraiki behar dira, balio eta jardun demokratikoak babesten dituztenak, gizarte demokratikoan parte hartzeko prestasuna eta gutxieneko gaitasuna dutenak. Euskal gizartean asko dira demokrazia parte hartzailea gorpuzten saiatu diren herritarrak eta kolektiboak. Hirugarrenik, haien nazioaz harro dauden euskal herritarrak ere egin behar ditu Euskal Herriko hezkuntza-sistemak, alegia, nazioaren sinboloekin eta heroiekin identifikatzen direnak, iragana desitxuratu gabe eta kritikarako gaitasuna eta giza autonomia kaltetu gabe. Nolabait esana, euskal herritartasunak batu beharko lituzke errepublikanismoak, liberalismoak eta komunitarismoak, hurrenez hurren, ezartzen dituzten herritar-ereduetatik zenbait osagai, bilduma honetan beste nonbait agertzen denari jarraituz²⁴.

Baina, heziketa zibikoak, gorago esan bezala, osagai bi ditu, politikoa —edo nazionala, nahi bada— eta morala. Azkenari dagokionez, giza komunitateko kide sentitzen den herritarra bultzatu beharko luke euskal hezkuntza-sistemak, hau da, desberdintasunen ondorioen kontra jotzeko eta diskriminazioa saihesteko prestu dena, eskolari baitagokio gizartean dauden era askotako desberdintasunei aurre egiteko bideak eta balioak argitzea eta transmititzea. Gizarte modernoetan era asko garatu dira herritarren arteko desberdintasunen ondorioak gutxitzeko eta mota askotako diskriminazioa saihesteko. Hor dugu, besteak beste, ezindu, emakume edota homosexual izateak dakartzan kalteak leheneratzeko saio andana, kuotak direla, kontzientziazio-kanpainak direla... Eskolak, batetik, horien guztien oihartzun paregabea izan behar du, desberdin izateak merezi duen begirunea bultzatuz eta unean uneko neurriak landuz, horiei buruz gogoeta arrazionala eginez eta eskolaren eguneroko praktikara eramanez. Bestela esanda, administrazio *perfekzionista* bat irudikatzen dugu, herritar arduratsuak ez ezik, herritar *bertutetsuak* bilatzen dituena.

Horren guztiaren inguruko eztabaida sakon baten beharraz eta konplexutasunaz jabeturik gaude, nola ez. Beharrezkoa litzateke, besteak beste, bertute zibikoak bertute indibidualetatik bereiztea, baina, oro har, helburua litzateke arreta handiagoa ematea heziketaren alderdi moralei eta ongizate komunaren bilaketari. Eta hori

24. Ikus «Estatuaz, herritartasunaz eta nazio-identitateaz» izenekoa, Julen Zabalok eta Txoli Ma-teosek egina, atal honetan bertan.

guztia etengabeko eztabaida batez lagunduta egitea, jakinik eztabaidatzea ez dela *hitz egitea* bakarrik, baizik eta ikaslea, herritar legez, ekintza zibiko eta politikorako prestasunaz jabetzea (Peterson, 2011).

Horixe da etorkizuneko Euskal Estatu batek ebatzi beharreko arazo inportanteetako bat; bestela esanda, beharrezkoa izango da diskurtso moral arrazionalizatuaz jabetzea, euskal herritarren hezkuntza zibiko-moralak gogoeta falta nabaria du eta. Batzuetan, ezkerreko ikuspegien kasuan, agnostizismo militante batek eragin du hezkuntzaren helburuei eduki moral mugatu eta jakin batzuk baino ez eranstea, diskurtso moralak ikuspegi kontserbadoreen emaitza gisa alboratuz horrela. Izan ere, gizartean eta hezkuntzaren munduan kultura-aniztasunaz gogoeta egiteko eta alternatibak aurkezteko hausnarketak gero eta gehiago diren arren, ez gara ondo jabetzen delako kultura-aniztasunak, arazo linguistikoez gain, erlijiozkoak eta moralak ere ekar litzakeela²⁵.

3.3. Euskal Herriko hezkuntza-sistema: nazio-kulturaren definizio berria kultura-aniztasunaren markoan

Etorkizuneko Euskal Estatuak, herritarren leialtasun politikoaz eta heziketa moralaz gain, kultura jakin batetiko atxikimendua ere landu beharko du, hizkuntza jakin baten (edo gehiagoren) ezagutza eta erabilera bermatuz, edota adierazpen artistiko jakin batzuk bultzatuz. Gorago esan dugun moduan, hezkuntza-sistemak aukera kulturalak egiten ditu etengabe eta, ezinbestean, lehentasuna ematen die adierazpen kultural batzuei beste batzuen kaltean. Edo, gutxienez, nolabaiteko tentsioa kudeatu behar izaten da.

Urte askoan, etengabeko eztabaida garatu da euskal gizartean kulturari buruz, hizkuntzaz garatutakoarekin batera. Labur esanda, kezka argia nabaritu izan da euskal kulturak —hots, euskaraz garatutako kulturak— behar duen garapenerako politiken eraginkortasunaren inguruan. Sektore zabal bat iritzi berekoa da: euskal kulturak pribilegiozko trataera behar du eskolan bizirik iraun nahi badu. Eta, jakina, jende sektore horren barruan, biziraupen hori nazio-estatu batek baino ez duela bermatuko uste izan dutenak asko izan dira; bestela esanda, gaztelaniaz eta frantsesez garatutako kulturek mendeetan izan dutenaz jabetu beharko luke euskal kulturak²⁶.

Demagun, ordea, helburu hori lortuta dagoela, eta une honetan babes politikoa behar duenak eskuratu egiten duela. Orduan, ebatzi beharreko beste arazo batekin topo egingo genuke, alegia, nolako trataera eman behar dien balizko Euskal Estatu batek gaztelaniaz eta frantsesez garatutako kulturei. Berez, Euskal Herrian hiru

25. Euskal nazionalismoaren kasuan, adibidez, nabaria da kontu moralek —eta erlijiozkoek— eragiten duten arretarik eza eskolaren jarduna hizpide hartuta (ik. Mateos/Zabalo, 2005). Eta, ezkerreko nazionalismoaren kasuan, ikuskera agnostikoak eraginda, arreta falta hori itzelean hazten da, eskolaren beraren jardunarekin batera. Horren adibide da, nire ustez, erlijio katolikoaren ordez eskaintzen den irakasgaiak eduki jakinik ez izatea eskola askotan eta esku-lanak eta antzekoak egiteko erabilia izatea (ik. Mateos, 2008).

26. Esan gabe doa ni ere iritzi horretakoa naizela. Izan ere, horixe da bilduma honetako egileok batzen gaituen *espiritua*: sinetsita gaude behar-beharrezkoa dela estatu batez jabetzea euskal gizarteak dituen beharrezkoak asebetetzeko.

tradizio kultural horiek daude, eta gorago esan dugu euskal herritarrek euskara eta gaztelania edo frantsesa jakin behar dituztela eskolatze-aldia amaitutakoan. Ezinbestean, Euskal Estatuak, nazio-kultura gisako bat ezartzen duelarik, euskaraz beste hizkuntzetan garatutakoak *ere* hartu behar ditu aintzat, eta, nola edo hala, *Euskal Herriko nazio-kulturaren definizio berri bat bilatu beharko du*. Argi eta garbi diogu ez dugula sinesten ustezko neutraltasun edota unibertsalismo kulturalen; baina, aldi berean, uste dugu eskolak ahalegin sendoa egin behar duela euskal herritar *guztion* ezaugarri kulturalak aintzat hartzeko eta babesteko. Euskaraz besteko tradizio kultural horietako emaitza asko —adierazpen literario, artistiko, musikal eta, oro har, intelektualak— euskal herritarren ondare kulturala dira eta eskola behartuta dago horiek lantzerik eta modu egokian transmititzera, hezkuntza-sistemak duen helburu integratzaileari huts egin nahi ez badio. Euskal Estatuak eta gizarte demokratikoak ezin lezakete bestela jardun. Hala eta guztiz ere, denbora luzez egoerarik ahulenean egon delako, euskaraz garatutako kulturak babes berezia merezi luke, bai curriculum adierazian edo ofizialean, baita eskolaz kanpoko ekimenetan ere. Horretarako adostasun zabala bila liteke euskal gizartean, eta aurkitu ezean, landu beharreko gaia litzateke.

Ez da hori, alta, ebatzi beharreko arazo kultural bakarra (inportanteenetakoa bada ere) euskal gizarte modernoan, kultura-aniztasun *zahar* horri azken hamarkadetako kontinenteen arteko immigrazio-oldeek ekarritako aniztasun *berria* gehitu behar zaio eta. Buruhauste bat baino gehiago eragiten ari zaio hau hezkuntza-eragile arduratsu askori eta han-hemenka ugaritu egiten dira gogoetak, ezinegonak, proposamenak... Horiek guztiak norabide desberdinetan garatzen dira, baina, oro har, denek dute ezaugarri komun bat: baliabide politikoak behar-beharrezkoak dira kultura-aniztasunak hezkuntza-sistemari dakarkion problematika egokiro kudeatzeko. Eztabaidak askotarikoak dira, izan ere: ikasle immigranteen artean bultzatu behar den hizkuntza-eredua edota ikasle etorkinak sareen eta ikastetxeen artean banatzeko egokitasuna izan dira, orain arte, ohikoenak. Lehenak, gure ustez, ez du konplexutasun handirik: administrazio politikoak ezartzen dituen helburuak betetzeko moduko irakaskuntza jaso behar du ikasle etorkinak, eta, gaur gaurkoz, hori euskarazko ereduetan baino ez da bermatzen. Bigarrena askoz korapilatsuagoa da, ordea. Labur esanda, alde batetik, saihestu gura da zenbait eskola (batez ere ikastetxe publikoak) etorkinen ghetto bihurtzea eta, beraz, kopuru egokien kudeaketarako ikasleen banaketa arrazional eta planifikatuari ekitea; eta, bestetik, ikasle etorkinen nahiak (bertako ikasleen gurasoekin egiten den bezalaxe) errespetatzea eta ikaslea bere ingurune hurbiletik ez desplazatzea bilatzen da ikasle etorkinen kuotei uko egiten zaienean.

Apurka-apurka, kultura-aniztasun horrek —erlijiozkoak barne— bestelako arazoak azaleratuko ditu eta eztabaida handi bat garatu beharko da euskal gizartean, alegia, nolako lekua eman behar zaien eskolan atzerriko kulturei; edo, bestela esanda, nolako erantzukizuna duen administrazio politikoak talde kulturalen biziraupenean. Jadanik, zenbait proposamen egiten ari dira kultura-aniztasun berria balioetsiz eta kulturen arteko bizikidetzak bermatze aldera, *elkarren aitortza* hobesten dutenak. Horien arabera, adibidez, ikasle etorkinak euskarazko ereduetan matrikulatu beharko lirateke, baina, aldi berean, haien jatorrizko hizkuntzak lekua

izan beharko luke bertan. Hau da, etorkin taldeek onartu beharko lukete Euskal Herrira datozenean kultura eta historia jakin bateko gizartera datozela eta euskal gizarteak onartu beharko luke etorkin taldeek ere historia bat, iragan bat eta kultura bat dutela. Elkarren ezagutza eta errespetua ezarri beharko lirateke, hortaz, ikuspegi multikulturalista baten eskutik (Albite, 2008).

Esan gabe doa ez dela erraz ebazteko gaia. Gizaki eta talde guztien kultura-adierazpenei zor zaien begirune zintzotik abiatuta ere, euskal eskolak oso zail du kultura guzti-guztiak era berean tratatzea, eta, ezinbestean, derrigorlortuta egongo da aukera kultural batzuk egiteko, gorago esan dugun bezala. Apurka-apurka zehaztu beharko dira immigrazio berria integratzeko bideak etorkinen sustrai kulturalak gutxietsi gabe. Edozelan ere, argi dago eztabaida sozial sakona bultzatu behar dela horren inguruan, zeren eta Euskal Estatu demokratiko batek bateragarri egin beharko baititu giza eskubideak, hezkuntza-helburuak eta politika kulturalak. Funtsezkoa izango da, ildo horretan, hezkuntza-sistemaren ekarria, eskolari egokitu baitzaio, neurri handi batez, erabakitakoa praktikara eramatea.

BIBLIOGRAFIA

- Albite, P. (2008): "Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak. Euskal Herriaren erronkak", *Jakin*, **165**, 31-73.
- Barber, B. (2004): *La democracia fuerte*, Almuzara, Granada.
- Barcena Orbe, F. (1995): "La educación moral de la ciudadanía. Una filosofía de la educación cívica", *Revista de Educación*, **302**, 275-308.
- Batzuen artean (1998): *Euskal Eskolaren azken 20 urteak*, Ipar Hegoa / Hik Hasi, Lasarte-Oria.
- Cortina, A. (2009): "Educación para el patriotismo o para el cosmopolitismo?", in A. Cortina (zuz.), *La educación y los valores*, Biblioteca Nueva, 2. arg., Bartzelona, 71-79.
- Etzioni, A. (1999): *La nueva regla de oro. Comunidad y moralidad en una sociedad democrática*, Paidós, Bartzelona.
- Fernández Enguita, M. (2001): *Educación en tiempos inciertos*, Morata, Madril.
- Gellner, (1988): *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madril.
- Guttmann, A. (2001): *La educación democrática. Una teoría política de la educación*, Paidós, Bartzelona.
- Kymlicka, W. (2003a): "Las fuentes del nacionalismo: un comentario sobre Taylor", in R. McKim eta J. McMahanf (zuz.), *La moral del nacionalismo I*, Gedisa, Bartzelona.
- , (2003b): *La política vernácula*, Paidós, Bartzelona.
- Llobera, J. (2001): "Hizkuntzaren indarra identitate nazionallean. Mendebaldeko Europaren esperientzia", *Bat. Soziolinguistikako Aldizkaria*, **39**, 63-81.
- Mateos, Tx. (2000): *Ikastola edo eskola publikoa. Euskal nazionalismoaren hautua*, Euskal Soziologiako Koadernoak 5, Eusko Jaurlaritza, Bilbo
- , (2008): *Alternativa a la "alternativa". La falta de dimensión moral en el discurso educativo del nacionalismo vasco*, I Jornadas de Ciencia Política Crítica, Bilbo (argitaratu gabea).
- Mateos, Tx. eta Zabalo, J. (2005): "Hezkuntzaren helburu zibikoak eta nazionalak Euskal Herriko erakunde abertzaleen esanean", *Uztaro*, **52**, 91-109.
- Miller, D. (1997): *Sobre la nacionalidad. Autodeterminación y pluralismo cultural*, Paidós, Bartzelona.

- Naval, C. (2003): "Orígenes recientes y temas claves de la educación para la ciudadanía democrática actual", *Revista de Educación*, Número Extraordinario *Ciudadanía y Educación*, 169-189
- Nussbaum, M. (2005): *El cultivo de la humanidad. Una defensa clásica en la reforma de la educación liberal*, Paidós, Bartzelona.
- Oberti, M. (2005): "Dynamiques institutionnelles et pratiques scolaires: les frontières poreuses du public et du privé", *Sociétés contemporaines*, **59-60**, 5-11. DOI : 10.3917/soco.059.0005.
- Odriozola, J. M. (2000): *Nazio identitate eta eskola*, BBK/Euskaltzaindia, Bilbo.
- Peña, J. (2009): "El retorno de la virtud cívica", in j. Rubio Carracedo; J. M. Rosales eta M. Toscano Mendez (zuz.), *Democracia, ciudadanía y educación*, Akal, Madril, 99-128.
- Peterson, A. (2011): *Civic Republicanism and Civic Education. The Education of Citizens*, Palgrave Macmillan, Londres.
- Ramirez/Boli (1999): "La construcción política de la escolarización de masas. Sus orígenes europeos e institucionalización mundial", in M. Fernández Enguita eta J. M. Sánchez (zuz.), *Sociología de la educación*, Ariel, Bartzelona, 297-314.
- Rosales, J. M. (2000): "La educación de la identidad cívica. Sobre las relaciones entre nacionalismo y patriotismo", in J. Rubio Carracedo; J. M. Rosales eta M. Toscano Méndez (zuz.), *Ciudadanía, nacionalismo y derechos humanos*, Editorial Trotta, Madril, 117-132.
- Smith, A. D. (1991): *National Identity*, Penguin Books, Londres.
- Taylor, C. (2003): "Nacionalismo y modernidad", in R. McKim eta J. McMahan (zuz.), *La moral del nacionalismo I*, Gedisa, Bartzelona.

4. Herritartasuna gogoeta eta praktika feministan

Mila Amurrio Vélez, Soziologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Artikulu honetan feminismoak, mugimenduan dagoen teoria eta praktika gisa ulertua, herritartasun kontzeptuari buruz ekoizitako funtsezko ekarpen kritikoen berri ematen da. Halaber, horietako batzuk aintzat harturik, ustezko Euskal Estatu batek izan beharko lituzkeen xede kolektiboen iturburuak aldarrikatzen dira: bizitzaren eremu publikoa zein pribatua —etxekoa barne—. Balizko Euskal Estatu hori merkatuari begira barik, bizitza osoari begira jartzea eta, horren ondorioz, herritartasunaren kontzeptualizazio berri bat sortzea proposatzen da; kontzeptualizazio berri horrek eremu biak, publikoa eta pribatua, aintzat hartuko lituzke, eta, horrela, eskubide indibidualen ekoizpena loturik egongo litzateke jardun publikoekin eta pribatuekin: enpleguarekin, politikarekin, bizitza sozialarekin, kulturalarekin, etxeko lanarekin eta zaintzarekin.

Citizenship within feminist theory and practice

This chapter examines some basic feminist critiques of the concept of citizenship, understanding feminism as a body of theory and practice in flux. It defends as a point of departure collective goals which should be taken on by a Basque state if it takes some of these critiques on board, both in public and private/domestic domains of life. It is proposed that a hypothetical Basque state should be oriented not only to commercial interests but to life in its entirety, developing a new way of understanding citizenship which takes account of both these domains, the public and the private, so that the production of individual rights would be associated with public and private activities: employment, politics, social life, culture, and domestic work and maintenance.

1. HERRITARTASUNAREN AUZIA

Herritartasuna desberdinak diren filosofia, ekonomia, politika edota soziologia bezalako jakintza-arloetan egiten ari den debate teoriko baten protagonista bilakatu da. Eztabaida horretan jorratzen diren gaiak askotarikoak dira, hala nola pertsonen identitatea, subjektu morala, partaidetza politikoaren arazoak, ongizate-estatuaren esentzia, gizarte-eskubideen hedapena edota gizarte-politiken helmugak. Teoria politikoak kontzeptuaren askotariko erabilera horren zergatiak azaldu guran arrazoi ugari eskaini ditu, besteak beste, marxismoaren krisia eta demokrazia liberala agertzea gobernu-sistema legitimo bakar gisa (Garcia Guitian, 1999). Demokraziaren gaineko gogoeta da, hortaz, politologoaren funtsezko lan-ardatza, eta testuinguru horretan *ezkerraren* kokapena parte-hartze politiko handiagoko aldarriarekin identifikatzen da, proposamen desberdinetan adierazia izan arren. Beraz, herritartasunaren ezaugarri praktikoen gaineko gogoeta —nortzuk diren herritarrak eta zer eskubide dituzten—, alde aurretikoa den demokraziaren kontzeptualizazio zabal baten baitan burutzen da beti. Demokraziaren inguruko ikuskeren arteko desberdintasunak agerian utziko luke dagoen aldea erregimen demokratikoa definitzerakoan ikuspegi pragmatikoari eusten diotenen (moral liberalari eutsiz dauden ereduetik abiatzen direnak) eta eduki moralago bat ematea hobesten dutenen artean (eredu alternatiboak diseinatzen dituztenak). Agertutako alde horretan islatu daitezke, baita ere, Mendebaldeko tradizio politikoan herritartasuna ulertzeko moduak: dimentsio parte-hartzailea nabarmentzen duena, eta estatus juridiko gisa ulertzen duena, biei zenbait egilek printzipio moralak gehitzen badizkiete ere (bertute zibikoak, herritar ona izatea).

Kontzeptualizazio legal horren arrakasta eta instituzionalizazioak, bai eta zenbait dimentsio parte-hartzailerena ere, demokrazia liberal modernoetan ekarri du dagoen errealitatearen testuingurutik abiatuta bideratu ahal izatea haren analisisa eta eztabaida. Ildo horretan onarpen handiena lortu duen definizioa T. H. Marshall-ek 1949an eskainia da: herritartasuna lege-estatus gisa, zeinak eskubide zibil, politiko eta sozialak bermatzen baititu. Azken horrek eztabaidak garatzen diren marko teorikoa mugatu du, hein handi batean. Horrela, bestelako debate teorikoak agerian utzi ditu, esaterako ongizate-estatuaren krisiak eta errekonozimendu-politikaren eskariek eratorriak: herritartasunak berezko dituen eskubide motak eta haien edukia. Horrela, *eskuin berriak* betebeharrak azpimarratzen ditu, norberaren bizibidea irabazteko erantzukizun indibiduala eta gizarte-eskubideak murrizteko premia nabartuz. Berriz, kokapen erradikalagoetatik egungo eskubideak nahiko ez izatea salatzen dute: *feministek* ugalketa-eskubideak aintzat hartuak izatea eskatzen dute, bai eta berdintasunezko herritartasuna lortu ahal izateko gizarte-eskubideetan sakontzea ere; eta, *pluraltasunaren defendatzaileak* zenbait talderentzat eskubide kultural espezifikoak eta bereiziak sartzearen alde agertzen dira.

Bestalde, migrazioak, estatuaren gaineko egituren sorrerak, Europaren batasunak, aldarrikapen nazionalisten erradikalizazioak eta globalizazio-prozesuen perzpezioak nazio-estatuaren komunitate politikoaren muga tradizionalen berrikusketa ekarri dute. Naziotasunaren eta herritartasunaren arteko parekotasuna krisian dago. *Demos* osatzen duten komunitate politikoko kideak, herritarrak, nortzuk

diren eta nortzuk izan beharko liratekeen eztabaidan jartzen da, baita gizarte pluraletan zein izan beharko litzatekeen herritar horien estatus juridiko, politiko eta soziala ere. Berrero ere, proposamenak hartutako ikuspegi arabera dira: liberalek konstituzioarekiko abertzaletasuna defendatzen dute, pluralista kulturalak herritartasun desberdindua aldarrikatzen dute, eta nazionalistek bat egiten dute herritartasuna integratzailea den identitate partekatuarekin.

Edozein dela egindako hautua, *herritartasunaren kontzeptuak* beti dakar mugak ezartzea *demos* osatzen duten komunitate politikoek kide izateko eta kide izateko horretatik at gelditzeko, bai eta herritar estatus horri atxikirik doazen eskubide, betebeharrak eta aukeren gaineko erabakiak hartzea ere.

2. BEGIRATU FEMINISTA HERRITARTASUNARI

Herritartasun kontzeptuak mugak ezartzean eta borrokan emaitzak diren eskubide, betebeharrak eta aukerak ekoizten dituen neurrian ezin du gizaki oro ase. Herritartasunaren izaera polemiko hori dinamikoa da beti, eta hobeto ulertzen da eskubide, betebeharrak eta aukeren gaineko eztabaida-prozesu jarraitu gisa. Horrela ulertuta, ikerketa feministek eta generokoek badute zeresana eztabaida-prozesu jarraitu horretan.

2.1. Feminismoa mugimenduan dagoen teoria eta praktika gisa

Lan honetan feminismoaz hitz egiterakoan ez gara feminismo desberdinen edukietatik abiatuko, baizik eta *praktika feministaren prozedura-definizio* batetik (Lombardo eta Verloo, 2009). Horrela, praktika feminista bai *genero, sexu, menderatze- eta mendekotasun-erlazioen* kontzeptuei buruzko eztabaidek bai genero-berdintasunaren gaineko ikuskeratik kritikoen ugaritasunari buruzko borroka jarraituak ezaugarritutako modu espezifiko gisa ulertzen da. Etengabeko borroka da, edozein praktika feministaren kontzeptu nagusia *aldaketa* baita; hortaz, praktika feministak ezinbestez gatazken eta bateraezinak diren kokapenen presentziak elikatua izan behar du. Praktika feminista despolitizatua izango litzateke baldin eta kokapen feminista bat besteen gainean inposatuko balitz adostasun bat bilatzeko aitzakiarekin. Gogoeta horrek praktika feministak definitzen ditu feminismo anitzetan oinarriturik.

Feminismoaren definizio horretatik abiatzeak bi abantaila erakusten ditu:

- Borroka politiko feministaren *a priori* gisa *emakumeen identitate komun/partekatua* definitu behar ez izatea. Hortaz, saihesten da ikuspegi feministen partzialtasuna lotzea ustezko subjektu unibertsal batekin; subjektu hori, azken finean, kokapen partzial baten adierazpena baino ez da beste batzuen artean.
- Feminismoa etengabe eztabaidatua den modu gisa ulertzeak errazten du genero-borrokaren etengabeko eraldaketara egokitzea, baita haren estrategia eta agendetara ere.

Beraz, feminismoa mugimenduan dagoen teoria eta praktika gisa ulertzeak arrazoizkoa dirudi.

Etengabeko borrokaren formatuak dakar diskurtso feministek emakumezko zein gizonezkoen arau menderatzaileen asimilazio-prozesuak zalantzan jartzea. Hau da, feminismoak ez du soilik ezin eztabaidatuzko arau maskulinoaren asimilazioa kritikatzeko, baizik eta bere baitako aurkariak identifikatzeko: emakume talde zehatzen esentzialismo- eta homogeneizazio-prozesuak agerian uzten ditu, bai eta prozesu horiek eztabaidaren beste jarrera feminista askoren bazterketa ere.

Praktika feministen formatu teorikoak ikuskera konstruktibista eta dekonstruktibista batzen ditu. Lehenengo ikuskeraren ezaugarriak honako hauek dira: errealitatea sozialki eraikia izatea, ezagutza kontestualizatua eta kokatua, eta eraikuntza soziala aldaketari begira egintzarako gonbite gisa interpretatzea. Bigarrenarenak, honakoak dira: errealitatearen zatiketa eta aniztasuna azpimarratzea, egiaren behin-behineko izaera aldarrikatzea, Mendebaldeko filosofiaren hierarkia dualistak errefusatzea eta objektibotasunaren eta teoria bakar baten bilaketa.

Bi ikuskeren bateratze feministak ahalbidetzen du ezagutza partzialen etengabeko sorkuntza eztabaida feministetan, zenbaitetan gatazkan dauden jarrerak, eta horiek mugimendua eta haren praktikak bizirik mantentzen dituzte erronka eta aukera berriak agertu arte. Hala ere, subjektu feminista plural eta kontraesankortzat jotzeko ideal normatiboa oso gutxitan jartzen da praktikan, aurrerago ikusiko den legez.

2.2. Eztabaida feministak

Etengabeko genero-borroka baten markoan kontzeptu, ikuskera eta estrategien gaineko eztabaida politiko feminista ugari gertatzen da.

Genero-mendetasun eta zapalkuntzetatik gizarte aske bat lortzeko bide edo tradizio feministen ugaritasunak genero-berdintasunari buruzko hiru ikuskera nagusiren arteko uztarketa izan du emaitzat. Horietako bakoitzak auzi desberdinak planteatu dizkio politikari eta auzi horiek estrategia desberdinak ekarri dituzte.

Lehenik eta behin, *genero-berdintasuna* berdintasuna antzekotasun bezala lortzeko auzi moduan kontzeptualizatua izan daiteke, aukera-berdintasunaren estrategiarekin elkartzen da.

Bigarrenez, *berdintasuna* gizonezkoen arauarekiko ezberdintasunaren baieztapen bezala kontzeptualizatua da; egintza positiboen estrategia bat letorke ikuskera horrekin, horretara soilik mugatua ez egon arren.

Azkenik, *genero-berdintasuna* femenino eta maskulino diren/izan beharko lirakeen arau eta errutina ezarri guztien eraldaketa gisa ikusia izan daiteke; genero-zeharkakotasuna (*gender mainstreaming*) eraldaketa hori lortzeko haututako estrategia izan da.

Berdintasunaren ikuskeraren arabera, auzia zera da: emakumeak politikaren eremutik baztertuak izan direla, eta proposatzen den irtenbidea zera da, emakumeak mundu horretan sartzea, azpian dauden arau maskulinoak zalantzan jarri

barik. Estrategia hori gidatzen duen ideiak proposatzen du sexuari erreparatu gabe gizabanako bakoitzak gizonezkoen eskubide eta aukeretara sarbidea izatea; halaber, printzipio, arau eta estandar berdinen arabera tratatua izatea. Baina, tradizio feminista hori oso kritikatu izan da nagusi diren balio patriarkalak zuzenean zalantzan ez jartzeagatik.

Aitzitik, *ezberdintasunaren* ikuskerak emakumeek segitu beharreko eztabaidaezina den arau maskulino arazo sozial bihurtzen du (Mackinnon, 1987). Politika berregitea proposatzen du emakumeen (genero-identitate ez hegemonikoen) errekonozimenduaren bitartez. Ikuskera hori feminismo erradikal eta kulturalarekin elkartzen da.

Eraldaketaren ikuskerak, feminismo postmodernoak sustatzen duena, mundu generizatu bere horretan arazo bilakatzen du eta ez soilik emakumeen bazterketa edo arau maskulinoaren existentzia. Proposatzen den irtenbidea zera da: *berdintasuna versus ezberdintasuna dilema* faltsua gainditzea mendetasuna sortzen duten diskurtso politikoen deseraikuntzaren bitartez.

Genero-berdintasunaren gaineko hiru ikuskera teoriko horiek guztiak praktikan instituzionalizatu dira, eta osatzen duten markoan eztabaida politikoa anitz gertatzen ari dira. Eztabaida horiek guztiak barik, *herritartasun feminista* bati begira funtsezkotzat jotzen direnak ekarriko ditugu lan honetara.

2.3. Generoa eta beste desberdintasunak

Jakina denez, herritartasunaren eraketa sozialki eraikitako gizabanako unibertsal baten ideian oinarritu zen. Hori dela-eta, emakumeak herritartasunaren subjektu egiten ditugu haien artean berdinak balira bezala (Quesada, 2004), aintzat hartu barik emakume horien beste ezaugarriak: arraza, gizarte-klasea, etnia, adina, orientazio sexuala, gaitasunak eta beste desberdintasun konplexu batzuk. Homogeneizatzeko joera handi horrek eztabaida ugari sorrarazi du feminismoaren baitan. Oro har, teoria feministek generoa errealitate sozialaren printzipio antolatzaile eta analisi-kategoria gisa partekatzen duten kontzeptua da. Generoa ikusten dute botere- eta mendetasun-erlazioen eraikuntza sozialaren erdi-erdian dagoen sistema konplexu gisa, non rol sexualak sortuak eta ezberdinak izaten baitira. Gizarte batek sexu-ezberdintasunari eransten dion esangura etengabe aldatzen ari den legez, genero kontzeptua arin eta irekia da, baina haren muina sexu-erlazioen sozialki eraikitako izaeran eta izaera horrek boterearekin duen harreman estuan mantentzen da.

Teoria feministak praktikan lehentasuna daukan egiturazko desberdintasuneari zentratzen dira, lehentasun hori gero eta eztabaidatugoa izan arren. Azkeneko bi hamarkadetako eztabaidetan gai nagusia izan da: generoa nola txertatu emakumeen artean dauden ezberdintasunen testuinguruan. Feminismo beltzak funtsezko ekarpena egin zion herritartasunaren debatarei: akademiko feministei ohartarazi zien esentzialismoaren eta homogeneizazioaren arriskuez mugimendu feministaren baitan. Arraza, gizarte-klasea, etnia, adina, orientazio sexuala, gaitasunak eta beste desberdintasun konplexuak aintzat harturik, emakumeen arteko desberdintasunei buruzko teorizazio berriak garatu ziren (Yuval Davis, 1991;

Yuval Davis, 1997). Ezagutza horrek agerian utzi du genero-desberdintasuna bere konplexutasunean soilik uler daitekeela gurutzatzen diren beste desberdintasunen osagarri gisa. *Gurutzaketa politikoaren (political intersectionality)* kontzeptuak adierazten du estrategia politikoaren mailan funtsezkoak direla desberdintasunak eta haien arteko gurutzaketak (Crenshaw, 1989). Kontzeptu horrek arazo bilakatzen ditu desberdintasun politikoak desberdintasunezko ardatz bakar baten gainean eraikitako estrategia gisa erabiltzen diren neurrian. Halatan, genero-desberdintasunezko ardatzaren gaineko politikek aintzat ez hartzean beste desberdintasunezko ardatzak (etnia, arraza, orientazio sexuala, gizarte-klasea), ez liokete genero-desberdintasunaren konplexutasunari erantzungo. Horrela, honako galdera hauek sortzen ditu: non eta nola dago feminismoa gutxiengo etnikoak edota emakume ezgaituak baztertzen? non eta nola daude arrazismoaren kontrako neurriak emakumeak baztertzen? non eta nola daude genero-desberdintasuneko politikak lesbianak baztertzen? *Gurutzaketa politiko* kontzeptuaren erabilera akademian oso-oso zabalduta badago ere, politiken formulazioez ari garela badirudi hasiera-hasieran dagoela (Lombardo eta Verloo, 2009). Ildo horretan, genero-ikuskerak aintzat harturik herritartasunaren kontzeptua birdefinitu guran gabiltzala, *nola egin behar dugu: berdintasunezko herritartasun (subjektu morala) gisa ala herritartasun ezberdindu gisa?* Teoria feministak ezin du erantzun bateratu edota eredu oso bat eskaini, baizik eta proposamenak egin, finean, demokraziari buruzko ikusmolde desberdinei dagozkienak; partaidetza moduari, ordezkapenari eta eskubide sozial eta kultural zehatzen eskaerari dagokien jarrera ikuspegi orokor batek azaltzen baitu. Horren adibide dira Benhabib-en demokrazia deliberatiboa, Okin-en liberalismo rawlsianoa, Mouffe-ren demokrazia pluralista erradikala, Young-en demokrazia komunikatiboa edo postmodernismo erradikalaren jarrera: proposamenik ez egitea (Benhabib, 1996; Okin, 1994; Mouffe, 1996; Young, 1997). Egile horiek guztiak genero-ikuskerak sustatutako aldaketatik abiatu dira haien lanetan, proiektuen aniztasunak ez baitu feminismoaren borroka ahultzen, aberasten baizik, atal honen hasieran esaten den bezala. Aniztasun horrek ez ditu, ezta ere, zertan geldiarazi aldarrikapen politikoak. Inoiz errealtate bilakatu daitezkeen edo gutxienez dagoena eraldatzeko balio dezaketen eredu alternatiboak eraikitzeaz gain, bada beste analisi-eremu bat: dagoenaren testuingurua, dagoenetik abiatzea. Teorialariek demokraziaren ereduak buruzko proposamen normatiboak banatzen badituzte ere, bada feminista horiek batzen dituen lokarria, eta hori kritika da; kritika egungo erregimen demokratikoen egiturei eta prozesuei, emakumeak baztertzeagatik, gizonezkoen mendeko bihurtzeagatik. Teoria kritikoak ahalbidetu du egiaztatzea herritartasuna baztertzailea dela emakumeekin eta, gainera, aldaketarako proposamenak aurkeztu ditu erabat definitutako eraikuntza alternatiboekin ezinbestez ados izan gabe. Herritartasunari dagokionez, genero-analisiak burututako proposamen eraldatzaileek publiko/pribatu banaketa tradizionaltaren birpentsatzeak dakartzan auziei erreparatu diete, batik bat.

2.4. Politikaren definizioa: eremu publiko eta pribatuaren dikotomia

Genero-sistemak harreman sozial orori eragiten dio, bai eta harreman politikoei ere. Ideologia patriarkal liberalak sortutako *publiko/pribatu dikotomia* ezaugarritu eta mugatu du eremu politiko modernoa. Dikotomia horrek ikusten du gizartea banaturik bi eremu hierarkizatutan: *publikoa* *gizonezkoen esleitua* eta

pribatua emakumeei atxikia, lehenengoari gorenako estatusa, botere-kuota eta baliabide material gehiago erantsiz. Eredu politiko modernoak eremu publikoaren zatia da eta, hala, hartan jardutea gizonezkoek dagokie. Partaidetza sozial eta politikoaren gaineko definizio gehienak eremu politikoari/publikoari dagozkio, eta duela gutxi arte emakumeak eremu publikotik baztertuak izan diren legez, haien partaidetza sozial eta politikoa gure gizarteetan ikusezina izan da. Egun dikotomia hori eztabaida-gai bihurtu da bai teoria politikoan bai soziologia politikoan, eta gertaera horretan berebiziko garrantzia izan du teoria feministak landutako ekarpen kritikoak. Feminismoak egindako ekarpenak *publiko/pribatu* dikotomia gainditzeaz gain, partaidetza sozial eta politikoaren gaineko definizio berri bat ere eskaini du, non partaidetza hori komunitate osoari zabalik, eta ez soilik zati bati, ulertzen baita.

Osootasun sozialean partaidetza-proposamenaren atzean errealitatearen inguruko ulerkuntza bi eremu bereizietan bananduta barik, konplexuagoa den beste bat ageri da. Horrela, bi eremu horiek gehituko genieke hirugarren bat, *etxekoa*, *pribatua* denaz oso bestelakoa. *Pribatua* norberaren espazioari eta denborari dagokie, espazio eta denbora horietan erabakiak har daitezke; balio baikorra da, kanpoko mundutik aldentzeko modua *pribatutasunean* ongizatea eskuratu ahal izateko: *gizonezkoen pribatutasuna* da. Baina, badago pribatutasunaren bigarren modu bat *norberari* baino gehiago *besteei* dagokiena, etxean familiarekin eta familiak sortzen dituen premiekin garatzen dena. Nor bere buruarekin egotea baino besteekin egotea da, zerbitzu-egoera da: *emakumezkoen pribatutasuna* da, eta ez du inolako baliorik. Etxekotasunak esan nahi du uko egitea norberaren espazioari eta denborari, beste batzuen onuran (Murillo, 1996).

Publiko/pribatu dikotomia liberala gizarte zibilaz ari dela, ez du aintzat hartzen *etxeko bizitza*, eta horrela gizarte-teorizaziotik baztertzen du emakumeen esperientzia zein eguneroko bizitzarekin zerikusia daukan guztia: lana (ez enplegua), harremanak, zaintza, bizitza... horiek guztiak ezinbestekoak badira ere eremu publikoak eta pribatuak funtzionatu ahal izateko. Etxekoa (domestikoa), *publiko/pribatuarekin* erlazionatzeaz gain, publiko/domestikoarekin ere erlazionaturik dago; batetik, eremu publikoan hainbat eta hainbat zirkunstantzia pertsonal arautu eta egituratu egiten baitira, hala nola familia-legeak, enplegua, abortua, eta abar. Eta, bestetik, familiak burutzen baititu *bizitzaren ugalketa sozialaren* iraupenerako ezinbestekoak diren funtzio sozialak: sozializazio-prozesuak eta zaintza, funtzio horietako batzuen baitan gorputzarekin, bizitzaren oinarri natural gisa, erlazionatutako guztia barne harturik.

Publiko/pribatu dikotomiaren beste osagaietako bat *denbora* da. Gure gizarte aurreratuetan diru bilakatu daitekeen denbora baloratzen da: denbora publikoa. Hala ere, feminismoak agerian utzi du badagoela beste denbora bat, ekonomia, hegemonia eta boterearen gerizpean eratua, denbora publikotik at: *ugalketaren denbora*. Denbora horrek bizitzarako behar-beharrezkoak diren denbora anitz batzen ditu: zaintza, afektua, mantenua, etxeko kudeaketa eta administrazioa, harremanak, aisia... denbora neurtua eta ordaindua barik, bizi izandako denbora da, emana eta sortua, zenbatezina, gizakiaren subjektibotasuna daramana; ezaugarri horiek guztiek zerikusia daukate bizitzaren antolakuntzan eta harremanetan jarritako desioekin eta eguneroko bizitzari zentzua ematen dioten nahiekin (Carrasco, 2006; Zabala eta Luxan, 2009).

Denboraren alde kualitatiboak aintzat ez hartzeak desagerrarazi eta balioa kentzen diote bizitza-zikloari lotutako emakumezkoen esperientziari. Eguneroko esperientzia horretan —non publikoa ez den denbora ikusiezina baita— kudeaketa-arazo handienak sortzen dira, batik bat emakumeentzat. Orduak antolatzea baino haratago doan kudeaketa da: denborak, ardurak, afektuak, emozioak, sareak, enplegua/lana, aisia, partaidetza, eta abar; espazio ezberdinetan sailkatzeko zailtasunak aurkitzen duen ardura da.

Gorago azaldutako ideiek partaidetza-eredu maskulinoaren izaera baztertzailea agerian uzten dute, denbora eta egintza-askatasuna beharrezkoak baititu merkatuan edo egintza publikoan jarduteko; ez du, hortaz, espaziorik gizakion zaintzarako. Baina, partaidetza horrek etxeetan bizi direnen premiak, merkatuan edo egintza publikoan ari diren gizonezkoenak barne, asetzeko beste gizakiren bat —emakume bat— behar du. Hala, eremu politikoak eta herritartasunak genero-desberdintasunak birsortzen eta mantentzen dituzte beste egiturek, lanak eta intimitateak, egiten duten bezala; horietan guztietan erdi-erdian publiko/pribatu dikotomia dago. Lan-eta intimitate-banaketek publiko/pribatu dikotomia birsortzen dute, lanaren eta zaintzaren arteko banaketa zein lan ordainduaren eta ordaindu gabeko lanaren artekoa gizon eta emakumeen arteko hierarkia batean oinarritzen baitira, eta azken horrek emakumeak mendeko egoera batean kokatzen ditu. Maskulinitatearen eta feminitatearen eredu tradizionalak zein osagarritasun heterosexualaren onarpenak bizitza pribatuaren antolaketa eta haurrekin izaten diren erlazioak zeharkatzen dituzte. Herritartasunak *eremu pribatua eta etxekoa* ez ditu aintzat hartzen, eta, beraz, murrizgarria da. Herritartasuna unibertsala izateko (guztientzat eskubide berberak) ezaugarririk gabeko gizabanakoari zuzendu behar zaio, aintzat hartu barik haren ideologia, gizarte-klasea, arraza, etnia, generoa, familia, adina, bizitza-zikloa... Herritar onari eskatzen zaio bere leialtasun partikularrak, lokarriak eta ardurak ahaztea, baina, hain zuzen ere, leialtasun horien gainean eraiki izan du bere indibidualtasuna gizabanako gisa. Kontraesan horrek publikoaren eta pribatuaren arteko aurkakotasuna adierazten du: publikoa politiko da, eskubide eta ezaugarri unibertsalen eremua, eta pribatua, bereziki familia, aniztasun eta berezitasunen eremua da. Herritartasunaren kontzeptualizazioa soilik publikoa izateak ekarri du eskubide indibidualen ekoizpena jardun publikoekin loturik egotea: enpleguarekin, politikarekin, bizitza sozialarekin eta kulturalarekin.

Zalantzarik ez da eremu publikoaren eta pribatuaren arteko banaketaren gaineko eztabaidak funtsezkoa segitzen duela izaten praktika feministan. Izan ere, praktika politikoetan zein politiken formulazioetan hutsune lar dago, zenbait gai pribatutzat hartu diren bitartean, beste batzuk mendetan estatuak arautu izan ditu, besteak beste, genero-identitateak, sexu-identitateak, maitasuna eta grina. Hala da, estatuak berak esku-hartze zuzena izan du genero-desberdintasunen iraupenean. Baina, era berean, esan beharra dago ongizate-estatuak, printzipioan ez bada ere, bai praktikan, aldatu duela publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa. Gizarte-eskubideen existentziak bizitza pribatua politikaren eremuan sartu du, beraz bizitza publikoan; nahiz eta aldaketa praktikoko horrek politikaren birdefinitorik ekarri ez. Gai horrekiko dualtasun bitxia mantentzen du politikak: gizarte-eskubideak eskaintzen ditu, baina ez die onartzen eskubide politikoek duten estatus bera. Haien

onuradunak, emakumeak bezala, beheko estatus batekoak balira bezala ikusiak dira. Herritartasunaren beraren baitako gizarte-eskubideak barik, «marjinal»en premia gisa ulertuak dira.

Esan bezala, publikoaren eta pribatuaren arteko muturreko ezberdintasunaren oinarrian genero-sistema egon zen. Eremu pribatuaren isiltasuna mantentzen da, ahots publikoak aldatu badira ere, eta aldaketa horrek berorren birkontzeptualizazioa eskatu arren. Publiko eta pribatuaren eduki eta ezaugarriak, haien instituzioak eta jardunak denboran zehar joan dira aldatzen, *baina politikak ez du inoiz bere burua definitu eremu bietatik datozen helmuga kolektiboak finkatzeko espazio gisa*. Politika publikoa eta haren adierazpena izan da beti, ahots publikoa. Ahots publikoa eta isiltasun pribatua. Politikaren izaera horrek ondorio garrantzitsuak izan ditu gizarte-helmuga kolektiboek zein helmuga horiek eskuratzeko agenteei begira: emakumeak baztertu ditu, baita jardun pribatuetatik eratortzen diren proiektu sozialak ere. Hala ere, emakumeek, hasierako bazterketa eta geroko sarbide mugatua herritartasunean bizi arren, beti izan dituzte bai eskariak egiteko bai proiektu politikoei ekarpenak egiteko partaidetza politikorako moduak. Feminismoa izan da eskari horien adierazpena, baina, aldi berean emakumeek erakunde politiko anitzetan, instituzionaletan zein sozialetan, parte hartu dute (Astelarra, 2005).

2.5. Feminismoak estatua eraldatzen: berdintasun-politikak, ordezkapena eta presentzia politikoa

XIX. mendeko nazio-estatuak mundu publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa zilegitu egin zuen. Legediak eta ezarritako politika publikoek egoera hori sendotu zuten, eta justizia arduratu zen horrela ezarritako ordena iraunarazteaz. Emakume anitz egoera horren aurka altxatu eta mugimendu sufragistan antolatuta ziren; baina Lehen Mundu Gerra amaitu arte itxaron behar izan zuten boz-eskubidea eskuratzeko. Bigarren Mundu Gerraren amaieran Mendebaldeko herrialde gehienetara zabaldu zen. Nazioarteko mugimendu sufragistak lege-mugak ezabatzea lortu bazuen ere, zeharkako mekanismoen bitartez emakumeen diskriminazioak irauten zuen. Estatuak emakumeei familia eta bertan egiten diren zereginen ardurak atxikitzen segitzeaz gain, ez zien familia-autoritaterik aitortu; estatus hori aitaren edo gizonezko nagusiaren esku utzirik.

Esan bezala, ongizate-estatuak publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa praktikan aldatu du, eskaintzen dituen zerbitzu gehienak estatuaren eta familiaren artean partekatzen baitira, eta zerbitzu horien azkeneko hartzaileak familiak direlako. Halarik ere, aldaketa praktikoa horiek ez zieten estatus-aldaketarik ekarri emakumeei, estatuarentzat herritar desberdinak izaten jarraitzen zuten, haien rol nagusia familian ikusten zuelako; gizarte-eskubideak ez ziren gizabanakoekin elkartu, eskubide politikoekin gertatu zen bezala, zeren azken horiek lan-merkatuan enplegua zeukatenean lotu baitziren, gizonezkoekin, eta horien ardurapean gelditzen ziren soldatarik jasotzen ez zuten gainerako familiakideak. Egoera hori emakumeen kalterako izan da.

Boz-eskubidea izateak emakumeak herritar bihurtu zituen, baina ez zuen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ekarri. Desberdintasuna zuzendu ahal izateko beharrezkotzat jo zen botere publikoen esku-hartzea, zeren, desberdintasun

hori gizartearen antolaketak eratorria izateaz gain, zenbait politika publikok ere birsortzen eta mantentzen baitzuten.

Mugimendu feministak, 1960ko hamarraldian sortua²⁷ eta hurrengo bi hamarraldietan sendotua, sortutako giro sozialak eragin zuen estatuak bere jardun diskriminatzaileak aldatzea. Hainbat estrategia erabili izan dira (erabiltzen ari dira) emakumeen desberdintasuna eta diskriminazioa zuzendu eta ezabatu ahal izateko: aukera-berdintasuna, egintza positiboa eta *mainstreaming-a*²⁸.

Aukera-berdintasunaren politikak helburutzat du emakumeak sartzea mundu publikoan. Behin gizonezkoek zituzten eskubide berak onartuak zituztela, bermatu behar zen emakumeek eskubide horiek baliatzea eta horretarako lege-, ekonomia-, gizarte-, kultura- eta botere-mugak ezabatu behar ziren. Emakumeek aukera berberak izan ditzaten lanabes nagusietako bat hezkuntza formala zein kulturala izan da. Emakumeek lan-merkatuan, politikan eta gizarte-bizitzan erabil ditzaketan eskubide indibidualak dituztela jabetzea da helburu. Kultura-prestakuntza horrekin batera ezinbestekoa zen lan-merkatuari begirako prestakuntza, bai ertaina bai goi-mailako hezkuntza. Hortaz, hezkuntza-politikak aukera-berdintasunaren estrategian lanabes nagusietako bat dira. Baina, ez da nahikoa emakumeek kontzientzia izatea, egituraren aldaketak eragitea ere bada estrategia honen beste helburuetako bat. Ildo horretan legedia izan da egiturazko osagai nagusia, legedia ezinbestekoa baita berdintasun juridikoa bermatzeko. Bide horretan lehenengo zeregina legedia bera berrikustea da, boz-eskubidea onartua izan arren, desberdintasun ugari irauten baitute lege-corpusetan. Behin ezabaturik diskriminatzaileak diren legeak, berdintasunaren aldeko lege berriak sortzen dira: indarkeria, enplegua, familia-bizitzaren eta lanaren arteko kontziliazioa, eta instituzio politikoetan parte hartzeko legeak. Baina, legealdaketek ez dute emakumeen gizarte-bizitzan aldaketarik sortzen. Politika horien azterketek agerian utzi dute emakumeek eta gizonak dituzten baldintzak ez direla berdinak mundu publikoan jarduteko.

Aukera-berdintasunaren strategiak emaitza on anitz izan baditu ere, ez dira gutxi izan emakumeak aurkitu dituen arazoak mundu publikoan sartzeko, eta horietatik nagusia aintzat ez hartzea emakumeen diskriminazioari eusten dion gizarte-antolaketa, bereziki familian duten rola. Esan bezala, ez da hori izan arazo bakarra, emakumeak mundu publikoan sartzean ikusi da bertan ere diskriminatuak direla. Arazo edo muga horien aurrean mugimendutik datorren erantzuna honakoa da: emakumeak ez badira berdinak abiaburuan eta, hori dela-eta zailtasun gehiago badituzte mundu publikoan jarduteko, abiaburua zuzendu behar da. Aldi berean, bermatu behar da eremu publikoan, lan-merkatuan, politikan edo gizarte-bizitzan emakumeek gizonak lortzen dituzten kokapen berak lortzea. Egintza positiboa eta emakumeak botereaz jabetzea izango dira hautatutako strategiak aukera-berdintasunak agerian utzitako mugak gainditi ahal izateko.

Egintza positiboak sustatzen ditu emakumeek mundu publikoan dituzten desabantailak zuzentzeko esku-hartze politikak, hala, baldintza-berdintasunean, desberdintasun-subjektua den emakumeari lehentasuna ematen zaio gizonaren

27. Mugimendu Feministaren bigarren uhinari buruz ari gara.

28. Lan honen «Eztabaida feministak» izeneko azpiatalean aurkeztu eta azalduak izan dira.

gainera. Egintza positiboaren moduak erabiltzen dituzten politika ugari dago, besteak beste, kuoten sistema. Sistema horrek zenbait jardueratan parte hartzen duten gizon eta emakumeen arteko zenbakizko proportzioa orekatzea du helburu, esaterako emakumeen ordezkari politikoak sustatzea. Botereaz jabetzea egintza positiboaren ildo beretik doa, emakumeentzat botere-kuota handiagoak bermatzea, alegia.

Emakumeak botereratzeko zenbait estrategia lagun izan ditu egintza positiboak, diskriminazioa desagerrarazteko ez baita nahikoa emakumeei aukerak ematea. Jakina den bezala, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan boterea osagai nagusietako bat da, eta botere horri aurre egiteko ezinbestekoa da, batetik, emakumeek autoestimua eta haien gaitasunetan konfiantza handiagoa izatea, eta, bestetik, haien bizitza pertsonalean eta publikoan boterea baliatzea.

Egintza positiboa aukera-berdintasunaren osagarri beharrezkoa izan bada ere —hark zeuzkan zenbait muga gainditu ahal izateko—, haren aplikazioak ere ez du diskriminazioaren desagertzea ekarri, ez baitio oinarrian dagoen auziari erantzunik eman: emakumeak mundu publikoan jarduteak ez du etxeoandarearen rola eraldatu. Emakumeen bizitzan jardun bikoitza bizimodu bihurtzen da.

Beraz, emakumeen diskriminazioaren aurkako estrategia publikoak garatzeko behar-beharrezkotzat jotzen da estrategia horien atzean dagoen kontzeptu-markoa aldatzea. Kategoria berriak behar dira emakumeen desberdintasuna zertan datzan azaltzeko, eta horretarako ezinbestekoa da genero-sistema aintzat hartzea, eta ez soilik mundu publikoa. Kontzeptu-marko berri horren oinarrian *genero-berdintasuna* eskuragarri izateko femenino eta maskulino diren/izan beharko liratekeen ezarritako arau eta errutina guztiak eraldatzea proposatzen da, ildo horretan hobetsi diren estrategia politikoak mainstreaming-a eta parekotasuna ditugu.

Mainstreaming-ak hasiera batean estatuak aukera-berdintasunaren politiken esku-hartze eremua zabaltzea eskatzen zuen, alegia, estatuak bere osotasunean sustatzea politika horiek: diskriminazioaren aurkako konpromiso politiko handiagorekin eta jardun horretan baliabide eta instituzio gehiagoren inplikazioarekin. Halaber, estrategia horren muina izan da jardun publikoan genero-dimentsioa ezartzea, hala, jardun publiko bakoitzaren eragina aztertua izaten da ikusi ahal izateko eragin hori desberdina izan den ala ez emakume eta gizonen kolektiboetan. Mainstreaming-a aurreko strategiak baino zabalagoa bada ere, ez da horien ordezkaria, politika guztiak bateratzen dira.

Bestalde, parekotasuna egintza positibo gisa planteatzen da genero biek izan dezaten ordezkari berdina jardun guztietan, baina bereziki kokapen eta kargu politikoetan. Parekotasuna kuoten politikaren aplikazioan datza, genero batek ere ez dezala izan ordezkari politikoaren % 60 baino gehiago (erlazioa izan dadila % 60 - % 40). Egintzaren helburua da gizarte-jardunetan banaketa horri esker lege-subjektu sexuatu bi errekonozituak izatea, gizon eta emakumeen arteko berdintasun formalaren mugak gaindituz eta eremu guztietan benetako berdintasuna bermatuz. Sexu-identitatea pertsona legalaren definizioaren baitan sartzeak estatus bera lekarke emakumeentzat zein gizonentzat. Hori da parekotasuna.

Herritartasunari dagokionez, azaldutako hiru estrategia horien baitan ordezkapenari erreparatu zaio norabide bikoitzean. Batetik, aurreko azalpenetan lerro artean iradoki bezala, ordezkapen instituzionalaren eremu tradizionaletan, batzarretan, administrazio publikoetan eta exekutiboetan emakumeen presentzia aldarrikatu izan da, elite politikoetan presentzia lortzeak ekarriko zuelakoan gai berriak agertzea agenda politikoan eta politika publikoetan eragitea. Bestetik, izaera zabalagoa duen ordezkapena lortzea, alegia, ez soilik parte hartzen dutenen kopurua handituz, baizik eta partaidetza hori burutzen den lekuak eta moduak hedatuz. Emakumeentzat eskuragarriagoak diruditen partaidetza ez-formalen moduak (Amurrio *et al.*, 2007b: 39-41) aldarrikatzeaz gain, partaidetza zabalagoa sustatzea erlazionaturik legoke lan-banaketa sexualaren eraldatzearekin zerikusia daukan proposamenarekin: partaidetza sozial eta politikoa komunitate osoari irekia izatea.

Orain arte azaldutako estrategia eta neurri politiko horiek guztiak Euskal Herrian ere aplikatu izan dira modu zabal batez, banaketa administratiiboak politiken hedapen mailan eragin handia izan badu ere. Hegoaldean, Espainiako estatuak ezarritako ereduari eutsi zaio, eta horrela berdintasun-politikak bideratu ahal izateko Emakumearen Erakundeak sortu ziren 1980ko hamarraldian, Euskal Emakumearen Erakundea eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua²⁹. Erakunde horien egintza-gaitasuna dagozkien administrazioetan lortutako legitimitate mailaren arabera izan da, ildo horretan argitu behar da, egun Euskal Emakumearen Erakundea V. Berdintasun Plana martxan jartzen ari den bitartean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak duela urtebete eskas itxi duela I. Aukera-Berdintasunaren Plana (2006-2010)³⁰ (halaber, Euskadiko Autonomia Erkidegoak Espainiako estatuak baino hiru urte lehenago onartu zuen *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea*). Badirudi, beraz legitimitatea zabalagoa lortu duela Euskal Emakumearen Erakundeak Nafarroakoak baino. Datuen argitan ere administrazio bien arteko aldea nabarmena da:

Mundu publikoan sarbidea: egintza positiboa

Emakume zinegotzien portzentajeak

<i>Epea</i>	<i>1995</i>	<i>2002</i>	<i>2011</i>
<i>Nafarroa</i>	<i>17,2</i>	<i>21,1</i>	<i>27,74</i>
<i>Euskadi</i>	<i>21,4</i>	<i>26,6</i>	<i>35,05</i>

Iturria: Astelarra, 2005: 378 eta <www.mujaresenred.net>.

Emakumeen portzentajeak legebiltzar autonomikoetan

<i>Epea</i>	<i>1998/1999</i>	<i>2011</i>
<i>Nafarroa</i>	<i>26</i>	<i>34</i>
<i>Euskadi (1998)</i>	<i>30,7</i>	<i>45</i>

Iturria: Astelarra, 2005: 374 eta <www.mujaresenred.net>.

29. Gaztelaniaz, Instituto Navarro para la Igualdad y la Familia, lehenago Instituto Navarro de la Mujer. <www.navarra.es> 2012ko apirilaren 1ean ikusia.

30. <<http://www.navarra.es>> 2012ko apirilaren 1ean ikusia; <<http://www.emakunde.euskadi.net>> apirilaren 1ean ikusia.

* Parekotasunaren helburua lortua.

Aipatzekoa da, orobat, Euskadiko Autonomia Erkidegoan sortutako berdintasun-teknikarien udal-sarea, Berdinsare, teknikarien koordinazioa eta elkarlana sustatzeko sortua. Berdintasun-teknikari horien eskutik ere etorri da tokian tokiko jabetze-eskolen antolaketa zabal.

Hogei urte baino gehiagoko jardunaren berri ematea ez da lan honen xedea, datu gutxi batzuk baino ez dira aipatu erakutsi ahal izateko zenbait euskal herritan berdintasunaren alde hasitako bidea, emankorra zenbait auzitan, ez horrenbeste beste batzuetan³¹. Feminismo instituzionalak lideratutako bidea izan da, emakumeen talde zein talde feministekin harremanetan, betiere ahal izan den kasuetan.

Idazlan honetan erakutsi bezala, herritartasunaren gaineko azterketa feministak politikaren izaera eta estatuaren jarduna aztertzeraz ere garrantzitsua; gogoeta horietatik eratorritako zenbait praktika burutu dira aipatu eremuetan, eta, modu xume batean bada ere, erakutsi nahi izan da praktika feministek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bilatzeko bide luzean emaitza on anitz lortu arren, behin eta berriro ageri dela oztupo bera: gizartearen antolaketan oinarrian dagoen lan-banaketa sexuala; hala, aldaketen gabezia emakumeen presentzia handiena duen eremuko dugu, etxekoa. Ere horretan gauzatzen diren lanak bizitzarako funtsezkoak badira ere, oraindino gure gizarteetan baliorik gabeko zereginak dira, horietan ematen den denbora bezala, zenbatezina baita emakumezkoen denbora. Jardun horiek ez dute islarik herritartasun publikoan, baina emakumeak baztertzeko ez dituen bestelako herritartasuna posible dela plazaratu nahi izan da idatzitako lerroetan, hori bai, ahots publikoak eta pribatuak batzen dituen politika baten baitan, estatuak lagunduta ahots horiek batze bidean.

Egun, Euskal Herrian euskal naziotasunaren sentimendu zabal batek Euskal Estatu baten aldarria elikatzen duelarik, egitura politiko horren gaineko gogoeta-prozesu interesgarria irekitzen ari da, eta bertatik gogoeta horretan parte hartu nahi da feminismoak sortutako lanabes guztiak, teorikoak zein praktikoak, baliatuz euskal gizarte osoaren onuragarria izango delakoan.

2.6. Ahots publikoek eta ahots pribatuak bat egiteko aukera Euskal Herrian

Goian esan bezala, gure gizarteko sektore sozial eta politiko zabal batek balizko Euskal Estatu baten egingarritasunaz gogoeta-prozesu bati hasiera eman dio. Ikuspegi feministak prozesu horretan eragin dezaketen genero-harremanak agerian uzteaz gain, proposamenak biderra ditzake sortutako genero-desberdintasunen aurrean. Goazen, bada, aipatu gogoetan parte hartzeraz.

Euskal naziotasun-sentimendu zabal batek sustatzen du estatu baten beharra, sentimendu zabalaz mintzo da, eraikitzen ari den nazio-proiektuarekiko sentimendua da garrantzitsua, beraz, asmoa da ahalik eta partekatuen eta integratzaileen izatea proiektu hori euskal naziotasun-sentimendua are zabalagoa izan dadin euskal gizartean. Nazio-proiektua zerk osatzen duen eztabaidatzean susmoa da emakumeen eta gizonen partaidetza ez dela berdina, eta horretaz

³¹. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen zenbait atal garrantzitsu oraindino garatu eta bete barik baitaude.

gain emakumeek diotenari gizonek diotenari baino gutxiago erreparatzen zaiola (Walby, 1992). Horrela, genero-harremanak eragin handikoak lirateke erabakitzeke zerk osatzen duen nazio-proiektua. Gerta liteke emakumeen interesik ez egotea edo interes horiek ondo adierazita ez egotea nazio-proiektuan eta, ondorioz, emakumeak ez agertzea proiektu horren alde. Hori horrela balitz, nazio-proiektu horrekiko sentimendua are zabalagoa izateko aukeretako bat galdutzat eman liteke. Beraz, hori ez gertatzeko bi dira konpondu beharreko arazoak: bat, emakume eta gizonen partaidetza desberdina, eta, bestea, parte hartzen duten emakumeen esanak aintzat ez hartzea. Lehenengoari eman beharreko irtenbidea erraza da: emakume eta gizonen partaidetza eztabaida horietan parekoa izatea; horretarako, gainditu beharko dira emakume gehienek dituzten oztopoak parte hartzeko, jarduna bikoitza ez dadila hirukoitza bihurtu. Eta, bigarrenari buelta ematea da, alegia, aintzat hartzea emakumeen interesak eta proposamenak. Irtenbide biek hein handi batean *kultura politiko eta botere-harremanen aldaketa eskatzen dute*, lortuz gero, berdintasunezko harremanetan oinarritutako nazio-proiektua izango genuke, nazio-proiektuak berdintasunaren balioa erantsita euskal gizartean aurkeztean aukera gehiago izango luke atxikimendu handiagoa erdiesteko.

Euskal naziotasun-sentimendu zabalago batek, berdintasunezko harremanetan oinarritutako nazio-proiektuak sortua, eraiki beharreko estatuan txertatu beharko lituzke eremu publikotik zein pribatutik (etxekoa barne), bietatik datozen helmuga kolektiboak, eta, horrela, merkatuari begira barik, bizitza osoari begira jarriko genuke balizko Euskal Estatu. Halaber, herritartasunaren kontzeptualizazio berri bat sortuko luke estatu horrek; publiko barik, eremu biak, publiko eta pribatua, aintzat hartuko lituzke eta, horrela, eskubide indibidualen ekoizpena loturik egongo litzateke jardun publikoekin eta pribatuekin: enpleguarekin, politikarekin, bizitza sozialarekin, kulturalarekin, etxeko lanarekin eta zaintzarekin. Halaber, eskubide indibidualen onura zabal liteke populazio osora.

Eraldaketa horiek guztiek politikaren eremua birdefinituko lukete, bizitza publikotik eta pribatutik datozen helburu kolektiboak finkatzeko eremu gisa. Baina helburuak finkatzea gauza bat da eta helburuak lortzea beste bat. Azkeneko jardun horretan balizko Euskal Estatu euskal gizartearekin harremanetan jarri beharko da, aipatu helburu kolektibo horietako askok gizarte-egiturazko aldaketak eskatzen baitituzte, alegia, familia-harremanak, intimitate-harremanak, lan-harremanak, etab. Legedia eta genero-politikak lanabes baliotsuak dira, baina ez nahikoak, hortaz, Euskal Estatuak ezin izango lituzke aipatutako helburuak lortu euskal gizartea alde izan ezean, Euskal Estatuaren eta euskal gizartearen arteko harremanak beti irekiak izateko eta bizirik mantentzeko udal-administrazioei erreparatu beharko lieke bai eta gizarte-mugimenduei ere.

Euskal gizartea modernoa, aurreratua, plurala eta kultura-aniztuna da, eta lan honen hasieran esan bezala, edozein direla herritartasuna definitzen duten osagaiak beti egongo da norbait pozik agertzen ez dena. Herritartasunaren izaera polemiko hori dinamikoa da beti, eta hobeto ulertzen da eskubide, betebeharrak eta aukeren gaineko etengabeko eztabaida-prozesu gisa. Feminismoa ere eztabaida-prozesuek ezaugarritzen eta zeharkatzen dute, horietan, ikusi bezala, kontzeptu berriak sortzen ditu oraindik maila normatiboan, eta akademian erabiltzen ari badira ere, baliteke

geroan herritartasunaren eztabaida-prozesu horretan ere ekarri interesgarriak egin ahal izatea, *gurutzaketa politiko (political intersectionality)* moduko kontzeptua praktikan jarriz gero. Ezin baita ahaztu *emakumeen* kategoria politikoak ez dituela emakumeen artean egon daitezkeen beste desberdintasunak ikusten: arraza, gizarte-klase, etnia, adina, orientazio sexuala eta beste. Euskal herritartasunaren gaineko gogoetak desberdintasun horiei ere erreparatu beharko die, eta horretan feminismoaren tresneria teorikoa bidelagun izan beharko luke.

BIBLIOGRAFIA

- Amurrio, M.; Larrinaga, A. eta Mateos, T. (2007a): *Participación sociopolítica de las mujeres en los órganos de decisión y consultivos del ámbito institucional municipal de Bilbao. Informe cuantitativo*, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Investigación financiada por el Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao (argitaratu gabe).
- , (2007b): *Participación sociopolítica de las mujeres en el ámbito institucional municipal de Bilbao. Informe cualitativo*, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Investigación financiada por el Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao (argitaratu gabe).
- Astelarra, J.(2005): *Veinte años de políticas de Igualdad*, Cátedra, Madrid.
- Benhabib, S.(1996): "Toward a deliberative Model of Democracy", in S. Benhabib (ed.), *Democracy and Difference*, New Jersey, Princeton University.
- Carrasco, C.(2006): *Estadístiques sota sospita. Proposta de nous indicadors des de l'experiència femenina*, Institut Català de les Dones, Bartzelona.
- Crenshaw, K. W. (1989): "Demarginalising the intersection of race and sex: a black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics", *University of Chicago Legal Forum* 139, 139-167.
- García Guitián, E.(1999): "Ciudadanía y Género: posibilidades de análisis desde la teoría política", in M. Ortega eta beste, *Género y Ciudadanía. Revisiones desde el ámbito privado*, Instituto Universitario de Estudios de la Mujer, Madrid, 53-63.
- Lombardo, E. eta Verloo M. (2009): "Contentious citizenship: feminist debates and practices and european challenges", *Feminist review*, 92,108-128.
- Murillo, S. (1996): *El mito de la vida privada*, Siglo XXI, Madrid.
- Mouffe, Ch. (1996): "Democracy, Power and the Political", in S. Benhabib (ed.), *Democracy and Difference*, New Jersey, Princeton University.
- Okin, S. M. (1994): "Political liberalism, justice and gender", *Ethics*, 105
- Quesada Saravia, L. (2004): "Hacia una propuesta holística política para abordar la relación 'género y democracia'", in A. Garcia (ed.), *Género y ciudadanía: un debate*, Icaria, Bartzelona.
- Walby, S. (1992) : "Woman and Nation", *International Journal of Comparative Sociology XXX-III*, 1-2, 81-100.
- Young, I. M. (1997): *Intersecting Voices*, New Jersey, Princeton University.
- Yuval-Davis, N.(1991): "The Citizenship Debate: Women, Ethnic processes and the State", *Feminist Review*, 39, 58-68.
- Yuval-Davis, N. (1997): "Women, Citizenship and Difference", *Feminist Review*, 57, 4-27.
- Zabala, I. eta Luxan, M. (2009): *Propuesta de elección y construcción de un sistema de Indicadores de Igualdad y no Androcéntricos para el municipio de Bilbao*, Universidad del País Vasco / Euskal herriko Unibertsitatea, Investigación financiada por el Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao (argitaratu gabe).

Azterlan honetan jasotako ekarpen teorikoak, interesgarri bezain baliagarriak izango dira euskal Estatuaren aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu bilduma honetan agerian geratzen da Estatu delat alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarrizko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar Estaturen multzoan Estatu berri bat eraikitzeko.

